2018-03-02 EGUBAKOITZA / 763. ZENBAKIA / 18. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS TOKIKOM

goiena
Zu hemen zaude.



# AMANTALAK ESKEGI ETA KALERA

Emakumeen Eguna dela eta, Martxoaren 8rako greba deialdia egin du mugimendu feministak, eta Elorregiko martxa deitu biharko. Udalek ere ekimen ugari antolatu dituzte

**2. orrialdea eta Herriak saila**

## SINADURAK

IKER ELEXPURU / **23**
GARIKOITZ ITURBE / **8**
MIEL GURIDI / **35**
IBON ARRUPE / **11**
MIKEL IRIZAR / **48**

+




Emakumeen egoera sozioekonomikoa aztertzen

Anosmia, usaimen gaitasunaren galera






Iazko Martxoaren 8ko manifestazioa, Arrasaten. GOIENA

## Martxa Elorregira

Bihar, emakumeen martxa Elorregira.

**Antzuola eta Bergara**
- **10:00etan** Bergarako azokan.

**Aretxabaleta**
- **10:00etan** Lausittako bus geltokian.
- **10:30ean** Biteri plazan.

**Arrasate**
- **10:30ean** Biteri plazan.

**Oñati**
- **10:45ean** Eltzian.

## Ekintza aipagarriak

**Arrasate**
- Gestazio subrogatuaren gaineko mahai ingurua, martxoaren 21ean, 19:00etan, Kulturaten.

**Oñati**
- *La casa de Bernarda Alba* antzezlanaren gaineko solasaldia, hilaren 5ean, 18:30ean, Kultura Etxean.

**Bergara**
- Elkar Lapiko bazkaria San Martin plazan, 13:00etatik 15:00etara.

# 'Emakumeok planto', mundua eraldatzeko

Emakumerik gabe herrialdea gelditu egingo litzatekeela utzi gura du agerian mugimendu feministak. Helburu gehiago ere badituzte: indarkeria matxista eta sistema patriarkala salatzea eta alternatiba feminista bat eraikitzea

**Miren Arregi** ARRASATE

Martxoaren 8rako, *Emakumeok planto* aldarriarekin greba feminista deitu du Euskal Herriko mugimendu feministak. Nazioarteko greba bat izango da eta Debagoienean ere izango du jarraipena. "Helburua da mendean hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista arrazista eta heteropatriarkala salatzea" eta emakumeak ez badaude mundua gelditu egiten dela irudikatzea.

Lau esparrutan banatu du greba Euskal Herriko mugimendu feministak: lan, ikasketa, zaintza eta kontsumo esparruetan, hain zuzen. Hala, emakumeei, lanuzteak egiteko eta mobilizazio nagusietan parte hartzeko dei egin diete. Ez kontsumitzeko ere egin dute dei, batik bat, saltoki handietan, "horiek dira-eta esplotazioaren ikur nagusi".

### Mugak gaindituz

"Muga guztiak gaindituko dituen greba feminista" proposatu du mugimendu feministak; hortik dator lanaren kontzeptua birplanteatuz zaintza betebeharrei eta kontsumoari lotutako lanuztearen aldeko apustua egin izana. "Ez da defentsarako greba hutsa: eredu guztia aldatuko duten proposamen politikoekin aterako gara kalera", diote.

### Deialdi ez bateratua

Greba deialdia ez da bateratua izan, eta, hala, askotariko lanuzteak izango dira: EAEn eta Nafarroan, Euskal Herriko mugimendu feministak eta ELA, LAB, Steilas, ESK, Hiru eta EHNE sindikatuek lau orduko lanuzteak deitu dituzte, txandako. Hain zuzen ere, 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 22:00etara.

### Nola egin bat deialdiarekin

Mugimendu feministatik hainbat jarraibide partekatu dituzte deialdiarekin bat egiteko: lantoki eta ikasgeletan lanuzteetara batzea; herri eta hirietako mobilizazioetara joatea; amantala balkoitik eskegiz zaintza lanak azaleratzea; merkatuan kontsumitzeari uztea; zaintzeari uztea, lan hori beste emakume baten esku utzi gabe eta, edonon egonik ere, besoko morea janztea.

Mugimendu feministak lanuzteekin bat ez egiteko eskatu die gizonei: "Helburua da sektore feminizatuenak azaltzea eta emakumeek ekonomian duten pisua erakustea". Gainera, gizonek emakumeek egin ohi dituzten lanak egitea da beste helburu bat, emakumeen desberdintasunak eta prekarietatea ezagutu ditzaten.

**MUGIMENDU FEMINISTAK LANUZTEEKIN BAT EZ EGITEKO ESKATU DIE GIZONEI**

## Arazo handienak errepideetan sortu ditu eguazteneko elurteak

Lan askoko goiza izan zen Debagoieneko herrietako udal langileentzat, elurrak arazo ugari eragin baitzituen

**M.A** ARRASATE

Iragarpenek bete-betean asmatu zuten. Goizeko lauretan ekin zion elurra egiteari eta goizean goizeko auto eta ibilgailuen joanetorria hasi zenerako zuri zeuden herriak, eta horrek, eta, batez ere, izotzak arazo ugari sortu zituen errepideetan. Bergaran, adibidez, hainbat istripu txiki gertatu ziren eta udal langileentzat lan askoko goiza izan zen eguaztenekoa. Erorikoak ere eragin zituen izotzak; Bergaran, esaterako, gizonezko bat anbulatoriora eraman behar izan zuten. Errepideetan eta, bereziki, portuetan kontu handiz ibili beharra ekarri zuen elurrak, eta bai Udanan, eta bai Elgetatik Bergararako errepidean zenbait auto ez atzera ez aurrera gelditu ziren. Gainera, Leintz Gatzagako 627 errepidean, Arabako muga baino lehen, su hartu zuen goizaldean elurra kentzeko makina batek. Auto ilarak sortu zituen horrek, baina, zorionez, ez zen zauriturik izan.



Elurra kentzeko makina lanean, Elgetan. LARRAITZ ZEBERIO

# Bihar omenduko dute Isaias Carrasco Arrasaten

Hamar urte pasatu dira ETAk Isaias Carrasco PSE-EEko zinegotzi ohi eta militantea Arrasateko Navas de Tolosa kalean hil zuenetik. Ordutik urtero egin duten legez, tiroz hil zuten tokian bertan egingo diote alderdikideek lore-eskaintza, bihar, 12:00etan

**Miren Arregi** ARRASATE

2008ko martxoaren 7an, San Andres auzoko Navas de Tolosa kaleko bizilekutik atera eta autoan sartu berri zela, tiroz hil zuten Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzi ohi eta militante sozialista. Urtero legez, bihar egingo diote haren alderdikideek eta senitartekoek eta lagunek lore-eskaintza, ETAk hil zuen tokian bertan, 12:00etan. Besteak beste, han izango da Eneko Andueza, PSE-EEko Gipuzkoako idazkari nagusia.



Iazko omenaldian, Patxi Lopez eta Sandra Carrasco. GOIENA

**Duela hamar urte**

Egubakoitza zen, eguerdia iristear. Isaias Carrascok, 42 urteko Arrasateko zinegotzi sozialista ohiak, egunero bezala, lanerako bidea hartu zuen. Bergarako bidesarian lan egiten zuen hark, eta, etxetik irten eta autoan sartu zen unean, bost tiro eman zizkioten gorputzean, larriena, lepoan, eta hori guztia, senitartekoen aurrean. Eguerdiko ordu bietarako minutu gutxi batzuen faltan ingresatu zuten Arrasateko Ospitalean, baina ezin izan zuten ezer egin; berehala hil zen, zauri larrien ondorioz.

Espainiako Gorteetarako hauteskunde kanpainako azken eguna zen 2008ko martxoaren 7ko hura. Handik bi egunera, domekan, izan ziren hauteskundeak eta Alderdi Sozialistak eskuratu zituen boto gehien: %43,87. Arrasaten ere garaile izan ziren. Jose Luis Rodriguez Zapaterok beste lau urtez gobernatu zuen.

**32 urteko kartzela-zigorra**

2015eko ekainean, 32 urteko kartzela-zigorra ezarri zion Auzitegi Nazionalak Beñat Aginagalde etakideari, Isaias Carrasco sozialista arrasatearra hiltzeaz akusatuta.

## "Inoiz ez bezalako erakusleihoa" izango da aurtengo biurtekoa

Maiatzaren 28tik ekainaren 1era bitartean egingo dute Makina-erremintaren Nazioarteko Biurtekoa, Barakaldoko BECen. 21 herrialdetako enpresak izaten dira azokan. Eta, aurten, berrikuntzaren, ekoizpen adimentsuaren, sistema integralaren eta nazioartekotzearen alorretan egindakoak ikusarazi guran izango dira bertan.

Nazioarteko azokaren antolatzaileek azaldu dutenez, "inoiz ez bezalako erakusleihoa" izango da aurtengoa. Eta diote produkzio-prozesuak goitik behera aldatuko dituzten makinak aurkeztuko direla. Hain zuzen ere, aurrera begira jarriak dira makina-erreminten sektoreko enpresak.

Astelehenean aurkeztu dute egitasmoa, Barakaldon. Horretan geratu barik, hainbat enpresa ezagutu dituzte horren ostean. Adibidez, Bergarako Soraluce kooperatiba izan dute ikusgai; Osintxuko egoitzan izan dira parte hartzaileak.






Prentsaurrekoa bukatuta, protesta egin zuten langileek, Mondragon Taldearen egoitzaren aurrean. TXOMIN MADINA

# Epailearen esku dago langileen etorkizuna

Prentsaurrekoa eskaini dute Edesa Industrialeko eta Geyser Gastecheko langileek. Hain zuzen, kontsulta epea bukatuta, asteon, konkurtsoko epailearen esku geratu da kaleratzeen auzia. Protesta ekimenekin dihardute langileek

**Iker Oñate** ARRASATE

Asteon, agerraldia egin dute Fagor Industrialeko eta Geyser Gastecheko langileek, euren egoeraren berri eman guran. Eta enpresako zuzendaritzaren jarrera salatu dute, besteak beste. Euren esanetan, proiektu industriala alboratua du Jorge Parladek, CNA Cata enpresako jabeak –gaur-gaurkoz, horren esku dago Edesa Industrialen kudeaketa–. "Badirudi balizko proiektuak garatzea ekiditeko ahaleginean dihardula", azaldu du Rikardo Perezek, Enpresa Batzordeko bozeramaileak. Hain zuzen, eguaztenean bukatu zen kontsulta epea; langileen eta enpresako zuzendaritzaren elkarrizketarako tartea izan da azken hilabeteetan. Eta, orain, konkurtsoko epailearen esku dago euren etorkizuna. Adibidez, hari dagokio exekuzio epea zehaztea.

"Kontsulta epea hasita, isilik egotea erabaki genuen, jarduerarekin jarraitzea ahalbidetuko luketen inbertsoreen sarrera erraztuko zuela esan baitzigun zuzendaritzak. Dena den, uko egina dio horri. Gezurretan jardun du, beste behin", salatu du Perezek. Haren esanetan, Fagorren aktiboak bereganatzea da CNA Cata enpresaren asmoa: "Enplegurik sortuko ez duen plan komertzial batean dihardute tematuta, bestelako irtenbiderik ez balego bezala. Aitzakia horren pean, balizko inbertsoreak uxatu dituzte. Hori ez da onargarria".

Hori horrela, "desindustrializazioaren" konplize ez izateko eskatu diote konkurtso-administratzaileari. Eta azaldu dute balegokeela konfortaren alorra, linea zuria eta eltzeen gunea bere gain hartzeko interesa lukeen enpresarik. "Jarduera industrialarekin jarraitzea ahalbidetuko lukete inbertitzaile horiek", gaineratu du. Gaur-gaurkoz, 160 langile ditu enpresak; eta horietako 138ren kaleratzea aurreikusten du espedienteak. "Finean, hainbat komertzial besterik ez litzateke geratuko", argitu du.

### Zuzendaritzari egindako eskaria

Gauzak horrela, Edesa Industrial likidaziora eraman dezala eskatu diote zuzendaritzari. "Proiektu industrial berri bat martxan jartzeko borondate faltan, hori da har dezakeen erabaki onena", dio Enpresa Batzordeko bozeramaileak. Gaineratu duenez, horrek bide emango luke "proiektuan sinesten duen enpresa inbertitzaileak" ekoizpen unitatea bere gain hartzeko. Hori bai, onartu du likidazioa ez litzatekeela helburua, "bidea baizik".

Bestetik, Fagor Kooperatiba Elkarteari eta Mondragon Taldeari ere egin diote aipamen enpresako langileek. "Jakin badakigu bailara mailako proiektu industrialik barik, CNAk ez lukeela Fagor marka erabiltzen segitzeko eskubiderik izan beharko. Baina uste dugu bestelako kasuetan, marka utzi behar lukeela, zonan enplegua sortuko duen proiektu industrialari bide emanez", diote.

Bestetik, horri lotuta, berean segituko duela iragarri du Fagor Kooperatiba Elkarteak: "Ez dugu jarrera aldatu. Negoziatzeko prest izango gara, betiere, bideragarri diren egitasmoak aurkezten badizkigute. Oraindik ez dugu halakorik esku artean; ez dugu proposamenik jaso".

Eta, esan moduan, Mondragon Taldeari ere egin diote eskaerarik langileek: "Bere kolaborazioa eskatzen dugu, proiektu berriak gauzatu edo lan barik gelditzen garenon birkokapena bultzatu dezan". Modu berean, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren "inplikazioa eta babesa" eskatu dute, "aktibitate industriala mantentzen eta enplegua sortzen duten proiektuei laguntza zein erraztasunak emateko".

### Protesta ekimenak

Astean zehar hainbat elkarretaratze egin dituzte Fagor Industrialeko eta Geyser Gastecheko langileek; azkena, eguaztenean –kontsulta epearen bukaera egunean–, Garagartzako egoitzaren aurrean. "Bukaeraraino jarraituko dugu kaleratzeen bidegabekeria salatzen. Eta jada kalean geratu diren horien alde ere badihardugu borrokan", diote.

**EGUAZTENEAN BUKATU ZEN KONTSULTA EPEA; ORAIN, EPAILEAREN ESKU DAGO AUZIA**

## Lanuzteak egin dituzte "enplegu eta zerbitzu publikoen alde"

ELA eta LAB sindikatuek lanuzte deialdia zuten eginda eguaztenerako. Ibarrean ere izan zuen eraginik

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Protesta egin dute asteon EAEko erakundeetako zenbait langilek; udaletako, mankomunitateetako eta foru aldundietako langileak zeuden deituta lanuztera. Ibarrean ere izan zuen eraginik deialdiak: Arrasateko, Bergarako, Oñatiko, Antzuolako, Elgetako, Leintz Gatzagako, Aretxabaletako eta Aramaioko zenbait udal langilek egin zuten bat lau orduko lanuztearekin. Eskoriatzan, bestetik, hamar minutukoa izan zen langileen lanuztea.

Zehatz esanda, elur eguna izan zen eguaztenekoa; eta horrek izan zuen eraginik zenbait udaletako langileen protesta aurreikuspenetan. "Gutxieneko zerbitzu horiek bermatzeko, aurreikusia zegoena baino lan gehiago egin behar izan zuten herrietako brigadako kideek. Hor, agerian gelditu zen horien garrantzia", azaldu du ELA sindikatuak. Beraz, protesta ekimenak ez zuen aparteko arazorik sortu errepideetan. Eta, oro har, protesta deialdiak izandako harrerarekin "gustura" azaldu da sindikatua, "gura besteko zabala izan ez zen arren".

### Udal langileen aldarrikapenak

Besteak beste, Udalhitzen bidez hitzartutakoa bete dezala eskatzen dote udal langileek Eudeli, EAEko Udalen Elkarteari; erakundeetako langileen lan baldintzen ingurukoak adostu zituzten bertan. "Azken urteotan lanpostu ugari galdu dira erakundeetan, eta, oro har, behinbehineko langileek dihardute betetzen diren horietan", azaldu dute udal langileen ordezkariek.

### Eudelen erantzuna

Eudelek, berriz, azaldu du negoziazioekin segitzeko "konpromisoaz" dihardula. Eta zehaztu du hurrengo egunetan bi aldeko bilerak izango dituela sindikatuekin. Hori bai, era berean, eskatu du ez daitezela banakako negoziazio mahaiak zabaldu.

# Objektu txikiak ere, edukiontzi zurian

Aurrerantzean, berriro erabil litezkeen tamaina txikiko objektuak ere sartu ahal izango dira edukiontzi zurian. Eta zerbitzuan izango da bestelako aldaketarik ere; hain zuzen, Emaus-en esku geratu da horren kudeaketa, lehiaketa publikoa bere egin ostean

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Zenbait aldaketa izango ditu edukiontzi zuriko bilketa zerbitzuak. Hala, hondatutako arropez zein oinetakoez aparte, berriro erabil litezkeen objektu txikiak ere jasoko dira aurrerantzean. Eta, gainera, gizarte izaera duen Emaus Gipuzkoa enpresaren esku geratu da zerbitzuaren kudeaketa, lehiaketa publikoa bere egin ostean. Lau urteko iraupena du hitzarmenak.

"Gizarte integrazioaren bueltan diharduten enpresen esku utzi gura genuen zerbitzuaren kudeaketa. Finean, lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten sektoreei laguntzea dugu xede", argitu du Unai Elkorok, Mankomunitateko presidenteak. Zehatz esanda, Emaus enpresan lanean dihardutenen %55 daude integrazio egoeran. Eta lantaldea sendotzea espero dute edukiontzi zuriko zerbitzuaren kudeaketarekin.

Hain zuzen ere, bere ardurapean izango da ibarreko edukiontzi zurietakoa biltzea, sailkatzea, garbitzea eta saltzea –berriz erabiliak izan daitezen–. Gaur-gaurkoz, 65 edukiontzi daude Debagoienean. "Bildu ostean, sailkatzeari ekingo diogu, trataera berezirik gabe erabil daitezkeenak alde batean jarriz eta trataera beharrean daudenak beste aldera eramanez. Ahal den guztia aprobetxatuko dugu", azaldu du Javier Pradinik, Emauseko zuzendariak. Gaineratu du "errefus" hartzen diren objektu horiek "errekurtso" bilaka daitezkeela.

**Kostua, behera**

Bestalde, zerbitzuaren kostua murriztea eragingo du kontratu berriak. Zehatz esanda, 128.000 eurotik 33.000 eurora murriztu da zerbitzuaren kudeaketa kostua. Besteak beste, fase ezberdinak enpresa baten esku uzteak eragin du hori.

**Erabilera datuak**

Goraka doa edukiontzi zuriaren erabilera. Zehatz esanda, 436.336 kilo arropa eta oinetako jaso dituzte azken urtean; 2016an, berriz, 398.824 jaso ziren –urtebetean %9,5 egin zuen gora kilo kopuruak–. Hala, herritarrak zoriondu gura izan ditu Lander Arregik, Mankomunitateko Hondakinen Kudeaketa Batzordeko presidenteak.



Ordezkariek prentsaurrekoa eskaini zuten astelehenean. AMAIA TXINTXURRETA

## Gomiztegi Artzain Eskolak bukaera eman dio ikasturteari

Gomiztegi Artzain Eskolakoek astelehenean egin zuten ikasturte bukaerako ekitaldia. Hain zuzen, diplomak eta makilak jaso zituzten hamaika ikaslek. Hiru debagoiendar ziren horien artean: Julen Ibabe oñatiarra, Aitor Kortabarria bergararra eta Txomin Alberdi antzuolarra. Ekitaldia bukatuta, ikasleak "pozik" azaldu ziren ikasitakoarekin. "Ezer gutxi nekien hona iritsi aurretik. Orain, ezagutzen dut artzain mundua. Oso emankorra izan da sei hilabeteko formakuntza. Eta jada hasia naiz jardunean", aitortu du Kortabarria bergararrak.

Gainera, XXI. ikasturteak ez zuen edonolako amaiera izan: Legazpiko Makatza baserrikoak –Ines Argarate eta Pedro Gabiria– eta Eskoriatzako Udala omendu zituzten Gomiztegiko Artzain Eskolakoek, "artzaintzaren alde egindako lanagatik".






**KANTARI**
OÑATIKO NESKA-MUTIKOAK KANTUAN ETA DANTZAN, 09:30/16:30.
**ZAPATU ETA DOMEKA**




**HEMEN DEBAGOIENA**
DEBAGOIENEKO GERTAERAK ETA PERTSONAK PROTAGONISTA DITUEN SAIOA ERREPORTAJEEKIN ETA ELKARRIZKETEKIN, 18:00/20:00/22:00.
**EGUNERO**




**ALBISTEAK**
EGUNEKO ALBISTEAK 14:30/16:15/17:00/17:45
**EGUNERO**



**HARMAILATIK**
DEBAGOIENEKO KIROLA ETA KIROLARIAK PROTAGONISTA, 21:30/23:30.
**ASTELEHENA**



**HARIRA**
ARRASATEKO UDALEKO ORDEZKARIEKIN EZTABAIDA SAIOA, 21:00/23:30.
**MARTITZENA**



**GALDEGAZTE**
JUANTXO ARAKAMA GLAUKOMA TALDEKO KIDEARI ELKARRIZKETA ARANZADI IKASTOLAKO IKASLEEK.
**EGUAZTENA 21:30**
**EGUBAKOITZA 23:00**



**HURRETIK**
KEPA ERRASTI AKTOREAREKIN ETA SORTZAILEAREKIN SOLASEAN, 21:00.
**EGUAZTENA**




**ERREPORTAJE BEREZIAK**
"BIKI BIZI" ERREPORTAJEA. BIKIAK, GENETIKOKI BERDIN-BERDINAK, ETA IZAERAZ?, 21:30/23:30.
**EGUENA**




**KULTURRIZKETAK**
ZURIÑE HIDALGO ETA AMANCAY GAZTAÑAGA AURREZ-AURRE, 21:00/23:00.
**EGUENA**



**AMAIA DJ**
IKUS-ENTZULE GAZTEENEKIN KOMUNITATEA OSATUZ, GAZTEEK HAIEK ESKATUTAKO BIDEOKLIPEZ OSATUTAKO SAIOA, 21:30/23:30.
**EGUBAKOITZA**

**UDABERRIKO PROGRAMAZIO BERRIA**

goiena
Zu hemen zaude.

GUTUNAK

## 'Mozkorra parregarri', agur!

MARIJE UGALDE

BERGARA

Ikerketa historiko sakona, Miguel Angel Elkoroberezibarrek eta Valen Moñuxek elkarlanean buru-belarri egina.

Musika moldatu, Txemi Etxeberriak; Bergaran, Bilbon eta Herbehereetan hezitako musikariak.

Gidoiaren moldaketa, Miguel Angel Elkoroberezibarrena.

Dekoratuen arduradunak, hainbestetan elkarrekin lanean ibilitakoak, Alex Odriozola eta Valen Moñux. Egileak, gure super-talde teknikoa! Arantza, Amaia, Lierni, Blanca, Rosa, Alex eta Valen.

Abeslariak eta aktoreak ez dira falta Bergaran, 25 urte espektakulu eszeniko musikalak egiten. Atzean, Musika Eskola formakuntza eskaintzen. Kantua, antzerkia, musika heziketa... Gorka, Argiñe, Karlos, Nere, Marije, Idoia, Julen, Fran, Aitzol, Tomas, Izaro, Amaia, Lierni, Arantza, Blanca, Rosa, betiko taldea, esperientzia eta kalitatea ziurtatzen duena. Gaur egun gazteak direnak baina ume hasi zirenak ere ez dira falta, Jon eta Aitor, txikitatik formakuntza musikala jaso dutenak. Zuzendaritza eszenikoan, langile kantsa ezina, beti ikasten eta erakusten dagoena, 25 urtean, gure proiektu guztien bultzatzailea, Valen Moñux.

Orkestra, berriz, oraingo honetan txikia behar zen, harien kuartetoa eta klabezina. Bergaran musikariak aurkitzeko inongo arazorik ez. Orkestraren ardura eta klabezina, Iñigo Alberdik; biolinak, Josune Ena eta Andoni Moñux; biolan, Jhon Prieto; eta txeloan, Ane Zangitu. Hau izan zen hasierako formakuntza. Oraingo honetan, Leo Juaristik, Miriam Moñuxek eta Jokin Garmendiak joko dute baita.

Xabier Maria de Munibek Bergaran 1764an estreinatutako opera komikoa Euskal Herri osoan antzezteko eta erakusteko aukera izan du bergararrek osatutako ekipoak. Baita Madrilera eraman! Eta Espainian euskaraz antzeztu, gaztelaniazko azpitituluekin.

Martxoaren 3an, hainbeste poz eta une dibertigarri eman dizkigun *Mozkorra parregarri*-ri agur esango diogu. Baina berezia izango da. Xabier Maria de Munibek sortutako Seminarixoan izango baita. Aproposagorik? Mila esker partaide guztiei, herritarrei, Euskal Herrian eta Madrilen ikusi gaituztenei, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteari, Udalari eta, noski, Xabier Maria de Muniberi, Peñafloridako kondeari.

## Martxoaren 8a, zertarako?

ANE ILLARDUIA ARGANDONA

ARRASATE

Datorren ostegunean, Martxoaren 8an, beste urte batez, Emakumeen Nazioarteko Eguna borrokatuko dugu.

Ez da beste M8 bat izango. Urteetan zehar, emakumeon eskubideen aldeko borroka ezberdinak gogoratzeko erabili izan dugu.

Gaur egun, inoiz baino arrazoi gehiago ditugu emakumeok kalera atera eta gure egoerak salatzeko. Emakume guztiak kalera ateratzen bagara, eredu heteropatriarkala jarraitzen duen sistema kolokan jarriko dugu.

Gure bizkarren gainean sustengatzen den sistema da gaur egungo kapitalismoa. Esplotatu egiten gaituzte, miseriara bultzatu, mespretxuz tratatu, mehatxatu, iraindu, bortxatu, erail… Eta, oraindik, egun horretarako deituta dauden protesta eta greba deialdiak zergatik eta zertarako egingo ditugun galdetzen dute batzuek.

Adierazgarria oso EAJ-PNVko instituzioetako kargudun emakumeek –PPkoak bezala– greban parte hartuko ez duten erabakia plazaratzea. Nork edo nortzuk hartu dute erabaki hori? EBBko emakumeak izango ote ziren? Ez dago arrazoi nahikorik plantorako? Ez al da nahikoa arrazoi gizonekiko daukagun soldata arrakala? Ez dago gutxieneko terrorismorik erailketa matxista guztietan?

Izaskun Landaidak, Emakundeko arduradun nagusiak, esan omen du ez dela grebara aterako goi karguduna delako. 15 minutuko lanuzteak egingo omen dituzte –kafe orduan?–. Ez diete hauei eguneko soldata penalizatuko, beraz. Berari, agian, ez dio horrenbeste eragingo soldata arrakalak, edo? Guri bai. Eta egun horren penalizazio ekonomikoa jasango dugu, gutxienez. Berak, agian, ez du pairatuko zaharren egoitzetako langile emakumeek jasaten duten prekarietatea, adibidez.

Goi kargudun hauek ez badute eredu ematen, goi kargudun hauek aldatzea dagokigu herritarroi. Maria, gure herriko alkate eta ordezkari nagusi zaren heinean, zure alderdiaren posizioa berresten duzun jakitea dagokigu. Edo, agian, oraindik ez duzu nahikoa arrazoi ikusiko greba deialdiarekin bat egiteko. Zure soldata arrakala ez da nahikoa oraindik, ezta? Zenbat zen, 65.000 euro urteko?

## Herri unibertsitatea

MIKEL ARREGI ALTUBE

ANTZUOLA

Nahiz eta ikastetxe ezberdinetako egoera antzekoa izango den, Gasteizko Gizarte Langintzako Fakultateko egoeraz jardungo naiz, bertako ikaslea naizelako.

Ikastetxe berri batera heltzean dena da berria eta ederra, eta unibertsitatean gehiago, etxetik kanpo, jende berria… baina egunerokoari erreparatuta dena ez da horren ederra. Aurreko urtean fakultatera heldu eta horren izen potoloa duen karrerako ikasgaietan murgilduta, irakasleak esandako dena iruditzen zitzaidan zentzuduna. Hala ere, denborarekin, bertako edukiei buelta bat ematen hasita eta Gasteizko errealitate anitzarekin alderatuta, kontraesanak bata bestearen atzetik azaleratzen hasi zitzaizkidan.

Denon ongizatearen apologia egiten dute, baina fakultatetik ehun metrora jendea etxe gabe uzten dute, fakultatean bertan garbitzaileak esplotatzen dituzte kontratu eta soldata barregarriekin, kredituak euskaraz ordaindu eta materiala espainolez ematen digute edo euskaraz bi hitz egiten dituzten irakasleak jartzen dizkigute, EHUk Bilboko portutik irteten diren armen sorkuntzan laguntzen du ikerketen bidez, ematen diren edukiek historiaren zati bat bakarrik kontatzen dute… Mila dira horrelako prestigioa duen "gure herriko" unibertsitatearen kontraesanak, eta hauek ni, behintzat, mindu egiten naute.

Ikasle ugari, ordea, min hau sorkuntzara bideratzen ari dira, benetan herriarentzako hezkuntza izango dena irudikatu nahian. Nahiz eta orokorrean gaur egungo hezkuntzarekiko kontrakotasuna adierazi, ez dut uste bertako partaide direnak etsaiak direnik; are gehiago, zirrikituetatik aliantzak sortu ahal direla esango nuke, herritar oro herriarena izango den hezkuntzaren subjektu bihurtuz. Bestalde, etorkizuneko hezkuntza horrekiko eztabaida eta kontzientzia sortzeko tresna gisa irudikatzen ditut horrelako ekimenak, egungoarekiko kontrakotasuna etorkizunerako hazi izateko.

Amaitzeko, unibertsitate ezberdinetan egingo diren herri unibertsitateetan parte hartzeko dei egin nahiko nuke.

Hezkuntza, herritik eta herriarentzat!

HANDIK ETA HEMENDIK

## Hitzaren bila (II)

MIKELE LANDA

HTTPS://LABUR.EUS/GLUGL

'BERRIA'-N ARGITARATUA

"E*book*-ak? Bai, bueno, ondo, baina nik neuk nahiago ditut liburuak paperean irakurri. Usaindu ahal izateko, bukatzeko zenbat falta zaidan eskuarekin neurtu ahal izateko, horri puntak tolestu ahal izateko eta ertzak iruzkinez betetzeko".

"Bada, ni gutun trukean aritzen naiz Italiako lagun batekin. Noizbehinka, hitz egin ohi dugu Whatsappez, telefonoz eta Skypez ere, baina beti gordetzen dizkiogu elkarri kontatu beharreko zenbait kontu eskuz idatzita partekatzeko. Badakizu, esperientzia zirraragarria da buzoia zabaldu eta faktura ez den gutun azal bat aurkitzea, ostean atzamarrekin apurtzea, mezua esku artean hartu ahal izatea, tolesdurak zanpatzea...". [...]

"Bua, ikusi duzue aurtengo Bartzelonako azokan Nokiak aurkeztu duen mugikor berria? Matrix-ekoa da! Tapa irristagarria du eta garrantzitsuena, sakatzeko botoiak! Argi daukat zein izango den nire punta-puntako hurrengo telefonoa".

Hipster batek esango lituzkeenen zerrenda osatzen nabilela dirudien arren, jantzkera estiloetan erreparatzen ez duen pandemia batez mintzo naiz. Oraindik izendapen ofizial edo zientifikorik aurkitu ez diodan gaixotasun kutsakor bati buruz *(Materialitis?, objektufilia?)*. [...]

Aipatu ditudanak sintoma dira, eta nik ere pairatu ditut zenbait.

Nostalgiaz oroitu dut ume nintzeneko joko bat. Begiak itxi, eta, ukimenaren bitartez soilik, esku bakoitza lagunetariko zeinena zen igartzean zetzan olgetak. Oro taktila bilakatu den mundu honetan, kristal testura du denak, eta ez dakit jada ezagutuko nituzkeen lagun minen esku ahurrak.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus



ZABALIK

GARIKOITZ ITURBE

# Martxoaren 8a: badut zer egina

Martxoaren 8a gerturatzen ari da. Urtero legez, egutegian puntu morea ikusi eta kolore horretako betaurrekoak hartuz egungo jendartearen irakurketa egiteko unea. Baina zertan laguntzen du egun bateko ikuspuntuak?

Nire talde gogoko baten abestiak dioen bezala, gizonak, botilak bezala, barrutik biluztu behar dira. Tira, ba.

38 urteko gizonezkoa naiz. Seme bakarra eta futbolari ohia. Parrandetan tabernetako errege sentitu izan naizen horietakoa naiz. Amaren janari goxoak jan eta muturrak garbitu ostean mahaitik altxatu izan naiz behin eta berriz. Mutila izanik jarrera batzuk onetsiak izan zaizkit. Ez dut ez depilatu ezta ximurrak disimulatzeko beharrik izan. Etxeko lanetan ezer gutxi egin dut. Gizonezko askok bezala, arlo teknologikoko ikasketak egin ditut. Nire ingurukoen zaintza lanagatik ez dut arduratu behar izan. Komentario sexistak egin izan ditut. Orain, aita bezala, ingurukoek ez dizkidate exijitu nire bikotekideari exijitu dizkioten hainbat kontu. Nire semeen hazkuntzari dagokionez, ardurak banatu arren, ardura batzuen pisua inkontzienteki bikotekidearen gain kargatu dudala uste dut.

**AMAREN JANARI GOXOAK JAN ETA MUTURRAK GARBITU OSTEAN MAHAITIK ALTXATU IZAN NAIZ**

Zerrenda luzea izan liteke, baina hemen utziko dut, idaztea ez zait-eta erraza egiten. Baina, aldi berean, ariketa polita eta zintzoa egitea eskaini digu mugimendu feministak. Emakumeek planto egingo dute. Bizitzan zehar ikusi nahi izan ez ditudanak agerian utzi nahi dituzte.

Beraz, Martxoaren 8an planto eguna nire inguruan arrakastatsua izan dadin, badut zer egina. Ardura ezberdinak nire gain hartuko ditut. Baina hurrengo egunera begira ere jarri nahiko nuke, mundu parekide eta justuago baten bidean urratsak egiten jarraitu nahi baitut.

Bitartean, nire errekonozimendu eta mirespen guztia azken urte hauetan norabide horretan borrokan ari zareten emakume guztiei.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE




HANDIK ETA HEMENDIK

## Animaliak

MIREN AMURIZA
HTTPS://LABUR.EUS/RN4XD
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Gure auzoan ume-umetatik ikusi izan ditugu bildots larrutuak kakoetatik eskegita eta katakumeak jaio ahala, akabatzeko, zakuetan sartuta.

Nik neuk inoiz ez dut animaliekiko aparteko sentsibilitaterik eduki eta nekez enpatizatu izan dut besteenarekin ere; hantxe egon nintzen, nora begiratu ere ez nekiela, lagun batek bere txakurraren erradioterapiarena kontatzen zidan artean...

Ehiza denboraldia hasten denean osabarekin eztabaidatzera eta armiarmak indultatzera (zanpatu beharrean bentanatik behera botatzera) besterik ez naiz iritsi orain arte.

Zer pentsa utzi nau, halere, ikusi berri dudan bideo batek: Euskal Herriko hainbat lekutako jaietan animaliei ematen zaien tratua salatzeko dokumental bat estreinatzekotan da Askekintza eta trailerra zabaldu dute asteon (idi-proba, soka-mutur, entzierro, zezenketa, txerri-harrapatze edo umeentzako erakustaldietako irudiak).

Niri, egia esan, urrun samar geratzen zaizkit antiespezismoaren eta animalien askapen borrokaren aldarriak eta, nago, halatsu gertatzen zaiola inguruko askori ere; zapalduaren lekuan erraz bezain nekez jartzen garelako zapaltzailearenean, geure animaliatasunaren kontzientziarik ez dugulako... Auskalo zergatik.

Denbora kontua izango da agian, nork bere burua ispilu aurrean sakonago aztertu beharra.

Denbora kontua... Oraindik, zuriak garela ere deskubritzen ari gara eta.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria** Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea** Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.
**Zuzendari komertziala** Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria** Agurtzane Gaintzarain.
**Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia.

**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa** Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea** Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Administrazioa** Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.
**HARPIDETZA** Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA** Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 Faxa: 943 25 05 00 publi@goiena.eus
**EGOITZA NAGUSIA** Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 132 posta-kutxa Tel.: 943 25 05 05 Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07 berriak@goiena.eus
**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Orain, boto eskubidea daukat Euskaltzaindian"

**MIRIAM URKIA** EUSKALTZAIN OSOA

**Eneko Azkarate** ARETXABALETA
Hizkuntzalari aretxabaletarra euskaltzain oso izendatu zuten joan zen egubakoitzean Iruñean. Juan Mari Torrealdai emeritu izatearen ondorioz. Euskaltzaindiak nabarmendu duenez, lehen aldiz ez da elizgizonik izango euskaltzain osoen artean.



Miriam Urkia, joan zen asteburuan Aretxabaletan. MIRARI ALTUBE

**Euskaltzain urgazle izan zara orain arte; aurrerantzean, euskaltzain oso.**
Izenburua da aldatzen dena. Urgazleak laguntzaileak dira. Orain, izendapen honekin, lanean berdin jarraituko dugu. Hori bai, lehen ez bezala, orain, boto eskubidea dugu Euskaltzaindiaren batzarretan.
**Ze lan zehatzetan diharduzu une honetan Euskaltzaindian?**
Urteak daroatzat hiztegi kontuetan. Hasieran, Hiztegi Batua, XX. mendeko korpusa eta halakoak egiten, eta orain, hiztegien arduradun, bai lantaldearen prestaketa lanetan eta baita egitasmoko arduradun. IKT batzordean ere banago eta iaztik hona Gipuzkoako Euskaltzaindiaren arduradun naiz.
**UZEIn diharduzu hiztegigintzan. Lan aspergarria dela esango duenik izango da.**
Nik esango nuke oso lan polita dela. Hitzen artean gabiltzanean, eztabaida prozesuan ibili garen uneaz akordatzen gara eta ahaztu egiten dugu azken erabakia zein izan den. Esan nahi dut prozesu polita izaten dela. UZEIn teknologia hizkuntzen gainean aritzen gara, batik bat; baita sinonimoen hiztegia eguneratzen ere…
**Kazetariok-eta, hizkuntzarekin lanean dihardugunok, batzuetan, zoratu egiten gara arauak sarri aldatzen direlako.**
Ez dira horrenbeste aldatzen. Garai baten, hiztegi jakin batzuek indarra hartu zutelako, haiek hartzen ziren aintzat. Araua haiek ematen zuten. Baina hiztegi haietan jasotako hainbat hitzen gainean Euskaltzaindiak ez zeukan inoiz ezer esanda. Eta Euskaltzaindiak arautu duenean, datuak, tradizioa, eta abar aztertuta arautu du, ez moda batzuei kasu eginez. Akaso, horregatik dago arauak asko aldatzen diren ustea.
**Donostian bizi zara, baina aretxabaletarra zara. Zelan egiten duzu berba, batuan, euskalkian…?**
Jakingo banu! Lanean, gipuzkera batu moduko bat darabilt. Dena den, lankide batzuk baditut Debagoienekoak, eta horiekin etxekoa egiten dut.
**Emakume bat Euskaltzain. Zenbatgarrena?**
Oker ez banago, 24 dira eta horietatik seigarren emakumea naiz. Gazteena, bestalde, neu naiz.

HAU BE BADOGU!

### Elurtea 'trending topic' izan da asteon



Eguazteneko elurtearen ondoren, *#elurra* traola erabiliena izan da asteon. Estatu mailan ere, euskarazko hitza erabilienetakoa izan da Twitterren. Argazkian, Arrasateko Mondragon Unibertsitateko campuseko irudia:
*@MUnibertsitatea*: "Arrasateko campusa honela esnatu da gaur goizean. Ederra benetan!".

### Osasuna euskaraz ere jarraitzeko aukera




Iruñeko futbol taldeak euskarazko kontuak ireki ditu sare sozialetan:
*@caosasuna_eus*: "Hemendik aurrera, *#Osasuna*-ren jarduera euskaraz jarrai dezakezu gure Twitter kontu berrian. Ongi etorri!".
*@urantzia*: "Oso berri ona. *#Osasuna*-k Twitter eta Facebook-en euskarazko kontuak kaleratu ditu, *#euskaraz*-ko web-orriaz gain".

### AHTaren aurkako mezu ugari sarean

*@UnaiFDB*: "Jende mordoa bildu da Espainiako Gobernuaren ordezkaritzaren aurrean. 7.000 biztanleren alegazioak bildu dira".
*@IeltxuO*: "*#AHTrikEZ* Lautadan! Nekazariak, ekologistak, helduak... Herriak argi dauka".
*@maiderotamendi*: "Gasteizen gaude, Jaurlaritzari eta Aldundiari herritarren interesak ere defendatu ditzala eskatzeko!".

ITURRI ONETIK

## Intxortako lehoiek 10 urte

Elgetako Athleticeko zaleak Intxortako Lehoiak lagunartean batzen dira. Aurten 10 urte beteko ditu taldeak eta dagoeneko hasiak dira ospakizunekin. Urte osoan barrena antolatuko dituzte era askotako jarduerak. Horietako aipagarriena, dena den, Elgetan egingo duten topaketa bat izango da. Hain justu ere, Gipuzkoako Athleticeko zaleak urtero lurraldeko herri baten batzen dituen eguna Elgetan antolatu nahi dute aurten, ekainaren 16an. Horretarako, hartu-emanetan dabiltza.

ALBISTE IZAN ZEN

2010-03-01

## Copreciko fabrikak su hartu zuen

Aretxabaletako Basabe industrialdean dagoen Copreci enpresaren eraikin baten, estanpazio jarduera duen tailerrean, sua piztu zen martxoaren 1ean. Sutea ikusgarria izan zen, baina ez zen zaurituririk izan eta langileak euren kabuz atera ziren kalera. Makina batek hartu zuen su arratsaldean eta handik zabaldu zen lantegira. Suhiltzaileek sua amatuta, hurrengo egunetan normal egin zuten lan fabrikan.



GOIENA



Arrasateko alde zaharreko eraikinak. GOIENA

# Turismoa Arrasaten indartzeko plan berria

Herriak dituen baliabideei bultzada emateko plana egin du Arrasateko Udalak Ikertalde enpresarekin batera. Besteak beste, turismo berdean, alde zaharrean, patrimonio industrialean eta esperientzia kooperatiboan indarra jartzea da asmoa

**Josu Bilbao** ARRASATE

Arrasateko Udalak Ikertalde enpresarekin batera egin du turismo plan berria. Herriak dituen baliabide turistikoak kontuan hartuta, egoera aztertzeaz gain, indarra non jarri behar duen hausnartu dute plan berri horretan. Herriak dituen baliabideez gain, Debagoienak turismoa erakartzeko dituenak ere kontuan hartu dituzte plan horretan.

Horrela, abiapuntu moduan, ibiltzeko oraindik bide luzea duela hausnartu du Udalak. Besteak beste, esperientzia kooperatiboan, turismoari begira, Arrasatek aukera ona izan dezakeela edota bailarako turismoa indartzeko aliantza markoa hobetu behar dela ondorioztatu dute. Baita Euskadiko erdigunean egoteari balio erantsi bat eman behar zaiola ere.

**Turismorako zazpi ardatz**

Indarrak bi ildotan jarriko ditu Udalak, plan berriaren arabera. Alde batetik, baliabide kooperatiboa epe ertainera begira proiektu bezala hartzea, eta, bestetik, osagarri diren herriko eta eskualdeko baliabideak kontuan hartzea.

Horrenbestez, zazpi ardatz ezberdindu dituzte turismo planean. Lehenengoa turismo berdea da. Horretarako, ibilbideen mantentzeari eta balizatzeari jarraipena eman nahi diote, eta turismo aktiborako oinarriak finkatu. Baita turismo horren gaineko informazioa eta komunikazioa indartu ere.

Bigarrena Arrasateko alde zaharra da. Bertan, besteak beste, bisita gidatuak, joko interaktiboak eta ibilbideak antolatzea da asmoa.

**ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA TURISMOARI BEGIRA INDARTZEA DA HELBURUETAKO BAT**

Hirugarrena esperientzia kooperatiboa eta industria patrimonioa turismoari begira indartzea izango da.

Laugarren ardatza patrimonio immateriala da, ohitura zaharrak eta tradizioak. Kultura, jaia eta kirola turismora begira ere aintzat hartzea, hain zuzen ere.

Bosgarren ardatza herriko errekurtsoak eskualdeko turismora ere bideratzea izango da. Eta hor sartuko lirateke Ignaziotar Lurraldearen barnean sartzen diren turismo baliabideak, besteak beste.

Seigarren zutabea, berriz, enpresak dira. Hain zuzen ere, horien kalitatea eta lehiakortasuna hobetzea eta koordinazioa biziagotzea. Eta, azkenik, kanpora begira, informazioa eskaintzeko orduan eta komunikatzeko orduan indarra jarri behar dela ere aipatzen du turismo planak, marka indartzen eta informazio-guneak gehitzen, alegia.

## Julen Mendizabal preso arrasatearra, etxetik gertuago

Parisko Osny espetxetik Mont de Marsan-era lekualdatu dute Mendizabal. Etxetik hurbilago egongo da horrela

**J.B.** ARRASATE

Maiatzean du finkatuta aske geratzeko data Julen Mendizabalek, baina kondenaren azken hilabeteak etxetik gertuago egingo ditu. Parisko Osny espetxean egon da azkenaldian, Arrasatetik 900 kilometro baino gehiagora, eta, lekualdatzearekin, etxetik 215 kilometrora egongo da, Mont de Marsan-en.

Frantziako Gobernuak presoak gerturatzen hasiko zela iragarri zuen urtarrilean, eta, oraingoan, arrasatearra eta Zigor Garro oreretarra lekualdatu dituzte, biak Mont de Marsan espetxera. Eusko Jaurlaritzak erabakia txalotu egin du, eta Covite biktimen elkarteak adierazi du Parisek ez duela "marra gorririk" gainditu.

Iragan asteko egubakoitzean hasi zuten Mendizabalen lekualdatzea, eta, hori dela eta, bertan behera geratu zen asteburu hartan familiakoek egin behar zioten bisita. Hainbat lagunek ere programatuta zituzten Osnyra bisitak hurrengo egunetarako, baina orain, aldatu egin beharko dituzte.

## OHARRAK

### Ziar-Ola elkartearen ohiko batzar orokorra

Martxoaren 18an egingo dute Ziar-Olako elkarte gastrokulturalaren ohiko batzar orokorra; lehen deialdia 10:00etan eta bigarrena 10:30ean da.

### Ludoteka ibiltariaren azken eguna

Bihar, martxoak 3, Txatxilipurdik antolatzen duen Musakola auzoko aurtengo ludoteka ibiltariaren azken eguna izango da.

### Arrasateko oñatiarren urteko 'txantxikulada'

Martxoaren 17an egingo dute. Sampri tabernan luntxa, ondoren urteroko argazkia eta Erreka tabernan bazkaria. Erreka tabernan eman daiteke izena martxoaren 13ra arte (40 euro).

## GORA ETA BEHERA




SAGIRI

### Itsulapikoak lapurtu dituzte tabernetan

Sahararren aldeko Sagiri elkarteak itsulapikoak jarri ditu Arrasateko tabernetan –Saharatik udan haurrak ekartzeko laguntza batzeko–, eta horietako bi lapurtu egin dituzte.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

# Hobekuntza lanak Garibain eta Makatzenan

Garibai etorbidean, Biteriko etxe orratzetik Kontzezinoraino doan espaloia berritzeko lanak astelehen honetan hasi dira. Makatzenan, aldiz, esleitu dituzte jada frontoiaren eta jolas-parkearen berritzeak, eta laster hasiko dira konponketa lanak egiten

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Datozen hilabeteetan hainbat konponketa lan izango dira aldi berean Arrasaten. Horietako bat Garibai etorbideko espaloiaren berritzea izango da. Lanak astelehenean hasi ditu Artzamendi SA enpresak. Esku hartze horren helburu nagusia da gaur egungo lurzoru zahartua irristagaitzagoa den batekin ordezkatzea. Hala ere, horrez gain, ur eta saneamendu zerbitzu sareak berritu egingo dituzte. "Irisgarritasunaren hobekuntza nabarmena lortuko da lan hauek egin eta gero. Biteri plazatik Garibairantz dagoen saltoa kenduko da, baita kale horretan banketxeetara, atarietara eta tabernetara sartzeko dauden koxkak ere. Hala ere, bertako banku eta komunak ez ditugu kenduko", azaldu du Hirigintza batzordeburu Ibon Arrupek.

Esleipen prozeduran ezarritako aurrekontuaren azpitik esleitu dituzte lanak. Bertan, hain zuzen ere, 226.406 euroko aurrekontua ezarri zen, eta %16 merkeago den eskaintza egin du enpresa bergararrak.

Hamasei asteko epea aurreikusten dute lanak bukatzeko; beraz, ekain amaierarako, San Juan jaietarako, eraberrituta egongo da etorbidea.


Garibai etorbidean astelehenean ateratako argazkia. XABI GOROSTIDI

Oinezko asko pasatzen diren gunea izanda, pasabide hesitu bat ezarri dute, lanak egiten dituzten bitartean oinezkoak pasa daitezen.

### Makatzenako frontoia

Makatzenako frontoia eta alboko jolas-parkea ere laster hasiko dira itxura berritua hartzen. Lan horiek egiteko ardura Altuna y Uria enpresak izango du, lehiaketa publikoan 325.667,25 euroko eskaintza egin ostean –BEZ barik–. Frontoiari dagokionez, estaldura guztiz berrituko dute, eta paretek dituzten hezetasun arazoak leuntzeko neurriak hartuko dituzte. Horrez gain, pilotalekuaren argiztapena berritu egingo dute.

Bestetik, jolas-parkea konpondu egingo dute eta estalki metaliko bat jarriko diote. Azkenik, jolas-parkearen alboko aparkalekua berrordenatu egingo dute, baina, Garciaren esanetan, "ez da plazarik galduko". Lan horiek egiten dituzten bitartean, Obenerrekako frontoia erabiliko dute behin-behineko aparkaleku modura.



NIRE USTEZ

**IBON ARRUPE**

## Basurdeak: izurritea edo bioaniztasuna

Guztiz etsita dabiltza baserritarrak, basurdeek beraien zelaietan eragiten dituzten kalteek beraien existentzia bera ere kolokan jartzen baitute. Basurdeen gainpopulazioa asumitu ezin duten karga bihurtu da eta amorruz ikusten dute horrenbeste mimatu dituzten zelaiak nola suntsitzen dituzten.

Eta kaletarroi arazoaz jabetzea ere kostatu egiten zaigu. Komikiak irakurriz hazi ginenontzat, basurdeak Asterix eta Obelixen komikietako erreferente dira. Obelix besape bakoitzean basurde bat daukala etxera bidean, umetako imajinarioan grabatutako irudia da askorentzat. Kontuan izanda, gainera, hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan Euskal Herrian ez zegoela basurderik, galiarren eta erromatarren garaiko animalia exotiko bezala ikusteko joera daukagu. Baina, bat-batean, basurdez bete zaizkigu herri inguruko baso eta mendiak. Eta zer egingo dugu? Populazio jasangarri bat izatera bueltatu arte berriro ehizatu? Edo era naturalean populazio hori kontrolatzeko harrapariak sartu? Hor dago korapiloa, eta nik, behintzat, ez dut nola askatu argi ikusten.


XABI GOROSTIDI

## Arbolapetako arkua, berrituta

Hainbat astetako lanaren ostean, hori izango da hemendik aurrera Olarteko ateak izango duen itxura. Goialdean dagoen Gaztelako armarrian eta arkuaren ertzetan ikusten da Arrasateko harresiko harri originala, eta gainontzeko guztia geruza berri batekin estali dute. AZEko kideei ez zaie emaitza gustatu, eta ohar bat kaleratuko dutela iragarri dute.

HARIRA
GOIENA TELEBISTA
MARTXOAREN 6AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:30EAN
ARRASATE AZTERGAI, UDAL ORDEZKARIEKIN
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA
LAGUNTZAILEA:
Markiegi
goiena
Zu hemen zaude.



Sagrario Lopez, Biona taberna zenaren sarreran. Atean dagoen pentsiodunen kartela hark jarritakoa da. XABI GOROSTIDI

# Hamarkada bat Biona barik

Atzo, martxoak 1, bete ziren hamar urte herriko belaunaldi gazte askoren lehen tabernak ateak itxi zituenetik. Sagrario Lopezek harreman estua izan zuen gazteekin, baina nahiko kezkatuta dago, gaur egun "indibidualismoan galduta" ikusten dituelako

**Xabi Gorostidi** ARRASATE
Ukaezina da taberna hark bazuela zerbait berezia, belaunaldi gazteak bata bestearen atzetik erakartzea lortu zuena. "Momentu batzuetan, gaztetxe funtzioa bete zuen. Barra atzean geundenok adinez nagusiagoak ginen arren, beti sentitu gara gazte. Forma eman genion tabernari, gazteek propioa zuten leku bat bezala sentitu zezaten", azaldu du Sagrario Lopezek. "Ni gaztea nintzenean Bionara joaten nintzen, eta gure osteko belaunaldiek bide bera jarraitu zuten. Gustura sentiarazten zintuen lehen taberna zen; kolakaua, zigarroa... ez zeukan telebistarik, beti zeneukan musika jarrita", azaldu du Ezequiel Fernandez *Marmi*-k.

### Kolektibitatea oinarrian

"1977an Bionan sartu aurretik, erbestean egon nintzen, Belgikan. Han, taldean lan egitearen beharraz jabetu nintzen eskola alternatibo batean lan eginez, eta gero, tabernan aplikatu genuen. Nahiko estruktura kooperatiboa ginen; beharrak, ardurak eta irabaziak partekatzen genituen, langile guztiak maila berean geunden... Norbait haurdun geratzen bazen, gizarte-segurantzak lanaldi erdia finantzatzen zuen eta beste erdia tabernatik ordaintzen genion", azaldu du Lopezek.

Alde zaharreko taberna multzo batek *Zona gorria* izendapena jaso izan du, eta Biona izan zen talde izaera horretako bultzatzaileetako bat. "Oso esanguratsua zen, eta jende asko ez zen bertatik apenas ateratzen; Irati, Biona, Iluntz, Lagunilla; gerora, Basati, Ekaitz...", gogoratzen du *Marmi*-k. Elkarren artean oso gertu zeuden tabernak ziren, eta, Lopezek dioen bezala, baita ideologikoki ere. "Izaera soziala zuen edozein manifestazio zegoenean, ateak ixten genituen denok, eta manifestazioan parte hartzen genuen. Ausartak eta kontsekuenteak izan ginela uste dut".

### Gazteekin kezkatuta

Lopez kezkatuta dago *Zona gorria*-k eta Ferrerias inguruak indarra galdu dutelako, eta zuzenean lotu du hori gazteen artean dagoen kolektibitate faltarekin. "Bionan kuadrilla ezberdinak erlazionatzen ikusten nituen; partxisean, mahai-futbolean edo hitz egiten. Baina gaur egungo gazteen artean indibidualismoa da nagusi. Oso arduratuta ikusten ditut euren lan etorkizuna dela eta. Biziraupena kontzientziaren aurretik jartzen dutela uste dut".

### Biona osteko ibilbidea

Eta zer egin du Bionako azken lantaldeak taberna itxi ostean? "*Marmi*-k eta *Isi*-k ostalaritzan jarraitu dute, eta orain, Basatin eta Gatzagako tabernetan daude, hurrenez hurren. Ainhoa eta *Bika*, Larrinetxen; Pili eta Endika, lantegi batean; Karmele, Umezaintzan; Jaione, Santa Agedan; Amaia Garcia, Eskola Politeknikoko jangelan; eta Amaia Otegi, eskuz egindako gauzak egiten eta saltzen", kontatu du Lopezek. Hark erretiroa hartu zuen 2008an, baina ez da geldi egotekoa, eta buru-belarri dabil pentsiodunen aldarrikapenekin: "Eskubideak defendatzeak bizia ematen dit. Ez da niretzako egiten dudan lan bat, gure seme-alabentzat eta bilobentzat ere egiten baitut". Urte hauetan bezero ohien maitasuna jaso duela aitortu du. "Batez ere, mutilen partetik jaso dut kalean gurutzatu eta begiradan maitasun puntu hori".

*Marmi:* "Jendeak sarri esan dit: gogoratzen duzu Biona? Nola ez dut gogoratuko! Orain baino zoriontsuagoa nintzen eta!"


*Limin, Joe, Javi eta Marmi,* Biona taberna zenaren kanpoaldean.

## Bionako izkinaren zaindariak

Barra eta sukaldea batzen ziren tokian beti zegoen kuadrilla fidel bat. Bionaren gaia atera, eta oroitzapen ugari etorri zaizkie: RIPen, Cicatrizen eta Kortaturen kontzertuak, mahai-futbolaren txokoan zegoen larruzko sofa gorria eta, batez ere, hemen kontatu ezin direnak.


Lantaldea, Maritxu Kajoi egunean. BIONA TABERNA

## Maritxu Kajoi egunean, beti dotore

Behin nostalgiko jarrita, zaila da argazki zahar bat artikuluan sartzeko tentazioari eustea. Goiko irudian Bionako lantaldea agertzen da, Maritxu Kajoi egunean, elegante jantzita, jende uholdeari aurre egiteko prest.

# Emakumeen memoria berreskuratzeko eguna

Erakusketa, azoka, tailerrak, mahai-ingurua, bakarrizketa eta elkarretaratzea antolatu dituzte, besteak beste, Martxoaren 8aren bueltan Arrasaten. Hain zuzen ere, 'Izan direlako, gara' lelopean egingo dituzte ekitaldi guztiak

**Josu Bilbao** ARRASATE
Emakumeen Mundu Martxako Arrasateko taldeak, Ekin Emakumeak Elkarteak, Pottogorriek, Gune Iraunkor Feministak eta IMMEk egin dute Martxoaren 8aren bueltarako egitaraua prestatzeko elkarlana, Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailarekin.

Aurten, *Izan direlako, gara* izango da leloa, eta emakumeen memoria berreskuratzea izango da ardatza, Berdintasun teknikari Arantza Beitiak dioen moduan. "Historian zehar emakumeon eta mugimendu feministaren lorpenak sistematikoki ezabatuak izan dira. Gutxiespen horri aurre egiteko, gure eskubideen aldeko aldarrikapenak eta gure lanak eta lorpenak ikusarazi nahi ditugu".


Arantza Beitia eta Maria Ubarretxena Tribial Femista aurkezten. MIREIA BIKUÑA

**Ekintza ugari**
Martxoaren 8aren bueltan hainbat ekintza antolatu dituzte. Besteak beste, emakumeen martxa biharko, Biteri plazatik Elorregiraino. Gainera, Martxoaren 8an manifestazioa egingo dute Sanbamaña batukadarekin, Seber Altube plazatik irtenda. Horrez gain, erakusketa egongo da martxoaren 5etik 16ra Emakume Txokoan, kartel lehiaketara aurkeztu ziren lanak erakusteko. Martxoaren 10eko azokan postua ipiniko du Emakumeen Txokoak. Bertan, Tribial Feministan jokatzeko aukera izango dute erosleek. Martxoaren 14an, Zinegoak film laburrak eskainiko dituzte Kulturaten, eta 16an, *Hots hiru ahots bakarrean* poesia musikatuaz gozatzeko aukera egongo da. Martxoaren 21erako mahai-ingurua antolatu dute gestazio subrogatuaren inguruan, Kulturaten, eta baita *No solo duelen los golpes* bakarrizketa, Pamela Palencianorekin.

## Martxoko egitaraua

**Emakumeen martxa**
- Bihar, Biteri plazatik Elorregiraino.

**Bakarrizketa**
- Patricia Sornosaren eskutik, bihar.

**Emakumeendako defentsa pertsonala**
- Bihar, Musakolan, Arrasate Arte Martzialen Eskolaren eskutik.

**Manifestazioa**
- Martxoaren 8an, Seber Altubetik irtenda.

**Erakusketa**
- Emakume Txokoan, martxoaren 5etik 16ra.

**Antzerkia**
- *La casa de Bernarda Alba*, Amaian, martxoaren 10ean.



# Eskaladaren 'Meka'-n jo eta su bi astez

Paristik gertu dagoen Fontainebleu-n egon da Ander Mendieta eskalatzaile arrasatearra. Egunean hamabost bloke egin ditu, batez beste, eta, besteak beste, aurretik sei aldiz igotzea lortu izan den 8B+ mailako bat ere eskalatu du



**Ander Mendieta eskalatzailea.** ANDER MENDIETA

**X.G.** ARRASATE

Nork bere mugak gainditzeko gogoak mugiarazita, bi asteko egonaldia egin berri du Ander Mendietak Fontainebleu-n. Ez da bakarrik joan, alboan izan ditu Julen Arriola aretxabaletarra eta Aratz Oñederra gatzagarra ere. "Hamabost egun egin ditugu bertan, eta bloke asko egitea lortu dugu. Fointanebleun bloke kopurua itzela da, eta, askorendako, eskaladaren *Meka* da. Europa mailan zaila da hau baino leku aberatsagoa topatzea. Suitzan egondakoa naiz, baina ezin daiteke Fointainebleurekin alderatu".

Baina, esan bezala, Mendieta eta konpainia ez dira turismoa egitera joan, eta eskalatzen aritu dira jo eta su. "Egunean hamabost blokeren bueltan egin ditugu, nahiko maila handikoak denak. Denetan zailena 8B+ mailako bat izan da, *Mecanique elementaire* izena duena. Nik igo aurretik, sei eskalatzailek bakarrik igo izan dute, eta ni izan naiz zazpigarrena", azpimarratu du Mendietak.

Arrasateko eskalatzailearen langa 8C eta 8B+ blokeetan dago, eta pozik azaldu da bertan emandako mailarekin. "Mundu mailako zailtasun maila handienak dira horiek, eta gustura nago egindako lanarekin".

**Egindakoa, sare sozialetan**

Eskalada munduan ez da nahikoa ona izatea. Talentuak ez du arrakasta bermatzen. Eskalatzaileentzat, ezinbestekoa da egiten duten lorpen oro dokumentatzea eta hori lau haizeetara zabaltzea; lortu den hori egiaztatzeko, eta baita babesleak erakartzeko. Mendietak aspalditik daki hori, eta Fointainebleun egindako bloke guztiak sare sozialen bidez hedatu ditu. Egunero hiruzpalau bideo igo ditu Instagramera eta jende askoren arreta piztea lortu du: "Egiten dudan guztia grabatzen ahalegintzen naiz, izan Fointainebleun, edo izan Larraonan. Garrantzitsua da alderdi hori ondo lantzea".

Gaur egun, Charko Designs etxearen babesa du, eta duela zazpi urtetik hona dauka eurekin harremana. "Oso zaila da eskalatzetik bakarrik bizitzea. Hori barneratuta daukadan zerbait da. Nire babesleak materiala ematen dit, eta, zentzu horretan, ez zait ezer falta. Baina hankak lurrean ditut, eta badakit ezinezkoa dela daukadan laguntza baino gehiago izatea. Daukadanarekin konfirmatzen naiz", azaldu du eskalatzaileak.

"Urtea amaitu baino lehen Fointainebleura bueltatzea gustatuko litzaidake. Badaude ezagutu ez ditudan leku gehiago, baina oso gustura egon naiz, eta berriz joan nahi dut. Uda parterako oraindik ez dut lekurik aukeratu. Hegoafrikako Rocklands-era bueltatzea da aukeretako bat, baina Australiara joatea ere gustatuko litzaidake", aipatu du arrasatearrak.

## Sestao taldea hartuko du Mondratek bihar Musakolan

Areto futboleko gizonezkoen Euskal Ligako norgehiagoka garrantzitsua jokatuko du Mondratek bihar, 17:30ean, Musakolako kiroldegian. Aurkaria Sestao taldea izango da, eta Arrasateko taldeak garaipena eskuratzeko aukera aparta izango du etxean, aurreko aste bukaeran Mallabian 2-2ko berdinketa eskuratu ostean.

Sestao, hala ere, sailkapenean gainetik du Mondratek, bizkaitarrak bosgarren sailkatuak dira eta. Arrasateko taldea bederatzigarren da sailkapenean, lau garaipen, bi berdinketa eta hamar porrotekin, eta, garaipena lortuz gero, aurrerapauso polita emango luke.

## Garaipenaren bidera itzultzeko aukera du Ford Mugarrik

Arrasateko taldeak hitzordu garrantzitsua izango du domekan, 12:15ean, Iturripen, Donibane Rueda Impermeabilizaciones taldearen kontra. Ford Mugarri laugarren da gizonezkoen Euskadiko senior ligako sailkapenean, eta hartuko duten aurkaria azkeneko postuetatik gertu dago. Beraz, moreek ezin dute hutsik egin etxean.

Aurreko jardunaldian porrot mingarria jaso zuten arrasatearrek Amazsa Urdanetaren aurka (26-24), eta garaipenaren bidera itzultzeko aukera aparta izango dute Iturripen. Donibane Rueda taldeak, izan ere, bi neurketa bakarrik irabazi ditu denboraldi honetan.



# "Asteburu polita pasako dugu Mucientesen"

**MIKEL BALANZATEGI** TXORBELA OTXOTEKO PRESIDENTEA

Asteburu honetan Valladolideko Mucientes herrira doa Txorbela otxotea, eta hango abesbatzarekin batera kontzertua eskainiko du; apirilean, berriz, Erromara doaz

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Txorbela otxoteak dituen asmoez aritu da Mikel Balanzategi presidentea. Apirilean Erromara egingo duten bost eguneko bidaia izango da aurtengo ekintzarik garrantzitsuena. Bestalde, gogoratu behar da iaz argitaratutako diskoa salgai dutela oraindik. Salmenta "ondo" doala aitortu du Balanzategik.

**Valladolideko Mucientes herrian abestuko duzue asteburu honetan. Zer dela eta?**

Hori da. Gure taldeko kide baten ama hangoa da, eta baditu zenbait kontaktu han. Haren bitartez suertatu zaigu han abesteko aukera. Bestalde, Arrasaten ere badaude zenbait herritar hangoak direnak.

**Zein izango da plana?**

Bihar joango gara. Hotela hartuta dugu dagoeneko. Beraz, bihar abestu, gaua han pasa eta domekan, bazkalostean, buelta egingo dugu. Abestuko dugun aitzakiarekin, asteburu pasa polita egingo dugu.

**Mucientesko San Pedro elizan eskainiko duzue kontzertua. Nolakoa izango da?**

Herrian abesbatza txiki bat dute. Beraz, haiek kontzertu erdia egingo dute eta, ondoren, guk beste erdia. Guri dagokigunez, apirilean, Aste Santu ostean, Erromara goaz. Vatikanoan eta beste hainbat elizatan abestuko dugu, eta hor abestuko ditugun kantuak abestuko ditugu biharkoan ere.

**Aipatu duzu Erromara zoaztela. Nolatan?**

Bost eguneko bidaia egingo dugu. Julian Sagasta arrasatearra –Olatxo baserrian jaiotakoa– organo-jole egon zen Vatikanoan, baita Santa Maria Nagusia basilikan ere. Hari omenalditxoa egiteko asmoa daukagu. Beraz, hura parroko egon zen elizako meza batean abestuko dugu, eta meza ostean kontzertu txiki bat eskainiko dugu. Ondoren, Vatikanoan eta beste bi elizatan ere abestuko dugu. Guztira, lau kontzertu txiki eskainiko ditugu.



Mikel Balanzategi. M.B.

> **"VATIKANOAN ETA BESTE HIRU ELIZATAN ABESTUKO DUGU APIRILEAN; TURISMOA ERE EGINGO DUGU"**

**Turismo apur bat egiteko ere aprobetxatuko duzue bidaia?**

Denbora librea edukiz gero, egingo dugu zerbait, bai. Egun oso bat badaukagu libre, behintzat, eta beste egun batzuetan goizak ere libre ditugu. Beraz, inguruak ezagutzeko ere aprobetxatuko dugu. Izan ere, lehen aldia izango da Erromara horrelako bidaia bat egingo duguna. Ohitura dugu bi urtean behin horrelako bidaia bat egiteko. Stockholmera (Suedia) egin genuen bat, Granadan eta Galizian ere egonda gaude...

**Iaz argitaratu zenuten diskoak zer moduzko harrera izan du?**

Salmenta ondo doala esango nuke, disko dezente saldu ditugu dagoeneko, eta oraindik ere salgai daude, interesa duenarendako.

**Nolakoa da diskoa?**

23 abestiz osatutako diskoa da. Batez ere, euskal kantak ditu, lehengoak eta oraingoak. Abesbatzendako badaude abesti modernoagoak ere, eta horietako batzuk ere jasotzen ditu gure diskoak. Horrez gain, Santa Agedako pare bat abesti ere bai.

**Oraindik salgai dagoela diozu.**

Bai. 10 eurotan dago, Ezkiña, Itzala, Rumba eta beste hainbat tabernatan, baita Elkar argitaletxean ere.



AMAIA TXINTXURRETA.

## 'Margotutako hormak', ikusgai

Josune Murgoitio idazle, kazetari eta ikertzaile arrasatearrak eguazten honetan eman dio irekiera ofiziala *Margotutako hormak* bere erakusketari Kulturaten. Inaugurazioan izan dira herriko alkatea, udal ordezkariak eta baita ere Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroko –GEUZ elkarteko– ordezkariak. Martxoaren 24ra arte egongo da ikusgai erakusketa.

## 'Izar' haurrentzako antzerkia izango da bihar, Amaian

*Izar* haurrentzako antzerki emanaldia izango da bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan, Marie de Jongh taldearen eskutik. Sarrera bost euro da.

Testurik gabeko antzerkia da. Hemen sinopsia: Izar, 6 urteko neskato hauskorra den arren, dagoeneko ospe handiko pianojole bihurtzeko bidean da. Gurasoek ezarri dioten diziplina zorrotzari esker, neskatilaren trebezia maila gorenera iritsi da. Izarrek ez du hazi nahi, pozarren bizi da bere haurtzaro distiratsuan. Baina bizitzak bestelako patua ekarri dio, ustekabeko labirinto emozionala. Handik ateratzeko, beste izar baten gidaritza beharko du.

## OHARRAK

### Autobusak BECera

Hilaren 17an Berri Txarrak taldeak BECen eskainiko duen kontzerturako autobusa egongo da. 18:00etan aterako da Garibaitik eta buelta 01:00etarako aurreikusten da. Txartelak 10 eurotan daude salgai Jai-Zale tabernan.

### Liburu aurkezpena

Juan Ignacio Montianok *Sueñan los humanos con los androides cariñosos* liburua aurkeztuko du martxoaren 7an Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

### Kontzerturik ez

Datorren astean ez da kontzerturik izango Kooltur Ostegunen barruan.









Emakume bi amantalak jantzita planto egiteko deia eginez. MIRARI ALTUBE

# Herriko emakumeei ere planto egiteko deia

Aretxabaletako Talde Feministak eta Udalak bat egin dute Emakumeen Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin, eta elkarlanean, baita UDArekin ere, egitarau mardula gertatu dute; hala, horietan parte hartzera deitu dituzte gainerako herritarrak

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Udalak eta Aretxabaletako Talde Feministak indarrak batera-tu dituzte Martxoaren 8ari begira, eta *Emakumeak planto* leloari atxikimendua erakutsiko diote. Adierazpen ofiziala oraindik ez dute adostu bi erakundeek, baina eguenerako gertu izango dutelakoan dago Ongizate Saileko Karmele Uribarri: "Egun horretako lelo orokorra geurera egokituko dugu, geuk ere erakusteko emakumeok planto eginez gero mundua geratu egingo litzatekeela", dio; eta gaineratu du: "Eudelek proposatutako adierazpena geurera egokitzea da helburua. 2018rako lan operatibo bat dugu zehaztuta berdintasun mailan, eta hor txertatu dugu".

**Lelo lehiaketa**

Gazteekin ere landu gura izan dute gaia, eta, horretarako, lehiaketa bat jarri dute abian. Egun horri begirako leloak eskatu dizkiete 12 eta 18 urte bitartekoei: "Epaimahai bat osatu dugu leloak baloratzeko eta irabazlearekin Martxoaren 8ko agerraldiko pankarta egingo dugu", jakinarazi du Uribarrik. Bigarren sari bat –50 euroko erosketa bonua– ere emango dute eta hori publikoak hautatuko du; martxoaren 5a artean bozkatu ahal izango dute herritarrek udalaren webgunean: *Aretxabaleta.eus*.

**Aldarrikapen ekitaldiak**

Eguaztenean amantalekin eta etxeko trapuekin atonduko dute plaza ingurua, eta eguenean izango dira ekitaldi nagusiak: elkarretaratze zirkularra eguerdian; agerraldi ofiziala eta sorgin dantza plazan, eta giza katea Durana kalean. Virginia Imaz *clown*-ak *Sex o no sex* antzezlana eskainiko du gero, Arkupen; bizitza, heriotza eta sexua izango ditu berbetarako gai, goxotasun eta umore handiarekin, publikoa konplize duela.

Astelehenaz geroztik, gainera, pintura eskolak ematen dituen Ainhoa Caberoren ikasleen lanak izango dira ikusgai Arkupeko erakusketa aretoan: "Hamar urteotan egindako lanak izango dira eta guztiek dute emakumea gaitzat", dio Caberok. Martxoaren 9an, ostera, emakumeak historian zehar artean izan duen irudia aztertuko du Caberok berak, Arkupen. Eta udaletxe zaharrean Ernaiko Edurne Epeldek maitasun erromantikoaren gaineko tailerra egingo du.

**Frontenisean jokatzeko topaketa**

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltako ekitaldiekin UDAk ere egin du bat. Bosgarrenez deitu du frontenis txapelketa, baina, emakume gutxik eman duenez izena, txapelketa jokatu beharrean topaketatxo bat egingo dute. Martxoaren 10ean izango da hori, Iturrigorri pilotalekuan, eta hainbat partidu jokatuko dituzte bertaratzen direnek.

## Asterako gertatutako egitaraua

**Martxoak 7, eguaztena**
- **18:30** Plaza ingurua egokitu.

**Martxoak 8, eguena**
- **12:30** Elkarretaratze zirkularra plazan.
- **18:00** Lelo lehiaketako sari banaketa udaletxean.
- **18:30** Agerraldia plazan; ondoren *Sorgin dantza*.
- **19:00** Giza katea eta Jaikiko dantzarien saioa Durana kalean.
- **20:00** Antzezlana: *Sex o no sex*, Virginia Imazekin, Arkupen; ondoren, mokadutxoa.

**Martxoak 9, egubakoitza**
- **18:00** Hitzaldia: *Emakumearen irudia artearen historian.* Ainhoa Caberoren eskutik, Arkupen.
- **18:00** Tailerra: Maitasun erromantikoa. Edurne Epeldek gidatuta, udaletxe zaharrean.

**Martxoaren 5etik 30era**
- **Erakusketa** *Emakumea*. Ainhoa Caberoren ikasleek.

**Martxoak 10**
- **Frontenisa**: Emakumeen topaketa frontenisean jokatzeko.

**Martxoak 15**
- **Zinekluba**: *Janis* filma Arkupen.

# Euskadi Lagunkoia egitasmoa pauso sendoekin doa aurrera

Udal ordezkariek begi onez hartu dituzte herriaren gaineko diagnostikoa egiten dabiltzanen ekarpenak

**M.A.** ARETXABALETA

Aretxabaletaren gaineko diagnostikoa egiten dihardute Basotxo erretiratuen elkarteren bueltan sortutako *Euskadi Lagunkoia Sustraietatik* egitasmoko kideek, eta aire zabaleko guneen eta eraikinen gaineko hainbat proposamen aurkeztu dizkiete udal ordezkariei. Orain jaso dute proposamen horien erantzuna, eta pozik agertu dira.

Basotxok 2012an hasi zuen Aretxabaletaren gaineko ikerketa, eta diagnostiko bat egin ere bai 2013an. Orduan egindakoa berreskuratu dute, eta horren gainean hasi dira lanean; izan ere, Udalak iaz uztailean Euskadi Lagunkoia sarera batzea erabaki zuen. Aire zabaleko guneak eta eraikinak aztertzen jardun zuten urtea bukatu bitartean, eta horren gaineko ekarpenak udal ordezkariei aurkeztu zizkieten gero.

Oraintsu jaso dute udal ordezkarien erantzuna. Hain zuzen, Unai Elkoro alkatearekin eta Karmele Uribarri Ongizate Saileko zinegotziarekin bildu ziren: "Batzarraren helburua izan zen, batetik, lantaldeak aurkeztutako proposamenen gainean hitz egitea, eta, bestetik, proposamen horiei erantzuteko zein lan egingo dituzten azalpenak eskatzea".

*Euskadi Lagunkoia Sustraietatik* lantaldeko kideen esanetan, alkateak positibotzat jo zuen diagnostikoa, eta herria beste begi batzuekin begiratzen dutenen lana balioan jarri. "Aipatu zigun bestela ezkutuan geratuko liratekeen kontuak agerian geratzen direla horrela, eta, gainera, proposamenak taldean hartu izanaren bermea dutela".

Ekarpen guztiak erantzun zituen Elkorok. "Taldeak hurrengo bileran aztertuko ditu erantzun horiek guztiak. Baina gustura gaudela Udalak egindako lanarekin, eta itxuraz, behintzat, mahai gainean jarritako gai askori erantzun die". Eta uste dute diagnostikoan zehaztutako gai asko konponduta geratuko direla 2018an.

# Beherapen ederrak Ixadebalden, gaur hasita

Herriko sei saltokik ipiniko dituzte euren produktuak gaur, egubakoitza, hasi eta bihar eguerdira arte iraungo duen XVI. Ixadebalde azokan. Bereziki, neguko produktuak erosteko aukera egongo da, baina udakoak ere ez dira faltako

**Miren Arregi** ARETXABALETA
Gaur, egubakoitza, hasiko da Aretxarteren XVI. merkealdien azoka. Hala, gaur egun osoz eta bihar goizean ere bai, Ixadebalden, herriko komertzioek prezio ezin hobean ipinitako produktuak erosteko aukera egongo da.

Eguraldi iragarpenek hego haizea eta giro epela iragarri badute ere, Ixadebalde azoka barruan egitea erabaki dute, babestuta. Hala, aurrekoetan moduan, Mojetan egingo da edizio berri hau ere. Gaur, 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era egongo da azoka zabalik, eta bihar, zapatua, 10:00etatik 14:30era. Azokaren hamaseigarren edizio honetan, arropak izango du protagonismo berezia. Izan ere, ume, gazte, zein helduendako arropa, emakume zein gizonezkoena, erosteko aukera izango da: "Neguko arropa erosteko benetako aukera izango da azoka. %80rainoko beherapenak egongo dira", dio Aretxarte merkatarien elkarteko Meritxel Serratok. Guztira, sei saltokik ipiniko dituzte euren produktuak, eta horiek dira Belarmeta, Tak, Haurrak, Titare, Asensio eta Kilima. Aurten, beste batzuetan baino gutxiago dira, hainbat arrazoirengatik. Saltoki batzuk irten egin dira Aretxartetik eta beste batzuek, ateratzeko genero gutxi dutela eta, parte ez hartzea erabaki dute.

## Emaitza onak

Urtean bi Ixadebalde antolatzen ditu duela urte batzuetatik hona Aretxartek. Bat egiten dute irailean, udako maukekin, eta bestea martxoan, negukoekin. Bietan ere, herritarrek ondo erantzun dute. Saltokientzat beti da mesedegarria: "Gelditu zaizkigun produktuak gainetik kentzeko modu bat da guretzat, eta herritarrendako oso eskaintza onak ipintzen ditugu", dio Serratok.

Neguko produktuak erosteko aukera egongo da, esan moduan, gaur eta bihar Mojetan. Hala ere, udako produktuak ere aterako dituztela aurreratu dute saltokiek.

## Negua, erdipurdikoa

Negu hotza izan da eta ari da izaten aurtengoa, eta hori mesedegarri da, normalean, herrietako saltokiendako. Hala ere, aurtengoa ez dela espero bezain ona izan adierazi du Kilima dendako Meritxel Serratok. "Gabonak ez dira beste urte batzuetakoak bezalakoak izan".

## 100 euroko bi bonu

Azokara gerturatzen diren bezeroek saria ere lor dezakete, 100 euroko bi bonu zozketatuko dituzte-eta Aretxarteren komertzioetan gastatzeko.


2017ko irailean, herritarrak Ixadebalde azokan. IMANOL SORIANO

## Dantza urbanoa protagonista, bihar, Fan Dantz jaialdian

Laugarren edizioa da aurtengoa, eta bihar ospatuko da, 18:30etik aurrera, Aretxabaletako kiroldegian. Euskal Herri osotik etorritako 26 dantza taldek hartuko dute parte; 150 dantzarik, guztira. Dantza urbanoen estiloak ikusgai izango dira, bi kategoriatan: gaztetxoen koreografiak eta lehiaketa nagusikoak. Irabazleek diru saria izango dute, eta apirilaren 21ean Derion ospatuko den BreakOnStage jaialdian parte hartzeko aukera. Epaimahaia dantza urbanoan eta garaikidean adituak diren Zaragozako hiru dantzariz osatuta egongo da. Sarrerak salgai daude, 3 eurotan; leihatilan, 5 euro balioko dute.

## Ikasleek landatuko dituzte arbolak, Zuhaitzaren Egunean

Urtarrilean hasi eta martxo-apiril arte irauten du arbolak landatzeko sasoiak, eta, hori horrela, Aretxabaletan astebururuan egingo dituzte landatzeak. Hain justu ere, etzi, domeka, ospatuko da, Aretxabaletan, Zuhaitzaren Eguna. Landatze lanetan Basabeazpiko, Almengo eta Kurtzebarriko ikasleek hartuko dute parte, eta, aurreko urteetan moduan, Landaketa Taldie eta Makai Basogintza ibiliko dira horretan eta koordinazio lanetan.

Ibarra futbol zelai ondoan egingo dute eta goizeko hamaiketan elkartuko dira landatzean parte hartuko dutenak, Ibarra kiroldegian.



# Aisialdi eskaintza Aste Santuko oporraldirako

Haur eta nerabeentzako hainbat ekintza antolatu dituzte martxoaren 26rako, 27rako eta 28rako. 'Jolasean!' programa, 'light-painting' tailerra, astronomia tailerra eta 'Gaztekonkis ihes! Argitu misterioa'; azken hori Eskoriatzakoekin batera egingo dute

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Aste Santuko oporraldirako, Aretxabaletako haur eta nerabeei zuzendutako zerbitzuek etxetik atera eta ondo pasatzeko aukera paregabea antolatu dute herrian. Eskaintza LH-1eko haurretatik hasi eta DBH-4ra arteko nerabeetaraino da, adin tarte bakoitzari aukera zehatz bat emanda.

Honela adierazi du Maider Etxanizek, Gazteria teknikariak: "Aste Santura begira, iaz, hainbat ekintza antolatu genituen, baina ekintza solte moduan; aurten, denak bateratuta prestatu ditugu, ikusgarriagoa egiteko. Hainbat urte daramatzate gaztelekuko zerbitzuek *Gaztekonkis*-ekin, eta aurten formatua aldatu dute. Haurren eta nerabeen arteko zerbitzuen artean, hausnarketa bat egin genuen, eta pentsatu genuen bazirela hiru egun haurrak eta nerabeak etxean zeudela, gehienen gurasoak lanean daudelako, eta eskaintza ezberdin bat eskaini nahi izan dugu".



Aste Santuko oporraldirako aurkezpena egin dute. GOIATZ ARANA

### Sari ederrak 'Gaztekonkis'-en

Misterioarekin eta beldurrarekin lotuta dauden erronkak gainditu beharko dituzte izena ematen duten nerabeek Gaztekonkisen, eta hiru sari nagusi egongo dira: Scape Room batera bisita, Baskonia ikustera joateko sarrerak eta afari-merienda bat.

### Egitura eta eskaintza ezberdina

Haurrentzako eskaintza, berriz, hiru taldetan banatuko da, zikloka. Lehenak jolasa izango du helburu, LH1 eta LH2koendako izango dena. Bigarrena *light painting*-a izango da, argazki eta argi bitartez artea sortzeko teknikak ikasiko dituzte tailer horretan, eta LH3 eta LH4ko ikasleendako izango da. LH5 eta LH6koei begira, aldiz, konstelazioen, mikrometeoritoen eta izarren inguruko tailerra izango da Arkupen.

Ekintza guztietarako plazak mugatuak dira; hala, izena lehenbailehen emateko dei egin dute antolatzaileek; martxoaren 5etik aurrera eman daiteke.

**AURTENGO 'GAZTEKONKIS'-EN, MISTERIOZ BETETAKO PROBAK GAINDITU BEHARKO DITUZTE**

## Oporraldiko egitaraua

Izen-emateak martxoaren 5etik aurrera egin ahalko dira, ludotekan LH1 eta LH2koek, Atxagazte gaztelekuan BH1 eta BH4 artekoek eta Arkupe kultura etxean LH3 eta LH6 artekoek.

***Gaztekonkis Ihes! Argitu misterioa* (gaztelekua)**
- **Martxoak 26** 10:00etatik 18:00ak arte.
- **Martxoak 27** 10:30etik 17:30ak arte.

***Jolas-jolasien!* (LH1-LH2)**
- **Martxoak 26, 27 eta 28** 10:00etatik 13:00etara.

***Light Painting* (LH3-LH4)**
- **Martxoak 26, 27 eta 28** 10:00etatik 12:30era, gaztelekuan.

***Mikrometeoritoen tailerra, konstelazio eta izarrak* (LH5-LH6)**
- **Martxoaren 26an, 27an eta 28an** 10:00etatik 12:30era, Arkupen.

# Basotxo elkartekoek batzar nagusia dute martxoaren 9an

Udaberrirako bi bidaia iragarri dituzte: lehena, Portora; eta bigarrena, Greziako uharteetan zehar itsas bidaia

**I.B** ARETXABALETA

Martxoaren 9an batzar nagusia egingo dute –16:00etan lehen deialdia eta 17:00etan bigarrena–. 2017ari gainbegiratua egingo diote, lehenengo, eta gero, 2018ko kudeaketa plana aurkeztuko dute.

Martxoaren 21ean, ostera, osasuna izango dute berbetarako gai elkartean bertan, 17:00etan. Botikak hartzerakoan norberak dituen erantzukizunen gainean hainbat kontu azalduko dituzte Clemente Domingo eta Goizane Mendizabal Aretxabaletako erizainek. "Hitzaldi benetan interesgarria izango da; hortaz, bazkide guztiak gonbidatu gura ditugu bertara", diote zuzendaritza batzordeko kideek.

Udaberrirako bi bidaia iragarri dituzte: apirilean Portora (Portugal) joango dira, eta izena emateko epea zabalik dagoela gogorarazi dute. Bestetik, Greziako uharteetan zehar egingo duten itsas bidaiarako oso leku gutxi geratzen direla iragarri dute, eta interesa duenak Basotxo elkartekoen bulegora gerturatu beharko du.



ESTHER BARCENILLA

# Udaberriko lehenengo fasea

Zapatuan, Donostiako Karmelo Balda kiroldegian, gimnasia erritmikoko udaberriko txapelketako lehenengo fasea jokatuko da, eta bertan izango dira Aretxabaletako gimnastak.

Alebin kategoriako bederatzi gimnastak hartuko dute parte, eta lan ona egiteko asmoz joango dira bertara.

## Asteburuko zinema eskaintza haur eta helduentzat, Arkupen

Haurrentzat, *Paddington 2* pelikula izango da ikusgai zapatuan –2 euro– eta domekan –3 euro–, 17:00etan. Helduentzat, berriz, *El instante más oscuro*, 1940an girotutako drama, izango da ikusgai. Gaur, eta bihar 22:00etan, domekan, 19:30ean, eta astelehenean, 16:00etan. Asteburuan lau eurotan eta astelehenean, berriz, bi eurotan.

## Bertso afaria izango da gaur, Lujanbio eta Mendiluzerekin

Aretxabaletako Udalak, Loramendi elkarteak eta Lekaixoka bertso-eskolak antolatuta, bertso afaria izango da gaur, Aretxabaletako Hibai Gain elkartean. 21:00etarako egin dute afaltzeko hitzordua, eta, hura girotzeko, bertsolari apartak gonbidatu dituzte saiora: Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze, hain zuzen ere.



Eskoriatzako udalbatza otsaileko osoko bilkuran. IMANOL BELOKI

# Martxoaren 8ko aldarrikapenarekin bat

Euskal Udalen Elkartearen (Eudel) adierazpen instituzionala eta Irabazi Eskoriatzak aurkeztutako mozioa batuta, Eskoriatzako Udalak akordio batzuk hartu zituen otsaileko osoko bilkuran, eta Emakumeen Nazioarteko Egunarekin bat egin du

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Otsaileko osoko bilkuran tratatu zituzten gai guztietatik azpimarragarriena Irabazik gai zerrendara gehitu zuen adierazpen instituzionala izan zen. Mozio horretan, Emakumeen Nazioarteko Egunarekin bat egiten dutela adierazten duten hainbat puntu onartu zituzten, aho batez, udal talde guztiek.

Eskoriatzako Udalak honako akordio hauek hartu ditu martxoaren 8ari begira: mobilizazioetan parte hartzeko dei egiten du; bandera feminista udaletxean jarriko du; konpromisoa hartzen du sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatzeko, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzeko guneak emakumeekin partekatzeko; konpromisoa hartzen du bere eskumenen alorrean zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezen laguntzeko, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin; konpromisoa hartzen du Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatzeko; konpromisoa hartzen du balioen transmisioa azpimarratzeko, berdintasunezko gizartea lortzeko kulturaaldaketak susta daitezen. Horren harira, hau adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkateak: "Aurreko urteetan moduan, Eudeleko adierazpen instituzionala onartu dugu, eta horren arabera udal bezala jokatu. Aurten, adierazpen instituzionalaz gainera, Irabaziren mozioa genuen, eta osoko bilkuraren aurretik bozeramaileen mahaia egin dugu, eta biak batzea erabaki dugu, aho batez onartua izan dena".

**UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEK HAINBAT EKINTZA ANTOLATU DITUZTE MARTXOAREN 8RAKO**

### Martxoaren 8ko ekintzak

Gizarte Zerbitzuek antolatuta, kontzentrazioa egongo da plazan, 18:00etan; ondoren, *Frida* antzerkia izango da, 19:00etan, Zaldibarren. Eta Talogileak taldekoek kantu-poteoa antolatu dute emakumeen aldarrikapen horiek plazaratzeko.

### Deialdia, lehenbailehen

Aho batez onartu zituzten puntu guztiak, bat izan ezik. EH Bildu abstenitu egin zen garatuko diren kultur programa eta jardueretarako diru laguntzak emateko oinarrien aldaketa onartzeko puntuan. "Euskararen tratamenduaren inguruan, Estatuko delegatuak Eskoriatzarekin fijazioren bat daukan edo ez dakit, baina behin eta berriz ari zaigu zirikatzen, eta kontu handiz idatzi beharreko oinarri batzuk dira, bestela epaitegietara-edo pasa gaitezke... Hori egokitzeko, gure helburua da ahalik eta lasterren deialdia egitea.



Astelehenean, kultura etxean, Euskaraldiaren prozesua antolatzeko lehen bilera. I.B

## Euskaraldiaren prozesurako batzordea osatzen ari dira

Astelehenean egin zen lehenengo bilera irekia; bigarrena, berriz, martxoaren 12an izango da

**I.B** ESKORIATZA

Euskaraldiaren prozesua antolatzeko lehenengo saioa astelehenean egin zuten hainbat herritarrek kultura etxean. Topaguneko Mikel Ozaita eta Euskaraldiko sustatzaile Rita Aldabatreku izan ziren moderatzaile lanetan, eta bertan, hogei lagun inguru batu ziren, Eskoriatzan, Euskaraldiari begira, talde motorra antolatzeko saioan. Horren helburua da Udalarekin elkarlanean ekimena aurrera eraman nahi duen herritar taldea osatzea.

"Kike Amonarrizek otsailaren 16an Zaldibar antzokian emandako hitzaldiaren ostean, Euskaraldiaren prozesuan konpromisoa hartu nahi duten hainbat herritar izan ziren lehen lansaioan, eta primeran joan zen. Kronograma bat egin genuen Euskaraldia sustatuko duen programari begira. Antolaketa eta funtzio banaketa egin genuen; Eskoriatzan norbanako bakoitzak zein ardura hartuko dituen, nola antolatuko den taldea... ", adierazi du Rita Aldabatrekuk, Euskaraldiko sustatzaileak.

### Bigarren saioa, hilaren 12an

Bigarren saioa, berriz, martxoaren 12an egingo dute, 18:00etatik 20:00etara bitartean, kultura etxean, eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Lehenengo bileran jasotakoak oinarri hartuta, komunikazio plana prestatuko dute bigarren saioan, eta, hain zuzen ere, Euskaraldia gauzatuko den egunetan eta ordura arteko egunetarako ekintzak prestatuko dituzte. "Bigarren saioan, Euskaraldia Eskoriatzan nola antolatu irudikatuko dute partaideek. Herrian egingo diren urratsak zeintzuk izango diren erabakiko dugu, besteak beste".






Eskoriatzako areto futboleko senior taldea, partidu baten aurretik. IMANOL SORIANO

# Senior mailakoek liderra hartuko dute, etxean

Eskoriatzako areto futboleko emakumezkoek, denboraldia amaitzeko sei partiduren faltan, liderrari irabazi nahi diote, orain arteko emaitza txarrei buelta emateko. Partidua zapatuan izango da, Manuel Muñoz kiroldegian, 16:30ean

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako areto futboleko senior mailakoek Lauburu Ibarra taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak, zapatuan, Manuel Muñozen, 16:30ean. Aurkariak liderrak dira, eta Eskoriatzako neskek irabazi beharra daukate, azken boladan izan dituzten emaitza txarrei buelta emateko.

Honela adierazi du Ander Romero entrenatzaileak: "Azken partidua Idiazabalen –bigarrena sailkapenean– aurka jokatu genuen, etxetik kanpora, eta, 3-1 galdu arren, taldea sortu zenetik jokatu dugun partidu onena izan zen; beraz, liderraren aurka garaipena lortzeko prest irtengo gara kantxara".

**Berdinketa hausteko partidua**

Txapelketan zazpi talde daude lehian, eta hiru itzuli egiten dituzte denboraldian zehar. Hain zuzen ere, lehenengo itzulian, 2-1 irabazi zuten, etxean, Eskoriatzako neskek, Lauburuven aurka. Bigarren itzulian, 4-1 galdu zuten kanpoan, eta asteburu honetako partidua berdinketa haustekoa izango da. Sei jardunaldiren faltan, puntuak behar ditu etxeko taldeak, sailkapeneko lehen lau postuen barruan geratzeko, eta hori izango da hemendik eta denboraldi amaierara begirako erronka nagusia.

**Bigarren buelta eskasa**

Senior mailakoak lidergoan izan dira denboraldi honetan, baina bigarren itzuli txarra egin dute; izan ere, bi puntu bakarrik batu dituzte tarte horretan. Hala ere, taldea sendo eta gogotsu dagoela adierazi du Ander Romerok: "Txapelketako talde onenen aurka hobeto jokatzen dugu txarragoen kontra baino. Horrez gain, astean zehar, entrenamenduetan oso ondo ikusten ditut taldekideak, baina partiduetan ez gara oso fin aritzen. Edozelan ere, denboraldia bukatu arte, gogo guztiarekin arituko gara lanean".

**SAILKAPENEKO LEHEN LAU POSTUEN ARTEAN GERATZEA DA DENBORALDIKO ERRONKA NAGUSIA**

**Euskal Ligakoak, garaipen bila**

Euskal Ligako Eskoriatzako gizonezkoek, berriz, Mahastiak Labastidaren aurka jokatuko dute, emakumezkoen partidua amaitzen denean, 18:30ean. Azken bi jardunaldietan garaipena lortu dute, eta aurkaria talde zaila izan arren, hiru puntuak eskuratzera irtengo dira.

**Gazteak ikusteko, autobusa**

Ohorezko gazteek Valle del Ebro taldearen aurka jokatuko dute, zapatuan, Logroñon, 16:30ean. Eta autobusa antolatu dute bertara joan nahi duenarentzat. Informazio gehiago, 646 94 28 66 telefonora deituta.

# "Odola emateak ez du minik ematen, eta ez da arriskutsua"

**MAIDER BENGOA** ESKORIATZAKO ORDEZKARIA

Odol-ateratzeak egingo dituzte martxoaren 9an, plazan

**I.B** ESKORIATZA

Arabako Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko autobusa izan zen atzo, Eskoriatzan, 16:30etik 20:15ak arte. Gainera, martxoaren 9an ere ordu berean izango da autobusa, plazan.



Maider Uribe. GOIENA

**Zenbatean behin etortzen da autobusa Eskoriatzara?**

Urtean hiru aldiz etortzen dira, gutxia gorabehera, hilabete hauetan; otsailean, ekainean eta urrian.

**Eskoriatzarren parte-hartzea nolakoa da?**

Normalean, 60 bat lagun gerturatzen dira autobusera, bi egunak batuta. Nik pertsona gazteen falta sumatzen dut asko Eskoriatzako kasuan. Urteetan odol emaileak direnak joaten dira normalean, eta pertsona bat edo bi berri izaten dira lau hilabetean behin.

**Odola ateratzera doanak zer da jakin behar duena?**

Nortasun agiria derrigorrez eraman behar da, 18 eta 65 urte artean izan behar dira, 50 kilo baino gehiago pisatu behar da, eta odola emateko aldia hiru hilabetekoa da gizonezkoetan eta lau hilabetekoa emakumezkoetan. Bertara heltzean, test formatuko galdera batzuk betetzen dira, medikuarekin kontsulta motz bat izaten da, eta ondoren, odola ematera pasatzen zara. Hain zuzen ere, guztira, 30 minutu inguru behar dira. Gogoratu: odola emateak ez du minik ematen, ez da arriskutsua, eta medikuak espezializatuak dira.

**Zein da behar gehien duen odoltaldea?**

Gehien behar den odol mota ez dakit zein den. Suposatzen dut ospitaleetako beharren araberakoa izango dela.

## GORA ETA BEHERA



IMANOL BELOKI

### Pinu-beldarraren izurritea

Habia zuriz beteta daude Eskoriatzako pinudiak. *Thaumetopoea pityocampa*, prozesionari edo pinu-beldarra, sekulako kalteak eragiten ari da, eta pinuak ihartzen ari dira.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

# Haurrentzako udaberriko oporraldia prestatu dute

Txirikila Aisialdi Elkarteak eta Eskoriatzako Udalak, elkarlanean, udaberriko oporretarako haurrentzako ekintzak antolatu dituzte. Horrez gain, nerabeentzat, Eskoriatzako gaztelekuak, Aretxabaletakoarekin batera, 'Gaztekonkis' antolatu du

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak eta Txirikila Aisialdi Elkarteak elkarlanean, Aste Santuko lehenbiziko egunetarako, haurrentzako aisialdi eskaintza programa berezia antolatu dute, egun horietan oporrez disfrutatzeko. Hala, kirol ekintzak, sukaldaritza, igeriketa, jolasak, erronkak eta gisa horretako ekintzak egingo dituzte.

**Haurrentzako oporraldia**

Oporraldia 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago (LH1etik LH6ra bitartekoak), eta 10:00etatik 13:00etara bitartean gauzatuko dira ekintzak, Fernando Eskoriatza plazatik abiatuta. Izen-ematea kultura etxera edo Tortolis ludotekara joanda egin beharko da, honako ordutegi honetan: kultura etxean 09:00etatik 14:00etara eta Tortolis ludotekan 17:00etatik 19:00etara, astelehenetik egubakoitzera bitartean. Izena emateko epea martxoaren 5etik 20ra bitartekoa da, eta, horretarako, izen-emate fitxa beteta eta inskripziorako diru-sarrera fitxa beteta eraman beharko dira. Bi fitxak ludotekan edo kultura etxean eskuragarri izango dira, eta oporraldirako prezioa 20 eurokoa da haur bakoitzeko.



Tortolisen, sukaldaritza tailerra. GOIENA

**Iazko dinamika bera**

Maialen Lete Tortolis ludotekako begiraleak adierazi duenez, iazko dinamika bera erabiliko dute aurtengo oporraldirako. "Iaz haurrek eman ziguten erantzuna kontuan hartuta, dinamika bera erabiliko dugu, baina ekintzak herrian zentratuta egongo dira".

**'Gaztekonkis', misterioz beteta**

Aretxabaleta eta Eskoriatzako gaztelekuek elkarlanean, berriz, nerabeentzako abentura lehiaketa antolatu dute, *Gaztekonkis* izenekoa, aurtengoa misterioz beteta egongo dena. Martxoaren 26an bidaia misteriotsu bat egingo dute eta egun osoan zehar probak gainditu beharko dituzte. Hilaren 27an, berriz, Scape room erraldoia egingo dute. (informazio gehiago, 18. orrian).



Arabako mugan, elurra kentzeko kamioia erreta. GARAZI OROBENGOA

## Elurra kentzeko makina bat erre da Gatzagan, Arabako mugan

Eguaztenean 06:10ean hartu zuen su elurra kentzeko kamioiak, eta 07:00etarako itzali zuten

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Eguaztenean, elurra egin zuen bailarako herri guztietan, eta, ohikoa den moduan, Leintz Gatzagan ere zuritu zuen. Errepidea ez zegoen egoera onean, baina bertatik pasatzen ziren autoei gertatu beharrean, elurra kentzeko kamioi batek izan zuen ezusteko handiena. Izan ere, Gipuzkoa 627 errepidean, Arabako muga baino lehen, Iñurritxa baserri ondoan, su hartu zuen elurra kentzeko Diputazioaren makina batek.

Gertaera goizaldean izan zen, 06:10ean, et,a Ertzaintzaren arabera: "Auto ilara batzuk izan ziren ordu hartan, baina suhiltzaileek 07:00etarako sua itzalita zeukaten, eta elurra kentzeko kamioia baztertuz zirkulaziorako azkar batean ireki zuten berriro bidea. Ez zen zauriturik izan".

**Eskolako umeak, etxean**

Leintz Gatzagako eskolako haurrak, berriz, Luis Ezeiza Herri Eskolara jaisten dira eguaztenetan, baina, elurraren ondorioz, errepidea itxita egon zen, eta autobusa ezin izan zen igo; beraz, haurrak etxean geratu ziren.



BEHEKO ERROTA MUSIKA ESKOLA

## Piano ikasleak, Andoainen

Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolako sei ikasle Andoingo piano jaialdian izan ziren pasa den asteburuan. Irakaslea Araceli Guridi da eta ikasleak, berriz; Ane Elortza, Ainhoa Ezkurdia, Sofia Casado, Maddi Gabilondo, Nerea Larrañaga eta Maren Buruña. Guztira, zilarrezko bost domina eta brontzezko domina bat eskuratu zituzten.

## 'Frida' antzerkia izango da martxoaren 8an, eguenean

Martxoaren 8an izango da Emakumeen Nazioarteko Eguna, eta, horren harira, *Frida* antzerkia izango da ikusgai, 19:00etan, Zaldibarren. Aldez aurretik, berriz, 18:00etan, elkarretaratzea izango da, plazan.

Iris Teatro konpainiaren ikuskizunak 80 minutu irauten du, doakoa da, eta gazteleraz. Humberto Robles da obraren egilea, eta, Paco Obregonen zuzendaritzapean, Rosa Martinezek hartuko du Frida Kahloren papera. Antzezteko laguntza, berriz, Fran Lasuenek emango dio, biolinarekin. Frida Kahlo festa bat da, ezta jainkosa baten bizitza, emakume baten bizitza baino ez da, festa bat, antzerki bat.



IMANOL SORIANO

## Angulak, Eugenio Otsoarentzat

Pasa den zapatuan Labidean egin zuten Deban batutako angula kiloaren zozketa Korrika Batzordeari laguntzeko, eta zenbaki saritua 647 izan zen; Eugenio Otsoa gatzagarrarena, hain zuzen ere.

Zartaginera berakatz pixka bat botata jan zituela adierazi du hark, eta ederrak zeudela gaineratu.



Aramaioko emakumeen bazkaria, iaz martxoan. GOIENA

# Hilaren 8ko aldarriarekin bat egingo du Udalak

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Aramaioko udalbatzak adierazpen bat onartu zuen pasa den asteko osoko bilkuran; besteak beste, martxoaren 8rako deituta dauden grebarekin eta mobilizazioekin bat egitea onartu zen, aho batez

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

Aramaioko Udalak bat egingo du Martxoaren 8rako mugimendu feministak deitutako grebarekin, eta "bere esku dauden erraztasun guztiak" emango ditu egun horretan nahi duten emakumeek greba egin ahal izateko, onartutako adierazpenaren arabera. Era berean, aramaioarrak mobilizazioetan parte hartzera gonbidatzen ditu. Azkenik, Udalak "bere konpromisoa berresten du parekidetasunaren bidean herritarrekin batera aurrera-pausoak egiten jarraitzeko eta zehar lerroan bere jardun guztietan parekidetasuna lantzen jarraitzeko".

Horri lotuta, Martxoaren 8an, 11:00etan, 15 minutuko elkarretaratzea egingo dute plazan. Arratsaldean, berriz, bi ekintza izango dira: batetik, 17:30ean, kafe-tertulia egongo da kultura etxean eta ondoren, 18:00etan, *Volar* filma egongo da ikusgai, Itur-zuri emakumeen elkarteak antolatuta. Bestetik, 19:30ean, aldarrikapen kalejira egingo dute kalez kale, herriko trikitilariek eta dantzariek lagunduta. Ondoren, luntxa egongo da. Bestalde, martxoaren 10ean –zapatua–, Emakumeen Bazkaria egingo dute Añai tabernan, 14:00etan. Izena emateko aukera egongo da Itur-zuri elkartearekin harremanetan jarrita: 685 76 13 43 (Carol), 679 24 37 97 (Itziar) eta 655 71 17 78 (Arantza) telefonora deituta edota *iturzuri@gmail.com* helbidera mezu bat idatzita. Izena emateko azken eguna domeka izango da –hilak 4–. Prezioa, berriz, 25 euro.

Egunari begira, Udalak herritar guztiak animatu nahi ditu etxeko balkoietan eta leihoetan amantalak zintzilika ditzaten.

**MARTXOAREN 8AN AMANTALAK BALKOI ETA LEIHOETAN ZINTZILIKATZEKO DEI EGIN DU UDALAK**

### Sahararen alde

Otsailaren 27an 42 urte bete dira Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa sortu zenetik. Urteurrena baliatuz, gaur egun herri hori jasaten ari den errepresioa salatzeko adierazpena ere onartu zen osoko bilkuran. Adierazpen horretan salatzen da, besteak beste, "saharar herria inoiz baino lotuago" dagoela "autodeterminaziorako eta independentziarako eskubide legitimoei". Horrez gain, "Maroko potentzia esplotatzailea" jotzen du "errepresioaren eta baliabide naturalen espoliazioaren" erantzuletzat. Hori dela eta, beste hainbat eskaera eta salaketa egiten dira adierazpenean.

### 'Minority Safe-Pack'

Onartutako beste adierazpena da Europar Batasunak aintzat har dezan hizkuntza gutxituei babesa emateko sortu den *Minority Safe-Pack* ekimena eta estatuei eska diezaien ekimen hori babestea eta sustatzea.



EIDER BALLINA

## Mendeurrenera iritsi da

Angeles Beitia aramaioarrak 100 urte bete zituen atzo, martxoaren 1ean. Mendeurrena ospatzeko, bere etxera gerturatu ziren Udaleko zenbait ordezkari eta herritar. Plaka bat eta lore sorta bat oparitu zizkioten. Plaka horretan, goiko argazkiaz gainera, berari eskainitako bertso bat ere bazegoen, Manex Agirrek idatzitakoa.

## Bizente Goikoetxea abesbatzak webgune berria izango du

Bizente Goikoetxea abesbatzak webgune berria aurkeztuko du bihar, zapatua, 12:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Webgune berriak abesbatzaren historia ere azalduko du modu errazean. Abesbatzak herri guztiari zabaldu nahi izan dio aurkezpenera gerturatzeko gonbita. "Ekitaldi irekia izango da, guztiok zaudete gonbidatuta".

## 'Ibabeko Bertaren bilobak' taldea finalerako sailkatu da

Pasa den asteburuan, *Bapateroak* taldeari irabazi zioten aramaioarrek, Amurrion, eta martxoaren 17an Gasteizen jokatuko den finalerako sailkatu ziren.

Bestalde, bihar, zapatua, azken finalaurrekoa jokatuko da, Sastiñan, 19:00etan. *Sumendi bete poto* eta *Errekaleor Bizirik!* talde gasteiztarrak ariko dira nor baino nor gehiago.

## Azkaiter Peloxek kontzertua eskainiko du Eki tabernan

Azkaiter Pelox talde bergararrak kontzertua eskainiko du etzi, domeka, Eki tabernan, 19:00etan. Martxoan zehar hainbat kontzertu eskainiko ditu, *Irish March 2018 -St. Patrick's* izenpean, eta domekakoa izango da lehena. Ondoren, Elgoibarren, Bergaran eta Antzuolan ere izango da. 50eko hamarkadako rythm-and-blues doinuak eskaintzen dituzte.

## Zizur Nagusiko txapelketako finala jokatuko du Olaizolak

Hitzordu garrantzitsua du Julen Olaizola pilotariak bihar, zapatua, 10:00etan. Zizur Nagusiko lau t'erdiko txapelketako finala jokatuko du Ioritz Arbaitza orozkoarraren aurka, kadete mailan.

Txapelketa ezaguna da hau; izan ere, Euskal Herri mailan dauden pilotari onentsuenek hartzen dute parte eta aramaioarra finalera iritsi da.



Elena eta Ana Mari Arrizabalaga, txapelarekin, Eki tabernan. ITZIAR AXPE

# Arabako mus txapeldun dira arrizabalagatarrak

Euskal Herriko X. Mus Txapelketaren baitan, Arabako txapela jantzi zuten pasa den asteburuan Ana Mari eta Elena Arrizabalaga ahizpek, Gopegin (Zigoitia) jokatutako finalean; martxoaren 10ean final nagusia jokatuko dute, Uztaritzen

**Eneko Azurmendi** ARAMAIO

"Primerako esperientzia" izan dela azaldu du ahizpetako batek, Ana Mari Arrizabalagak. "Ez genuen espero iritsi garen lekura iristerik. Baina sentitzen dugun poza handia da, benetan", azpimarratu du. Onartu du "sekula" ez zutela esango txapela jantziko zutenik, eta sentsazio "benetan polita" izan zela dio.

Txapelketak aurten betetzen ditu hamar urte, eta, orain arte, ez da emakumez osatutako bikote irabazlerik izan; Araba mailan, behintzat. "Horrek are gehiago pozten gaitu. Gauza handia lortu dugu", adierazi du Ana Mari Arrizabalagak.

Garaipena lortzeko gakoa "lasaitasuna" izan dela azaldu du aramaioarrak. "Oso lasai aritu gara txapelketa osoan. Ingurukoek ere esan ziguten gustatu zitzaiela nolako lasaitasunarekin egin genien aurre partida guztiei". Bestalde, ahizpak izateak ere mesede egin duela uste du. "Lagundu zigun ahizpak izateak. Batzuetan, haserretu ere egiten gara, baina finalean primeran konpondu ginen, eta hori ere irabazteko beste gakoetako bat izan zen. Pentsa, aurkariak lasaitzen ere aritu ginen", azaldu du.

Lortu duten balentria are handiagoa da, kontuan hartuta hiru urte besterik ez dela musean jokatzen hasi zirenetik. "Jubilatuen Elkarteak antolatutako ikastaro batean ikasi genuen. Bost emakume eta gizon bat hasi ginen. Gainontzeko gizonekin nahastuta, txapelketa misto bat egin genuen, eta, ondoren, etxean jokatu eta jokatu, praktika irabazten joan gara".

### 2.200 bikote inguru

Urteroko formatuari jarraituz, aurtengoan ere hiru zatitan banatu da sariketa, Euskal Herriko Mus Federazioko arduradun Raul Gartziaren esanetan. "Lehenik, herri eta auzo mailetako txapelketak egiten dira, bakoitzak bere jokatzeko modu eta araudiekin. Ondoren, probintzia mailako txapelketak izan ditugu. Azkenik, final nagusia jokatuko da, Uztaritzen", dio.

Guztira 2.200 bikote inguruk parte hartu dutela adierazi du Gartziak. "Horrek esan nahi du 4.400 parte-hartzaile direla, eta hori kopuru handia da".

### Final nagusia

Probintzietako txapelketen ostean, Euskal Herriko final nagusia jokatuko da martxoaren 10ean Uztaritzen, eta 128 bikote ariko dira nor baino nor gehiago. Probintzia bakoitzeko irabazleak eta puntuazio altuena duten beste hainbat bikote ariko dira. "Probintzia bakoitzean, partehartzaile kopuruaren arabera, bikote kopuru bat sailkatzen da finalerako. Aurten, Nafarroako 32 bikote izango dira, Gipuzkoako beste 32, Arabatik hamazortzi, Nafarroa Beheretik beste hamazortzi, Bizkaitik hamabi, Lapurditik beste hamabi eta Zuberoatik lau".

Arabako ordezkarien artean, Aramaioko bi bikote izango dira final horretan: Elena eta Ana Mari Arrizabalaga ahizpez gain, Ramon Nafarrate eta Amaia Belloso senar-emazteak ere bai.

Zaila izango dela jakitun diren arren, Ana Mari Arrizabalagak adierazi du irabaztera joango direla. "Behin haraino joanda, irabazteko ahaleginak egingo ditugu, ea zortea lagun dugun. Ikaragarria izango litzateke irabaztea. Hala ere, ondo pasatzera eta disfrutatzera joango gara".



Arrizabalagatarrak, Ramon Nafarrate eta Amaia Bellosorekin. S

## Aramaion, txapeldunorde

Urtarrilaren 21ean jokatu zen Aramaioko kanporaketa eta Ramon Nafarrate eta Amaia Belloso senar-emazteak izan ziren garaile. Elena eta Ana Mari Arrizabalaga ahizpak, berriz, txapeldunorde izan ziren. Bi bikoteak izango dira Uztaritzen, martxoaren 10ean.



NIRE USTEZ

**IKER ELEXPURU**

## Zazpi

Zazpi zenbakia magikoa omen da euskaldunontzat. Marik bere bizilekua zazpi urteko zikloetan aldatzen duela esaten da. Eta gertu denean, euria, elurra eta negu gogorrak izaten omen dira. Euskal mitologiaren misterioak…

Gure mendietako artzainek ere zazpi urteko zikloak aintzat hartzen dituztela jakin nuen, zazpi urte elurra egiteko joerarekin eta beste zazpi elur gutxiagorekin izaten omen dira. Iazko udan jakin nuen aurtengo urtea elur zikloaren lehena dela. Datozen sei urteetan gure baso, mendi, zelai eta herriak zuriz maiz jantzita ikusiko ditugu.

Negu honetan bizitako euri eta elur kopurua ikusita, sinisten hasia nago. Herri jakinduriak berea duela aldean… urteetan eta mendeetan zehar zeruari begira jasotakoa egia ote?

Denborak esango digu gure sinesmenek eta gure herri jakinduriak oinarririk duten edo ez.

Bitartean, elurraren zuritasunaz, beltztasunaz, magiaz gozatuz jarraituko dugu. Goizean jaiki eta dena zuri eta elurrez jantzia ikustean gure barruan sortu ohi den poz, su eta energiaz beteko gara.

Eskerrik asko, Mari!

## Herriko zenbait gurasorekin bilera egin du Udalak

Azken hilabeteotan apurketak eta kalte ugari izan dira herrian. Udalaren esanetan, "hainbat kasutan, egileen eta hirugarren pertsonen segurtasuna ere arriskuan jarri da". Udalak dio 8-14 urteko haurrak ikusi dituela gertaera horien atzean. Beraz, gurasoei informatzea, kezkak konpartitzea eta segurtasuna bermatzea izan da helburua.

Debagoieneko
# OSASUN ZERBITZUAK

## DENTISTAK

**ADUR HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

**ALBERDI MIREIA**
Bergara / Masterreka kalea 11, behea
943 76 33 99 / 646 43 34 58

**BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira

# Berdintasunerako bidea azkartzeko mobilizazioak

'Emakumeok planto' lelopean mugimendu feministak Martxoaren 8rako deitu duen grebaren bueltan hainbat ekintza antolatu dira eragileen arteko "elkarlanean" oinarrituta; udalbatzak aho batez onartu zuen asteleheneko osoko bilkuran deialdiarekin bat egitea

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Bergarako Martxanterak talde feminista aspalditik ari da Emakumeen Nazioarteko Eguna prestatzen, greba deialdi berezia izango delako: "Emakumeak ez bagaude, mundua gelditzen dela irudikatu nahi dugu etxean, lanean eta kalean. Ez da greba arrunta izango, ez gara fabrikak hutsik dauden edo ez begira jarriko bakarrik: herriz herri sortuko diren ekintzekin osatuko da, eta mobilizazioak beste aldarrikapen batzuekin uztartuko dira. Greba honi heltzea erronka potoloa den arren, prozesu bezala ulertzen dugu".



Maitane Azkarate, Maite Agirre eta Ilargi Etxeberria, atzoko agerraldian. A. EZKIBEL

Martxanterek emakume bergararrei zaintza eta ugalketa lanak ez egitera, besoko morea janztera eta balkoietan nahiz leihoetan amantalak eskegitzeko dei egin diete, besteak beste. "Era berean, ez kontsumitzeko deia ere egiten dugu: bereziki enpresa eta merkataritza gune handiak saihestuz, azken horiek baitira lan esplotazioaren eta baliabideen ustiaketa basatiaren ikur esanguratsuenetakoak. Bizilagunak, amonak, amak, alabak, lankideak, lagunak… amantalak balkoira atera eta kalean bilduko gara", gaineratu dute.

**Udalbatzak bat, aho batez**

Udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran bat egin zuen, aho batez, *Emakumeok planto* lelopean mugimendu feministak martxoaren 8rako deitutako grebarekin. Udal Gobernuak atzo eman zuen "elkarlanean" antolatu diren ekintzen berri; Martxanterekin, Bedelkarrekin, Goienagusirekin eta Zinegoak ekimenarekin batera antolatu dute egitaraua. "Elkarlana ezinbestekoa da berdintasuna guztion esparrua delako". Gainera, berdintasun zinegotzi Maite Agirrek Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko Kontseilua eratu izana nabarmendu zuen: "Kontseilua eratzea aurrerapauso handia da Bergararentzat, izan ere, bertan landuko diren gaiak aholku moduan jasoko ditu gobernuak Udalean eta herrian aplikatzeko".

**Orri-markatzaile bereziak**

Bedelkarko presidente Maitane Azkarateren arabera, herriko merkatari elkarteak "oso argi" izan du hasieratik ekimenean parte hartuko zuela: "Guztion erantzukizuna da; guk, saltokien eta bestelako zerbitzuen sare handia daukagu eta berdintasuna ikasi eta berdintasunean bizitzeko mezua herritar askori helaraziko diogu".

Hurrengo astean helduko dira orri-markatzaile bereziak; saltokietan eta Udalaren eraikinetan banatuko dira; orri-markatzaile horietan, egitaraua, kanpainaren leloa –*Berdintasuna ikasi, berdintasunean bizi!*– eta emakumeek idatzitako esaldiak daude. Bost ezberdin egin dira, duela hainbat urte ateratako bost emakume bergararren argazkiekin ilustratukoak.

## Ekitaldi aipagarrienak

**Martxoak 3, zapatua**
- **10:00** Oxirondon elkartu ostean, Elorregira martxa. Eraman beharrekoak: amantalak, pankartak, besoko moreak…

**Martxoak 7, eguaztena**
- **20:00** Zinegoak film labur sorta, Zabalotegin.

**Martxoak 8, eguena**
- **11:00-15:00** Lanuzteak.
- **12:00** Elkarretaratzea San Martin plazan.
- **13:00-15:00** Elkar lapikoa ekimena San Martin plazan, norberak bazkaria etxetik eramanda.
- **18:00-22:00** Lanuzteak.
- **18:00** Mahai-ingurua plazan: *Amantalak plazara.*
- **20:00** Manifestazioa San Martin plazatik abiatuta.

**Martxoak 9, eguena**
- **19:00** Martxanterak talde feministaren erakusketaren irekiera, Aroztegi aretoan. Hilaren 25era arte ikusgai.

**Martxoak 13, martitzena**
- **18:30** Berdintasuneko Kontseiluaren lehen bilera, Irizar jauregian.

# 75 urteotako historia soziala kontatzera datorren lana, gertu

Pol-Polen azken 75 urteen errepasoa egiten duen liburua hilaren 17an aurkeztuko du Miguel Angel Elkoroberezibarrek

**J.B.** BERGARA

Martxoaren 17an aurkeztuko du –udaletxean, 12:30ean– Miguel Angel Elkoroberezibarrek Pol-Pol Mendizale Taldearen gaineko liburua: *Pol-Pol M.T. Bergarako historia sozial bat. 1942-2017*. Egileak aurreratu duenez, testigantza ugari eta garai ezberdinetako argazkiak bilduz, Pol-Pol Mendizale Taldearen 75 urteko historiari errepasoa egiten dio liburuak, hamarkada bakoitzeko ekimen nagusiak azpimarratuz.

Iaz bete zituen Pol-Polek 75 urte, eta, hasierako asmoa liburua urtea bukatu aurretik publikatzea bazen ere, nahi baino gehiago atzeratu da: "Uste baino konplexuagoa izan da dokumentazio prozesua. Zenbat argazki, zenbat dokumentu, zenbat elkarrizketa… Luze jo du, baina oso aberatsa eta ederra izan da. Elkarrizketatu bakoitzak begietan zuen distira ikusteagatik bakarrik merezi izan du ordu luzeetako lan honek. Pol-Polen aitzakiarekin, Bergarako azken 75 urteotako historiaren parte bat protagonisten euren ahotik ezagutu dut eta pribilegiatua sentitu naiz", dio Elkoroberezibarrek.



1968ko maiatzaren 12ko Finalista Eguna, San Martzialen. SERAFIN ESNAOLA

**Hainbat tokitan egongo da salgai**

Liburua aurkeztu ostean, Mizpildi okindegian (Matxiategi), Subijai dendan (Irizar pasealekua), Onena tindategian (Barrenkale), Depor tabernan (Bidekurutzeta), kultura etxean (Errotalde Jauregia) eta Pol-Polen egoitza berrian –San Pedro kaleko 10. zenbakian– jarriko dira salgai, 15 eurotan.

# Giza katea aurkeztuko du Gure Esku Dagok martxoaren 10ean

Ekainaren 10erako Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen giza katea antolatu du aurten bost urte beteko dituen Gure Esku Dago ekimenak. Bada, horren berri emateko eta giroa berotzen joateko, Bergaran aurkezpena egingo dute martxoaren 10ean; Irizar jauregian, 12:00etan. "201,9 kilometrotan, 100. 000 lagun baino gehiago eskuz esku, arrazoiez betetako zapiekin batuko dituen giza-katea. Bergarari bi kilometro egokitu zaizkio Maltzaga inguruan. Etorriko zara, ezta?", diote. Irizarreko aurkezpenaren ostean, mura berria margotuko dute Irala kalean eta, aurreratu dutenez, jatekoa, edatekoa eta musika ez da faltako.



Xaxau, Martxanterak, ELA, LAB, EH Bildu eta Irabaziko ordezkariak elkartu ziren hitzaldi zikloko azken saioan. ESKOLA HERRITARRA

# Ezkerra biziberritzeko, "elkarlana ezinbesteko"

Bergarako Eskola Herritarra hitzaldi zikloaren azken saioan parte hartu zuten eragileen ondorioetako bat izan da datozen asteetan euren arteko elkarlana sustatzeko "bilgune edo dinamika bat" sortu beharra dagoela; lehen edizioarekin oso pozik daude antolatzaileak

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Bergarako Eskola Herritarra hitzaldi zikloaren lehen edizioko azken saioa egin zen martitzenean Irizar jauregian. Esperientzia pilotu moduan abiatu zuten Sortuk eta Iratzar fundazioak, eta, zikloak orokorrean izan duen harrera ikusita, gehiago antolatuko dituzte. Hain justu, antolatzaileek gurako lukete urtean bi ziklo antolatzea. Hain zuzen, herriko Xaxau jai herrikoien konpartsako, Martxanterak talde feministako, ELAko, LABeko, EH Bilduko eta Irabaziko ordezkariak elkartu ziren.

### Herriko gaietan, "adostasuna"

Antolatzaileak oso pozik daude saioak izan zuen harrerarekin, baina, bereziki, saioan atera zituzten ondorioekin: "Politika orokorraren arloan ikuspegi ezberdinak izan arren, herri mailako gaietan adostasun handia dugu parte hartu genuen ezkerreko eragileok. Hori bai, elkarlana sustatzea ezinbestekoa izango da". Hain justu, elkarlan hori sustatzeko, datorren asteetan ahalik eta norbanako eta eragile gehien elkartuko dituen "bilgune edo dinamika" bat sortu gura dute: "Horretarako gogoa, beharra eta ilusioa badaudela igarri genuen".

### Eragileen aldarrikapenak

Talde bakoitzak aurkezpen txiki bat egin zuen. Xaxauk jai eredu parte hartzaileen, herrikoien, euskaldunen eta bertako produktuak sustatzearen aldeko aurkezpena egin zuen. Ondoren, Martxanterek hartu zuten hitza, eta, Martxoaren 8aren bueltan antolatutako ekintzen berri emateaz gain (ikus 25. orria), berdintasunerako bidea feminismotik eraiki behar dela aldarrikatu zuten; emakumeek arlo guztietan jasotzen dituzten zapalkuntzak aipatzeaz aparte, emozioak eta zaintza lanen ondorioak izan zituzten hizpide, besteak beste.

**ESKOLA HERRITARRA: "HERRI MAILAKO GAIETAN ADOSTASUN HANDIA DUGU PARTE HARTU GENUENOK"**

### Gobernua berreskuratu "beharra"

ELA eta LAB sindikatuek langileek bizi duten prekarietatea eta Bergaran bereziki industriak bizi duen egoera larriaren berri eman zuten: "Lana gero eta prekarioagoa da, eta industrian galdu diren lanpostuak nekez errekuperatuko dira. Gainera, enpresa txikien egoera ere oso kaskarra da".

Amaitzeko, EH Bilduk eta Irabazik azpimarratu zuten udal barruan elkarlanerako joera badutela, baina salatu zuten Udal Gobernuak (EAJ-PSE-EE) edozein proposamen atzera botatzen duela. Hala, hurrengo hauteskundeetan Gobernua berreskuratzea "ezinbestekoa" izango dela uste dute, herri ekimenak garatzeko.



Aranzadi Ikastolako ikasleak Glaukomako abeslari Juantxo Arakamarekin. OIHANE ISASI.

## Aranzadiko ikasleak, Glaukoma taldeko Juantxo Arakamarekin

Bogan dagoen taldeko abeslariari elkarrizketa Goiena telebistan ikusgai martxoaren 2an (22:30) eta 9an (23:00)

**J.B.** BERGARA

Aranzadiko ikastolako Garazi Bizente, Haizea Bengoa eta Lander Uribesalgo ikasleek Glaukomako abeslari Juantxo Arakama elkarrizketatu dute *Galdegazte* saioan. 2017a oso indartsu amaitu zuen Glaukomak eta 2018a are indartsuago hasi du. "*Kalima* diskoa egiteko denbora asko behar izan genuen eta egindako lan handi hori zuzenean aurkezteari emango diogu lehentasuna; aurten ez dugu espero lan berririk kaleratzea. Uda berezia izango da; kontzertuak aldatu nahi ditugu, errepertorioari buelta bat eman, dantzara gehiago jo...". Azken kontzertuetako sarrera guztiak agortuta, talde tolosarrak ez zuen halako harrerarik espero: "Ez genuen imajinatu ere egingo horrenbeste jende etorriko zenik gure kontzertuetara". Hala ere, arrakasta *Kalima* diskoa bera kaleratu izana da Arakamarentzat: "Oihartzuna gero etorri da, baina, guretzat, abesti horiek egitea eta kaleratzea izan da arrakasta".

*Galdegazte* saioko elkarrizketa osorik ikusi ahalko da martxoaren 7an (21:30) eta martxoaren 9an (23:00), Goiena telebistan.

### Adinekoen erorikoak prebenitzeko tailerrak hilaren 13an eta 15ean

Erorikoak izan ohi dira 65 urtetik gorakoengan lesio eragile nagusiak, eta arazo hori prebenitzen laguntzeko tailerra antolatu dute Udalak eta Osakidetzak, bigarren aldiz, Agorrosinen; martxoaren 13an eta 15ean izango dira eta lehenbailehen eman beharko da izena, Agorrosinen (943 77 70 95) edo osasun etxean (943 03 54 00). Saio teorikoak eta praktikoak izango dira eta arropa erosoa eramatea gomendatu dute. Hainbat gai landuko dira: erorikoek dituzten arriskuak; elikagaien, oinetakoen eta arroparen garrantzia; nola erori eta erori ondoren nola jaiki; ortopedia euskarriak, telelaguntza...

## OHARRAK

### Erramu Zapaturako talo postuak

Martxoaren 24an San Martin plazako eta seminarioko patioko talo postuak esleituko dizkio Udalak herriko irabazi asmorik gabeko elkarte bati. Eskaerak martxoaren 7a baino lehen entregatu behar dira udaletxean (13:00).

### Trakzio mekanikoko ibilgailuak: zerga

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 25ean bukatzen da. Egun horretatik aurrera, errekarguarekin eskatuko du Udalak.



Elena Lete alkatea eta Hirigintza teknikari Edu Alvarez, San Antonio auzoko plaza berria egokituko den orubean, atzo. IMANOL GALLEGO

# Urbanizazio berria gertu San Antonio egunerako

Gaur egungo belardian plaza berri bat egiteko, hamar aparkaleku berri sortzeko eta irisgarritasuna hobetzeko lanak martxo erdialdean hasiko dira eta, dena ondo bidean, obra guztia ekainaren 13an ospatuko den San Antonio egunerako amaituta egongo da

**Jokin Bereziartua** BERGARA

San Antonio auzoko 2. eta 10. atarteen arteko orubean urbanizazio lanak egingo ditu Udalak. Iaz auzotarrekin batzartu eta gero, egun belardi bat dagoen tokian 400 metro koadro baino gehiago izango dituen plaza bat egiteaz gain, auzorako sarrera den puntu horren irisgarritasuna ere hobetuko da.

**Martxoan hasi, ekainean bukatu**

Duela 20 urte, Udalak Canalejas taberna zegoen eraikinaren erosketarekin hasi zuen orube horri erabilera berri bat emateko proiektua. Hurrengo agintaldietan gainontzeko eraikinak erosi eta bota ondoren, orain, orubea urbanizatuko da. Lanak martxo erdialdean jarriko dira martxan, eta, dena ondo bidean, ekainaren 13an ospatuko den auzoko jaietako San Antonio eguna baino lehen bukatuta egongo dira.

Atzoko egindako agerraldian, alkateak berebiziko garrantzia eman zien iaz auzotarren partetik jasotako ekarpenei: "Udalaren asmoa da udalerri guztian hobekuntzak egitea, herritarron bizi-kalitatea hobetzeko eta irisgarriagoa zein erosoagoa izango den herri bat eraikitzeko. Horretarako, ezinbesteko giltza da herritarrak entzutea. Hala egin dugu oraingoan ere, eta ziur gaude emaitza denon gustukoa izango dela. Laster izango da guztion begi bistan".

Hala, oinezkoen ibilbidea orube horren erditik bideratuko da; autoentzat gaur egungo sei aparkalekuei hamar aparkaleku berri gehituko zaizkie eta bizikletak aparkatzeko gune bat ere egokituko da. Horrez gain, zebrabidea altxatu eta zabalera emango zaio; farmazia paretik abiatuta biribilguneraino errepidea asfaltatuko da eta argiteria guztia berrantolatuko da.

**Aurrekontua: 104.786 euro**

Udalak Zetabi Arkitektura Bulegoari eskatu zion proiektua idaztea, eta behin proiektua idatzita, obra esleitu da dagoeneko. 104.786 euroko aurrekontua izango du, eta Siesca Construccion y Servicios SA eta Bezel Eraiketa eta Zerbitzuak SL enpresek osatutako Aldi Baterako Enpresa Elkarteak (ABEE) egingo ditu.

## GORA ETA BEHERA



X.U.

### Negu gorrian ere, loretegiak eder-eder

Herritar batek txalotu gura izan du herriko berdeguneak, oro har, oso egoera onean daudela. Negu gorria egin arren, lorategietako mantentze-lanak goraipatu ditu; Palmerakoa, kasu.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

### Iker Galanen aldeko txartelak Bedelkarko dendetan daude salgai

Gaixotasun mitokondriala duen Iker Galan ume bergararraren aldeko zozketa antolatu du Bedelkarrek eta dagoeneko txartelak salgai daude merkatari elkarteko parte diren dendetan. Txartel bakoitza euro baten ari dira saltzen eta bi sari banatuko dituzte: asteburu baterako egonaldia –gosaria barne– eta 150 euroko bonua Bedelkarko dendetan gastatzeko. Jasotako diruaren zati bat AEMPIra –patologia mitokondrialak dituzten gaixoen elkartea– eta beste bat Galanen familiara bideratuko da. "Biziki eskertuta gaude herriko dendarien izan duten elkartasun keinu eder honekin", adierazi du Iker Galanen amak.

### Txorimalo erakusketan izena emateko aukera dago dagoeneko

**Goiena komunitatea**

Jardun elkartea / BERGARA

Erramu zapatu egunean txorimalo erakusketaren 24. aldia ospatuko dugu; Ibargarai kalean jarriko dugu erakusketa, 11:30etik 13:00etara. Izena emateko deitu 943 76 36 61 edo 605 712 469 telefono zenbakietara, edo *gaztejardun@topagunea.com* helbidera idatzi. Nahi duenak har dezake parte erakusketan, bakarka zein taldeka, eta partaide guztiek sariak jasoko dituzte. 12 urtetik beherakoendako askari bat egingo dugu maiatzaren 4an; eta, 12 urtetik gorakoen arten hainbat sari banatuko ditugu. Txorimaloak ikusgai egongo dira azokan, martxoaren 24tik apirilaren 8ra.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

# Urte berriari begira, heziketa erdigunean

Denboraldi berrirako kirol proiektua aurkeztu du Lokatza ziklismo taldeak. Hain zuzen, entrenamenduak, diziplina eta laguntasunean oinarritutako heziketa dituzte erronka. Eta, tartean, iragarri dute bertan behera utzi dituztela Bergarako bi bizikleta proba

**Iker Oñate** BERGARA

Denboraldi berrirako egitasmoa aurkeztu du Lokatza ziklismo taldeak. Eta jada finkatuak dituzte helburuak: entrenamenduak, diziplina eta laguntasunean oinarrituriko heziketa. Hala, horien bueltan antolatuko dute hemendik aurrerakoa. "Bizikletak eskaintzen dituen balioekin hezi gura ditugu Bergarako, Antzuolako eta Elgetako txirrindulariak", azaldu du Jon Unamunok, Lokatza taldeko presidenteak. Eta ez dute lehia baztertuko: urtean zehar antolatzen diren zenbait lasterketetan esku hartuko dute –tartean dira Lokatzak bultzatutako hitzorduak–. Aurten, lau txirrindularitza proba izango dira Bergaran.



Lokatzako kideak, zapatuan egindako aurkezpen ekitaldian. IMANOL SORIANO

Zapatuan aurkeztu zuten egitasmo berria, Bolintxo lantegi aurrean. Eta aurtengo kirol proiektua osatzen duten txirrindulariek esku hartu zuten hitzorduan. Denboraldi berriari ekiteko "gogoz eta ilusioz" ziren horiek. Gainera, zenbaitek ez zuten luze itxaron beharrik izan: kadete mailakoek zapatuan bertan ekin zioten denboraldiari, Ibaetako txirrindularitza proban –20 kilometroko ibilbidea du–. Bost txirrindularik jardun zuten bertan –zazpi dira, guztira–, eta taldeko kideak "gustura" dira bertan erakutsitako mailarekin.

**Harrobia erdigunean**

Ohi moduan, harrobia dute erdigunean Lokatzakoek. Eta, hori horrela, hainbat kategoriatan izango dituzte taldeko ordezkariak: benjamin –Aimar Osa, Markel Eguren, Ion Martin eta Aitor Markiegi–, alebin –Ekaitz Labaien, Ibai Igarza, Ekhi Larrañaga, Iosu Garitano eta Ekhi Amuategi–, infantil –Liher Eguren, Auritz Arantzabal, Xabier Mugika, Oxel Minguez, Aratz Arenaza eta Unax Errasti– eta kadete –Markel Oregi, Iker Ugarte, Ibai Unamuno, Mikel Gallastegi, Julen Prieto, Unai Zenitagoia eta Lander Uribesalgo– mailetan izango dira Lokatzako txirrindulariak. Hori horrela, lantalde sendoa dute Lokatzakoek.

Eta, aurrekoez aparte, mendi bizikleta jaitsieretan ere zenbait ordezkari izango ditu ziklismo taldeak. Hain zuzen ere, Manu Castro, Ibon Odriozola, Jon Larrea, Jon Fernandez, Unai Larrea eta Mikel Fernandez txirrindulariak dira horiek. Hala, aurrera begira jarriak dira dagoeneko, etortzeke dauden lasterketetarako prestatzen.

## Bi lasterketa gutxiago

Aurten, bi bizikleta proba gutxiago eskainiko ditu Lokatzak. Hain zuzen ere, bertan behera utziko dituzte Labegaraietako gazte mailako proba eta Mendekosteetako lasterketa. Denboraldiak dakarren "lan pilaketa" jarri dute erdigunean: "Lan asko egin beharra dago taldeak bere bidea jarrai dezan –administrazioa, diru laguntza eskaerak...–. Ez da edonolako zeregina. Are gehiago: gaur egun asko sakondu beharra dago halako arduretan, zaildu egin baita lan administratiboa. Horrenbestez, ezin gaitezke guztia egitera heldu". Gaur-gaurkoz, bost kidek dihardute halako ardurekin.

Hori, ez da edozelako albistea txirrindularitzaren munduarentzat. "Txirrindularitzak ibarrean duen zaletasuna ikusirik, pena da karteldegian bi txapelketa gutxiago izateko erabakia hartu behar izatea. Baina ez dugu beste erremediorik izan", argitu du Jon Unamunok, Lokatza taldeko presidenteak.

Gauzak horrela, aurtengoan lau izango dira Bergaran egingo diren txirrindularitza probak. Zehatz esanda, Gorlara igoera –martxoak 25–, Labegaraietako eskolarren lasterketa –apirilak 21–, Emakumeen San Martzialera kronoigoera –ekainak 15– eta San Antonio Saria –ekainak 17– izango dira aurtengo hitzorduak. Eta, orain, buru-belarri dihardute horiek antolatzen.

# Uribe eta Zubizarreta, Soraluze txapelketako lehen finalistak

Lau t'erdiko Soraluze pilota txapelketako lehen bi finalaurrekoak jokatu dituzte martitzenean

**I.O.** BERGARA

Soraluze pilota txapelketak baditu bi finalista; lehen finalaurrekoak jokatu dira martitzenean, Bergarako Udal Pilotalekuan. Hain zuzen ere, promesen eta nagusien kategorietako pilotariek jardun zuten nor baino nor gehiago, lau t'erdiko txapelketako finalean jarduteko txartela eskuratu guran. Hala, Uribe –promes maila– eta Zubizarreta –nagusien kategoria– izan ziren garaile, nor bere kategorian.

Hain zuzen, Iriarte eta Uribe pilotarien artekoa izan zen arratsaldeko partidu lehiatuena; eta, azkenean, bigarrenaren alde egin zuen balantzak: 22-19. Esan moduan, pare-parean jardun zuten bi pilotariek, inork ihes egin ezinda. Eta, halakoetan, hutsegiteek erabaki ohi dute lehia. Hala gertatu zen: zortzi huts egite izan zituen Iriartek; eta lau, Uribek.

Bestetik, nagusien kategoriakoa izan zen arratsaldeko beste partidua; Labaka eta Zubizarreta ziren lehiaren protagonista. Horiek, ordea, ez zuten horren partidu orekatua eskaini. Izan ere, gogor hasi zuen partidua Zubizarretak: 8-0 aurreratu zen markagailuan –sakez egin zituen lau tanto–. Eta, ostekoan, ez zen apartekorik izan. Partidu bukaeran 9-22 zioen markagailuak; Zubizarretak eskuratu zuen finalerako txartela.

**Bi finalista falta dira**

Oraindik orain, bi finalista falta zaizkio Soraluze pilota txapelketari, eta datorren martitzenera arte ez da izenik jakingo. Orduan jokatuko dira falta diren bi finalaurrekoak, Bergarako Udal Pilotalekuan: Exposito-Egiguren –promes kategoria– eta Salaberri-Zubiria –nagusien mailan–. 19:30erako finkatu dute hitzordua. Eta, ostera, martxoaren 13an jokatuko da finala, 19:30ean hasita, Bergaran bertan.




ANDONI CALBANO

# Azkargortaren omenez, bi sari

Atletismoko proba izan zuen asteburuan Andoni Calbano bergarararrak. Eta bi domina irabazi zituen: urrea –200 metroko proban– eta zilarra –60 metroko lasterketan–. Gainera, ospakizuna ez zen edonolakoa izan, Xabi Azkargorta izan baitzuen gogoan. Minbizia diagnostikatu zioten gazte bergarararri. Ordutik, hainbat dira kirol munduak egin dizkion omenaldiak.

# Herritarrak eta bisitariak omentzeko agurra

Bergarako Txistulari Bandako zuzendari Jose Migel Laskurainek 'Bergarako agurra' obra sortu du. Joan zen domekan estreinatu zuten, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, eta hara joandakoek gustura entzun zuten herriari eta Udalari eskainitakoa

**Arantzazu Ezkibel** BERGARA

Bergarak badu bere agurra. Domekan estreinatu zuen Bergarako Txistulari Bandak. Jose Migel Laskurain zuzendariak sortutako pieza da, kontrapasa bat. "Betiko agurra edo aurreskua teknikoki nahiko zaila da txistulari hasiberrientzat. Modu honetan, pieza samurragoa sortu nahi izan dugu", azaldu du Laskurainek. Kontrapasaren hitzak ere Laskurainek berak idatzi ditu. "Ohiko aurreskuaren forma mantentzen du, eta baita konpas kopurua ere", gaineratu du. Hain zuzen ere, dantzariek dantza egiteko modukoa da *Bergarako agurra*.



Domekan egin zuten emanaldia. MIRARI ALTUBE

**Bergarako herriari eskainia**

Txistulari Banda "gaztetzeko eta indartzeko Udalak egin duen ahalegina" eskertu gura izan du Laskurainek; hori horrela, pieza berria herriari eskaini diote. "Bergarako dantzari eta txistulariek euren agur propioa izango dute; bisitari bereziak omentzeko, adibidez", azaldu du Laskurainek.

Horregatik estreinatu zuten udaletxeko osoko bilkuren aretoan, domekan. Hara joandako herritarrek gustura hartu zuten agurra: "Melodia samurra da, erraz gogoratzen den horietakoa. Gainera, ez dauka ezer arrarorik". Agurra letrarekin abestu zuten: Alazne Jauregi eta Miriam Moñux izan ziren abeslariak.

**Hamar laguneko banda**

Hamar lagunek osatzen dute gaur egun Txistulari Banda. "Bost laguneko bi talde ditugu: lehenengo txistua, bi bigarren txistu, silbotea eta atabala", azaldu du Laskurainek.

Txistulari Banda gaztetu egin da, eta horren adierazle da taldekideen %50ek 17 urte inguru dituztela. "Azkenaldian sartu diren txistulariak Musika Eskolako gaztetxoak dira", dio. Taldea osatzen dute: Laskurainek, Miriam Moñuxek, Ander Labordak, Naroa Mendizabalek, Amaia Lazkanok, Maider Mujikak, June Legorburuk, Martin Garmendiak, Ekaitz Otxoak eta Antxon Lazpiurrek.

Jose Miguel Laskurainek Ramon Etxanizen lekua hartu zuen zuzendaritzan orain dela urtebete. "Udalak proposatu zidanean txistularien zuzendaritza hartzea, nik jarri nuen baldintza izan zen banda izan behar zela Musika Eskolan zeuden ikasleendako irtenbidea. Hau da, txistu ikasleek non jo izateko lekua", azaldu du Laskurainek.

**Txistua, beste modu batera**

Kalejira bat eta kontzertu bat egiten ditu hilero Txistulari Bandak. Bada, aurrerantzean, txistua beste instrumentu batzuekin nahastuta entzuteko aukera ere egongo da. Hain zuzen, maiatzean, txistu eta piano kontzertua eskainiko dute; eta, uda ondoren, metal boskotearekin batera joko dute. Eguaztenetan egiten dituzte entseguak, ordu eta erdikoak.

**MELODIA SAMURRA DA, ETA OHIKO AGURRAREN FORMA ETA KONPASAK MANTENTZEN DITU**

## Bergarako agurra

*Txistu soinua*
*ahots alaia,*
*Bergaran zaude laguna,*
*maitagarria, ongi izana*
*(BIS)*

*Merezimendu zurekin*
*nahi ditugu ospatu,*
*nahi ditugu eskertu,*
*gure artean,*
*besarkada batekin.*

*ta zurekin*
*nahi ditugu gozatu,*
*nahi ditugu elkartu,*
*gure artean ongi etorri*
*bihotzekin!*

# 'Mozkorra parregarri' opera azkenekoz ikusteko aukera

Emanaldia Seminarixoan izango da, zapatuan, 19:00etan; sarrerak 10 euroren truke daude salgai

**A.E.** BERGARA

*Mozkorra parregarri* opera berriro ere taularatuko dute. Azkeneko emanaldia izango da biharkoa; eta, oraingoan, Seminarixoan aurkeztuko dute, 19:00etan. Peñafloridako kondeak idatzi zuen opera –1764an, lehen euskal opera izan zen–. Hala, Peñafloridak Herri Lagunen Elkartea sortu zuen eta erakunde horren egitekizun garrantzitsuena Bergarako Errege Mintegia sortzea izan zen.

**Moñuxek euskaratu zuen**

1764an idatzitako lana elebiduna zen; Valen Moñuxek euskaratu egin zuen, operaren 250. urteurrena aprobetxatuz. Aurten, Bergararen 750. urteurrena dela kontuan hartuta taularatu dute berriro ere opera. Ibilbide luzearen ondoren, agur esango du ikuskizunak.



2015eko martxoko ekitaldia. I.S.

**10 euroren truke**

Sarrerak 10 euroren truke jarri dituzte salgai, *Ticket.kutxabank.es* atarian.

Beti mozkortuta dagoen Txanton Garroteren pasarteak jasotzen ditu ikuskizunak: denen aurrean barregarri utzi dute.

### Emakumeek zuzendutako filmak, Zinegoak-en barruan

Bilboko Zinegoak gay-lesbo-trans jaialdiko lanak eskainiko dituzte eguaztenean, Zabalotegin. 20:00etan izango dira emanaldiak, 3 euroren truke. *Zarpazo*, Nerea Castro; *Happy*, Laura Dudgeon; *Euritan*, Irati Gorostidi eta Arantza Santesteban; *Marguerite*, Marianne Farley; eta, *Szèp Alak*, Hajni Kis. Film labur horiek eskainiko dituzte.

### Literatura eta musika batzen dituen lana aurkeztuko du Arteagak

Josu Arteagaren eta La Banda del Abuelo taldearen *Rockanrolla mailu bat da* CD-liburua aurkeztuko dute bihar, zapatua. Lanak musika eta literatura batzen ditu. Arrasateko taldearen sei abesti jasotzen ditu lanak, eta Arteagak idatzitako beste hainbeste kontakizun. Aurkezpena bihar izango da, 18:00etan, kartzela zaharrean.

### Willis Drumond eta Rukula taldeak izango dira gaur, gaztetxean

Txapa Irratiak antolatu du kontzertua, gaurko, egubakoitza, 22:30erako. *Gure lekuak* biraren barruan izango dira lapurtarrak gaztetxean, taldekide berriekin. Rukula talde gaztea, Usurbilgoak eta Lasartekoak dira. Kontzerturako sarrera 5 euro izango da. 97,2 frekuentzian eta *Txapairratia.org* atarian zuzenean entzun daiteke saioa.

### Punk-oi! musikaz gozatzeko aukera egongo da hilaren 7an

Eguaztenean izango da kontzertua, martxoaren 7an, 20:30ean. Rixe Parisko eta Vietcong 68 taldeek eskainiko dute emanaldia. Oi! musika egiten dute lehenengoek, eta Vietcong 68 Gipuzkoako taldeak punk eta rock-and-roll doinuak sortzen ditu. Kontzerturako sarrera 5 euro izango da. Punk-oi! musika gogoko dutenendako hitzordua.



Iaz gaztetxoak Herriko Plazan *Olatu morea* hasteko prest. MAIDER ARREGI

# Martxoaren 8a: indartuta eta ekintzaz beteta

Antzuolan jaio berri den Andramanuelak emakume taldeari esker, aurten Martxoaren 8aren bueltan egingo diren ekintzek presentzia handiagoa dute. Udala eta Gizarte zerbitzuekin elkarlanean, ondorengo egunetan aldarrikapenez jantziko da herria

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Gaurtik datorren asteburura arte –martxoak 10 eta 11– makina bat ekintza egingo dute herrian. Martxoaren 8aren bueltako aldarrikapena ozen zabalduko dute. Aurten, gainera, Andramanuelek, Gizarte Zerbitzuek eta Udalak elkarlanean jardun dute eta egitarau oparoa antolatu dute. Tailerrak, filmak, erakusketa, solasaldia, festa, aldarrikapena... Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan protagonista izango dira.

"Andramanuelak herriko emakume taldeak dinamika ona lortu du herrian eta baita ere Debagoien mailan. Eurak dira motorra eta protagonista. Gu laguntzeko gaude eta babes osoa emango diegu, gainera. Gogoa, ilusioa eta iniziatiba du herriko gazte taldeak. Oso garrantzitsua da, gainera, horrelako elkartea izatea herrian. Herri baten bizitzarako eta dinamizaziorako oso garrantzitsua da horrelako talde baten sorrera", azaldu du Antzuolako Gizarte Zerbitzuetako Karmele Korta teknikariak.

Gizarte Ongizate zinegotzi Alaitz Igarzabalek ere antolatutako ekintzen gaineko balorazio positiboa egin du eta herritarrei ekintzetan parte hartzeko eskaera egin die: "Bageneukan gogoa emakume talde bat izateko herrian. Udaletik laguntza emango diegu eta eurek antolatutako ekintzak bultzatuko ditugu, noski. Elkarlana urte osora zabaldu gura ditugun ekintzekin bultzatu gura dugu".

**Egitarau zabala**

Bihartik datorren asteburura arte makina bat ekintza dago antolatuta. Bihar, martxoak 3, Antzuola ere emakumeen Debagoieneko martxan izango da. 10:00etan Bergarako azokan batuko dira bergararrekin eta Elorregira joango dira.

**MARTXOAREN 8AN BI ELKARRETARATZE EGINGO DIRA: EGUERDIAN ETA ARRATSALDEAN**

Martxoaren 4an, domeka, 17:00etan, besoko moreak egiteko tailerra egingo dute Torresoroan; ondoren, 18:30ean emakumeak protagonista diren film emanaldia izango da bertan.

Martxoaren 6an, martitzena, martxoaren 8rako deituta dagoen grebari buruzko hitzaldia eskainiko dute Olaranen –zehazteke–.

Eta Martxoaren 8an, eguena, 12:00etan elkarretaratzea egingo da Herriko Plazan eta 20:00etan manifestazioa; ondoren, luntxa.

Martxoaren 10ean eta 11n Erdialdeko Ameriketako emakumeen lana azaleratzen duen erakusketa izango da ikusgai Olaranen (18:00-20:00). Martxoaren 10ean, baina, 12:00etan erakusketa azaltzeko hitzaldia egingo dute. Eta arratsaldean, *Olatu morea* (17:30ean), kalejira eta afaria gaztetxean, aldarrikapena borobiltzeko.



MARTA SANCHEZ

## Saharako errepublikari babesa

Martitzenean, otsailak 27, Saharako bandera eta ikurrina elkarrekin astindu zituzten Saharako errepublikari babesa adierazteko. Izan ere, 42 urte bete dira Saharako errepublika aldarrikatu zela. Ikurrin dantza eskaini zioten bertan batu zirenek saharar herriari, eta, ostean, elkarretaratzea egin zuten Herriko Plazan.

### 'Alizia' musikala Torresoroan ikusteko sarrerak salgai

Martxoaren 17an, *Alizia musikala. Herrialde miresgarrian badago Wifia* ikuskizuna eskainiko da Torresoroa aretoan. Sarrerak salgai daude dagoeneko liburutegian eta Bergarako musika eskolan –10 eurotan–. *Alice in Wonderland* eleberri klasikoaren bertsio gaurkotua eta oso modernoa da. 60 antzezle, kantari eta dantzari baino gehiago zuzenean ariko dira. Baita abesbatza eta orfeoia ere.

### 'Antzuola eitten': hurrengo saioak zehaztu dituzte

*Antzuola eitten* ekimeneko talde eragilea batu da dagoeneko eta hurrengo fasea, martxoko saioak, adostu dituzte. Bost saio egingo dira guztira eta horietatik hiru izango dira irekiak. Hala, martxoaren 7an, eragile ekonomikoekin eta herriko elkarteekin egingo da saio bana Olaran etxean: lehena 15:00etan eta bigarrena 18:30ean.



LANDATXOPE

## Pentsioen egoera salatu dute

Antzuolako erretiratuak ere oso haserre azaldu dira Gobernuak egindako %0,25eko pentsioen igoerarekin. "Oso haserre gaude Gobernuak egin duen pentsio igoera miserablearekin", azpimarratu dute. Donostiako manifestaziora ere joan zen herriko erretiratu talde bat, eta jasotako gutunak berriro bidali dizkiote Madrilgo Gobernuari, protesta gisara.

# "Lagun arteko jokoa zaletasun bilakatu da"

**JON BALEZTENA** KIROLARIA

Futboleko botak datorren denboraldian eskegiko ditu antzuolar gazteak. Mendi lasterketak egin gura ditu; A8M lasterketan, lehen antzuolarra izan da helmugaratzen

**Maider Arregi** ANTZUOLA

17 urte ditu Jon Baleztena antzuolarrak. Antzuolako 8 Miliak lasterketan (A8M) lehen antzuolarra izan da helmugan sartzen. Jaitsieretan eroso sentitzen dela eta dena ematea gustatzen zaiola kontatu dio GOIENAri.

**Lehen antzuolarra izan zara A8M lasterketan helmugan heltzen. Espero zenuen?**

Ez, ez nuen espero. Lehen aldiz parte hartu dut aurten Antzuolako mendi lasterketan eta ez nuen espero hain denbora ona egiterik [ordu bat eta 12 minutu]; are gutxiago, herriko lehena izatea helmugan sartzen.

**Zu, baina, futbolaria zara herriko taldean. Nolatan animatu zara mendi lasterketak egitera?**

Bai, txikitatik futbolean ibili naiz. Baina iaz, lagun taldean irten zen erronka-joko batean sartu zitzaidan mendi lasterketak egiteko harra. Zegama-Aizkorriko junior lasterketa prestatu, eta egin nuen.

**Broma artean hasi zena, azkenean, zaletasun eta pasio bilakatu da.**

Bai, lagunekin hasi zen jokoa. Denok batera lasterketa egiteko jokoa zena, azkenean, zaletasun bilakatu da niretzako.

**Futbola eta mendi lasterketak uztartzea, baina, zaila da. Zeren aldeko apustua egingo duzu?**

Aurten, futbola eta mendi lasterketak, biak uztartuko ditut. Baina datorren denboraldian utzi egingo dut futbola eta mendi lasterketetan zentratuko naiz.

**Muskuluak eta zure gorputza aldatu egin zaizkizu, ezta?**

Bai; azkenean, gorputza asko aldatu zait eta futbolean indarra falta zaidala igarri dut. Zailtasun handiagoz nabil futbolean jokatzen orain.

**Biak uztartzea, beraz, zaila.**

Oso kirol ezberdinak dira. Eta entrenamenduak ere ezin dira uztartu; denbora barik nabil, eta ikasten ere banabil. Biekin ezin dut aurrera egin.



Jon Baleztena, A8M proban, helmugara iristen. IMANOL SORIANO

## "AZKEN URTEETAN SEKULAKO 'BOOM'-A IZAN DUTE MENDI LASTERKETEK GURE BAILARAN"

**Eta aurten zein mendi lasterketa egingo dituzu?**

Aurten, martxoaren 20an egingo den Larraul-Ernio-Larraul lasterketa egingo dut. Nire helburua da lasterketa hori entrenamendu gisa hartzea. Izan ere, aurten, Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria den Aloñako igoera egin gura dut, apirilaren 22an. Eta, hortik aurrera, Zegamako juniorra berriro egingo dut, iazko marka hobetzeko. Beste lasterketaren bat baldin badago 20 urtez azpikoendako, parte hartuko dut.

**Entrenatzaile batekin zabiltza lanean orain; nola prestatzen dituzu lasterketak?**

Bai, Zumarragako Santi Perez da nire entrenatzailea, Goierri Garaia taldeko kide naiz eta. Hark jartzen dizkidan ariketak jarraitzen ditut. Orain, lasterketetarako, gimnasio barruko ariketak egiten hasiko naiz, muskuluak eta hankak indartzeko, bereziki.

**Debagoienean sekulako zaletasuna dago eta haziz doa, gainera, belaunaldi berrien artean.**

Bai, ikaragarria da gure bailarako zaletasuna. Oñati, Arrasate, Bergara... azken urteetan *boom* handia bizi izan dute mendi lasterketek. Jende askok ematen du izena eta ikusten ere asko izaten dira. Nik familiako kide bat daukat mendi lasterketan aritzen dena, eta gogoratzen dut ikustera joaten ginen lehen urteetan ez zegoela horrenbeste jende eta horrenbesteko zaletasuna. Oraingoa ikaragarria da.

**Eta gizonezkoetan ez ezik, emakumezkoen kopurua ere asko hazi da.**

Bai, eta, gainera, sekulako markak eta maila dituzten emakume kopurua dago.

**Zer ematen dizu mendiak horrela *harrapatzeko?***

Askatasuna, libre izatearen sentsazioa. Natura asko gustatzen zait, eta deskonektatzeko ere asko laguntzen dit. Mendiko askatasuna ez dizu pista batek ematen. Jaitsieretan eroso sentitzen naiz eta dena ematea gustatzen zait, gainera.



EH MUS TXAPELKETA

## Azkarate eta Cabrera txapeldun

Joseba Azkaratek eta Claudio Cabrerak osatutako bikotea da Gipuzkoako mus txapelduna. Bergaran jokatutako finalean 105 bikotek parte hartu zuten. Azken partida bi herriren artean jokatu zen: Antzuola eta Anoeta. Lehia estua bizi izan zuten, baina, azkenean, txapela antzuolarrendako izan zen. Euskal Herriko finala Uztaritzen jokatuko dute, martxoaren 10ean.



ARROLA MENDIZALE ELKARTEA

## Giro paregabean mendizaleak

Arrola Mendizale Elkarteak antolatuta, domekan Zumarraga inguruko parajeak bisitatzen izan dira herriko mendizaleak. "17 lagunek parte hartu dugu mendi ibilbidean, giro ezin hobean. 920 metro inguruko desnibela eta 18 kilometro dituen ibilbideaz gozatu dugu. Herritarrak animatu gura ditugu irteeretara etor daitezen", azaldu dute Arrolako kideek.

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Martxoaren 8a aldarrikatzeko lanean diharduen emakume taldea, amantalak soinean. L.Z.

# Antolatutako ekintzetan parte hartzeko deia

Emakumeen Nazioarteko Egunean aurkeztuko dute Elgetako emakume taldea. Aurretik, hitzaldi bat, herriko hainbat emakumeren zaletasunak ikusaraziko dituen erakusketa eta Martxoaren 8ko elkarretaratzea egingo dituzte herrian

**Larraitz Zeberio** ELGETA

Hogei bat emakume elkartu dira aurten Martxoaren 8ko ekintzak prestatzeko, eta Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatu ostean lanean jarraitzeko asmoa agertu dute. "Lan dinamika bat jarri nahi dugu martxan", adierazi dute. "Ikusiko dugu hilean behingo maiztasunarekin ekintzak antolatzeko indarra dugun". Jakinarazi dute Martxoaren 8ko elkarretaratzearen ostean egingo dutela taldearen aurkezpen ekitaldia, eta antolatutako ekintzetan parte hartzeko dei egin dute.

Astelehenean, martxoak 5, hitzaldia egingo dute Julia Mongek eta Zuriñe Rodriguez Larak. Eguenerako, berriz, balkoietatik amantalak eskegitzeko dei egin du emakume taldeak, eta baita antolatuta dauden elkarretaratzeetan amantalak soinean parte hartzeko. 19:00etan izango da bilkura nagusia. Baliteke 11:00etan beste bat egitea.

Iluntzeko elkarretaratzearen ostean, Garbiñe Sarasketak sortutako idatzia irakurriko dute eta herriko musika ikasleen parte hartzearekin *Konplizeak ditut eta* kantua abestuko dute. *Ai ama!* antzezlan saio laburra ere eskainiko du Urflax pailazoak.

Ekitaldiak Salbador kalean izango du jarraipena; izan ere, Elgetako hainbat emakumeren zaletasunak abiapuntu hartuta osatu den erakusketaren irekiera egingo du Udalak. Oraingoz, hamasei emakumek baieztatu dute parte hartzea. Erakusketa domekara arte egongo da zabalik. Martxoaren 8an 21:00ak arte egongo da ikusgai, eta biharamunean 19:00etatik 21:00etara. Zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Domekan, aldiz, 12:00etatik 14:00etara irekiko dute.

**Bihar, Emakumeen Martxa**

Debagoien mailan, bestalde, Emakumeen Martxa egingo dute bihar. Nor bere herritik abiatuta, Elorregiko biribilgunean egingo dute guztiek bat. Antzuolarrak, elgetarrak eta bergararrak 10:00etan abiatuko dira Bergarako azokatik. Amantalak eramateko eskaera egin dute deitzaileek.

## Amamaren amantala

*. Zertarako amantala? Ortuko tomateak biltzeko, soroko sagarrak batzeko, umearen aurpegia garbitzeko, bekokiko izerdia sikatzeko...*
*. Amamaren beharrak ondo josita, ametsak ondo lapurtuta, malkoak oihala bustita, amamaren amantala gerrira lotuta!*
*. Amantalaren korapiloa sendoa, planto egiteko ordua, entzun dezatela gure oihua.*
*. Zertarako orain amantala? Nahi dogunian ipintzeko, bakoitzaren nahia errespetatzeko, korapiloa arintzeko, gure hegoak astintzeko!*
*. Amamaren amantalari behin betiko agurra, gure amantal berriari… ez euki beldurra!*

EGILEA: GARBIÑE SARASKETA.

## Hitzaldia historiografia feministaz

Emakumeen esperientzia kolektiboa eta historikoa berreskuratzeko garrantziaz egingo dute berba astelehenean Julia Mongek eta Zuriñe Rodriguez Larak Elgetan. Hainbat galderari erantzuna ematen saiatuko dira. Prozesu historikoetan presente egon eta hauetan parte hartu badute, zergatik gelditu dira emakumeak historiografia tradizionaletik kanpo? Nola sortu dituzte historiografia propioak?... "Mikrofonoetatik urrun egon diren testigantzei eta memoria pribatuen mundura pasa diren kontakizun alternatiboei buruz egingo dugu berba, aurrerapenak eta zailtasunak partekatzeko", aurreratu dute. Historiografiak zer gogoratu duen eta zer ahaztu duen kontuan hartzea garrantzitsua da. Hitzaldia 19:00etan izango da, udaletxeko areto nagusian.

# Gaztetxoak kontalaritzan trebatzeko bi tailer liburutegian

Bina orduko bi saio gidatuko ditu Eneko Haritzak; lehenengoa, gaur, 8 urtetik gorako umeendako

**L.Z.** ELGETA

Ipuinak aukeratu eta prestatu egin behar dira jendaurrean kontatu aurretik, eta horretan trebatuko ditu gaurko saioan Eneko Haritza ipuin kontalari hondarribiarrak herriko hainbat neska-mutiko. Bi saio egingo ditu herrian. Aste honetakoa 8 urtetik gorako neska-mutikoendako izango da eta hurrengo astekoa 5 urtetik gorakoendako. "Bigarren hori esperientzia berria izango da niretzat, baina gogoz nago. Ipuin kontalaritzaren inguruan dinamika oso interesgarria dute martxan Elgetan eta saiatuko naiz dakidana partekatzen", adierazi du. Hurrengo asteko saiorako ere aurretik eman behar da izena. Kasu honetan, 5 urtetik gorako umeendako izanik, familian egiteko tailerra izango da. Ordutegia, aste honetan moduan, 17:00etatik 19:00etara izango da. Izena emateko zein informazioa gehiago eskuratzeko liburutegira jo behar dute interesatuek.



Eneko Haritza. L.Z.

## OHARRAK

### Ibiltarien Jaia

Martxoaren 11n izango da Ibiltarien Jaia, Elgetan. 25 kilometroko mendi buelta eta bazkaria daude iragarrita. Izen-ematea zabalik da.

### Erretiratuen batzarra

Xalbadorpe elkarteak hilaren 9rako deitu du urteko batzarra. 17:30ean hasiko da, Ozkarbin. Bukaeran pintxoak egongo direla jakinarazi dute.

# Ezusterik ez gaztetxetik hartutako erabakiarekin

1992an jaio zen Elgetako Gazte Asanblada eta 1996ko martxoaren 22an okupatu zen gaztetxea. Bi hamarkadaren ondoren Asanblada desegiteko eta gaztetxeko giltzak Udalari emateko erabakia da albiste herrian. Berriak ez du benetako ezusterik eragin


Gazte Asanbladaren eta gaztetxearen sorreran ibilitako kideetako batzuk. L.Z.

**Larraitz Zeberio** ELGETA
"Gaztetxea amatatzen joan da. Ez da egun batetik besterako kontua izan. Gaur egun, pribatizatu egin da dena, eta zegoen indar apurrarekin gauza batzuk mantentzera jo dute gazteek, baina ez da berdina ardurak hamabosten artean edo lauren artean banatzea". Igor Azkarateren hitzak dira. Gazte Asanbladako sorreran ibilitakoa da. "Elgeta batean gaztetxeak 22 urte bete izana errekorra iruditzen zait. Txalogarria", iritzi dio Onditz Villak. Ohiturak aldatu egin direla uste du, berriz, Alazne Azkaratek. "Gazteek, gaur egun, ez dute gaztetxearen beharrik", esan du. Elgetatik mugitzeko erraztasun handiagoak daudela uste du Oier Villak. "Gure sasoian, jaiak kenduta, herrian ezer gutxi zegoen, horregatik hasi ginen antolatzen".

Egungo gazteek hartutako erabakiak ez ditu Gazte Asanbladako *sortzaileak* ezustean harrapatu. "Ikusi egiten zen iritsiko zela itxiera", dio Bittor Gallastegik. "Poliki-poliki, jendea gogoa galtzen joan da. Jendea, orain, bere gauzetarako mobilizatzen da, denbora gutxiago du... Ez dakit nik! Erantzuna ere txikitzen joan da", esan du.

Galdera hori egiten dio bere buruari Iban Arantzabalek. "Zergatik joan da txikitzen jendearen erantzuna? Gauza konkretu batzuetan zentratzen joan da gaztetxea? Hasierako irekidura galtzen joan da?". Gazteek hartutako erabakia penaz baina errespetuz hartzen duela esan du. "Erabaki ausarta ere bada. Gu gustura geunden. Hori eskatzen zigun gorputzak. Inertziaz eusteak nekea dakar. Ez dakit erabakia hartzeko benetako arrazoiak zeintzuk diren. Azkenaldian ez neukan lotura afektiborik gaztetxearekin. Oso gutxitan zabaldu izan dute". Gaur egungo gazteen gogo falta aipatu du, berriz, Enrike Perez *Txikiturri*-k. "Ez dute ezer egiteko gogorik. Ez dakit lotsa den edo zer den", esan du.

Oraingo moduak indibidualagoak direla uste du Olaia Jimenezek. "Belaunaldi, ohitura, interes eta gustu aldaketak daude. Militantzia eta konpromisoa hartzeko kontua ere egongo da. Hainbat ikerketa egiten ari dira gazteen desmobilizazioa aztertzeko", esan du. "Guk gauzak antolatzen genituen, baina gure inguruan ere desmobilizatu mordoa zegoen", esan du Oxel Erostarbek. Eider Etxanizen hitzetan, gazteek Bergararako joera dute orain. "Gu herrian egoten ginen. Askok, orain, lokala hartzen dute Bergaran".

## Kiroldegiko zerbitzua esleitzeko baldintza-agiri berria, onartuta

Maiatzaren 31n amaitzen da indarrean den esleipena, eta zabalik dago eskaintza berriak aurkezteko epea

**L.Z.** ELGETA
Udalbatzak aho batez onartu zuen baldintza-agiri berria martitzenean egindako osoko bilkuran. Indarrean den esleipena maiatzaren 31n amaitzen da eta asmoa da berria ekainaren 1ean sartzea indarrean. Baldintzak argitaratzen diren unetik, interesatuek 30 egun natural izango dituzte eskaintzak aurkezteko.

Ordutegiei eta eskatutako gutxieneko zerbitzuei dagokienez, ez dago berritasunik. Aldaketa nabarmenenak dira esleipendunari bolatokia zabalik edukitzea eskatuko zaiola eta hileko alokairua 200 eurokoa izango dela, BEZa barne. "200 euroko kanon bat dago orain indarrean eta kirol zerbitzuengatik kobratutakoaren %10 edo %15 ordaintzen dio Udalak esleipendunari. Uste dugu ez dela egokia faktura bat bitarteko ez dela diru-sarrera egitea", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. Hala, BEZa barne duen 200 euroko alokairua ezartzen du baldintza-agiri berriak. Hiru urteko kontratua eskaintzen da, banaka beste bi urtez berritu ahalko dena.


MARIA ZUBIA TORRE
ARIZMENDI IKASTOLAko ikasle bergararra

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka
GOIAZ! 2018
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 17an eta 18an
Kulturaten, Arrasaten
goiazdebagoiena
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia

DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

GAUR EGUN:
Mikroinformatikaren sistemak eta sareak erdi-mailako heziketa zikloa ikasten Arizmendi Ikastolan.

IBILBIDEA:
DBHtik dator.

**Zergatik aukeratu duzu erdi-mailako ziklo bat egitea?**
DBH amaitu eta batxilergoa hasi nuen, baina letretako ikasgaiak ez zitzaizkidan gustatzen, eta, garbi dudanez nora heldu nahi dudan, ohikoak ez diren beste bide batzuk bilatzen hasi nintzen eta aukera hau topatu nuen.

**Eta nora heldu nahi duzu?**
Nik Ingeniaritza Informatikoa ikasi nahi dut. Eta horretarako, mikroinformatikarekin lotutako erdi-mailako ziklo hau hasiko zela jakin nuenean, ez nuen zalantzarik izan. Hemen bi urte egingo ditut.

**Eta ondoren?**
Arrasaten bertan, goi-mailako informatikako zikloa egingo dut, eta ondoren unibertsitatera joateko asmoa daukat.

**Orduan, esan daiteke zure asmoa lortzeko beste bide bat aurkitu duzula. Zer moduz lehenengo urte hau?**
Gustura nago, asko gustatzen zait-eta arlo hau! Informatika munduan sakontzen hasi gara: muntaia, programazioa, sistema eragileak, sistemak, azpisareak... horrelako gaiak lantzen ditugu, eta bagoaz geroz eta gehiago ikasten.

**Informatika arloa nahiko maskulinoa izan da orain arte. Baina ikusten da emakumezkoen artean ere hasi dela interesa pizten.**
Bai... bueno, hamabost ikaskidetatik lau gara neskak.



**Martitzenean ibili ziren prestatzen Martxoaren 8an erabiliko duten materiala.** OÑATIKO SARE FEMINISTAK

# Hilaren 8an amantalak eskegitzeko dei egin dute

Olakuako urmaelean eta Foruen plazan elkarretaratzeak egingo dituzte Martxoaren 8an, eta lanuzteak ere deitu dituzte. Berdintasunaren alde, hilabete osoan zehar egingo dira ekitaldiak Oñatin, herriko sare feministak antolatuta

**Oihana Elortza** OÑATI

Martxoaren 8ari begira bilgune feministak deitu duen grebarekin bat egin eta hori Oñatin nola zabaldu prestatzen ibili da Oñatiko sare feminista urtarrila ezkero, eta dagoeneko prest du egun horren bueltan egingo diren ekintzen egitaraua.

Datorren eguena da Martxoaren 8a, eta elkarretaratzeak egingo dira eguerdian eta iluntzean: 12:00etan Olakua auzoan eta Foruen plazan egingo dira eta 19:00etan plazan. "Elkarretaratze dinamikoak izango dira. Tarte horretan plaza eta inguruak apainduko ditugu amantalez eta kartelez, esaterako. Eta hori elkarretaratzera joan diren herritarrekin batera egingo dugu. Hantxe banatuko ditugu astean prestatu ditugun materialak eta guztion artean inguruak apainduko ditugu, mezua zabalduz", dio Oñatiko sare feministako kide Jone Arrazolak. Olakua auzoan egingo duten elkarretaratzea Lagun Lekuko erretiratuek deitu dute eta han ere ikusiko dira amantalak. Amantalak eta aldarrikapen mezuak. "Astelehenean elkartuko gara ikusteko zer material dugun eta zer gehiago behar dugun. Gure asmoa da egueneko elkarretaratzea egiten dugunerako auzoa, Olakua, apainduta egotea. Litekeena da bezperako egunetan hastea lan horretan. Astelehenean adostuko dugu nola eta noiz egin", dio Lagun Leku erretiratuen elkarteko Marilo Untzurruntzagak.

### Lanuzteak

*Emakumeak planto* lelopean, lanuzteak egitea ere babestu du Oñatiko sare feministak. 11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 22:00etara deitu dituzte. "Deialdiak dira, baina asmoa ez da enplegu geldialdia egitea bakarrik, berdintasunaren alde bakoitzak bere esparrutik zer egin dezakeen hausnartzea eta kontuan hartzea baizik. Fokua etxeko lanetan jarriko da. Greba hau berezia bada, horregatik da berezia, ikusarazi gura delako emakumeak bere lanean, zereginetan, planto egiten badu inguruko dena nola eta ze neurriraino aldatu edo aldrebesten den", azaldu du Arrazolak.

Martxoaren 8an greba egiteko arrazoiak asko direla dio Arrazolak, "indarkeria, arrazakeria, estereotipoak eta eredu ekonomikoan dauden ezberdintasunak tartean", baina oraingoan fokua arlo pribatuan jartzea dela asmoa dio Arrazolak: "Etxeko lanetan, ordaintzen ez diren lanetan, adibidez, erreleboa hartzera animatzen ditugu gizonezkoak, ikusteko emakumeak zer lan egiten duen eta zenbat".

Grebaren arrazoiak eta zergatiak azaltzen ere ibili dira sare feministako kideak herrian; ikastetxeetan, esaterako.

Martxoaren 8ari begira, baina, ekintza guztiak ez dira egunean bertan egingo. Aurreko eta ondorengo egunetan ere ekitaldi ugari egingo dituzte Oñatin. Udalbatzak bat egin zuen antolatutako egitarauarekin otsaileko osoko bilkuran. "Elkarretaratzeak, lanuzteak eta zineklubeko saioa egongo dira egun horretan eta herritar guztiak gonbidatzen ditugu parte hartzera", adierazi zuen Leire Zumaldek, Berdintasun zinegotziak, osoko bilkuraren amaieran.

### Gehiago

Bihar, zapatua, Elorregin 12:00etan egingo den kale agerraldirako irteera prestatu dute. "10:45ean elkartuko gara Eltzian eta bizikletaz zeharkatuko dugu herria, Kasablankan bidegorria hartu arte. Herritar guztiak daude gonbidatuta", dio Oñatiko sare feministako kide Lurdes Arregik. Astelehenean, *La casa de Bernarda Alba* antzezlanaren solasaldi literarioa egingo dute, kultura etxean. 30 lagunetik gora joango dira. "Hor lantzen den gairik funtsezkoena da nola gizarte patriarkal honek zapaltzen dituen ezberdinak diren emakumeon aukerak: tradizioa, autoritarismoa, aurreiritzia... Horren aurrean zer erantzun eman ditzakegun aztertzeko aukera ematen du", dio Caritas elkarteko Iratxe Barrusok. Irteerak, emakume artisauen azoka, bazkaria eta kontzertuak ere egongo dira. Bazkarirako txartelak Ona, Arrano eta Oñati tabernetan daude salgai sei eta hamabi eurotan.

**EGUNAREKIN BAT EGIN ZUEN UDALBATZAK, AHO BATEZ, OTSAILEKO OSOKO BILKURAN**

## Uztailean sartuko da Oñati Aldundiko Kabia programan

Zaharren egoitzaren eta eguneko zentroaren zerbitzuak bateratu egin gura ditu aurretik Oñatiko Udalak

**O.E.** OÑATI

Uda aurretik, uztailean, sartuko da Oñati Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari atxikitako Kabia organismoan eta ordutik aurrera Aldundiak, kudeatuko ditu herriko San Martin zaharren egoitza eta baita eguneko zentroa ere. Horren aurretik, baina, zerbitzuak bateratu gura ditu Udalak, "bateratuta pasa daitezen Aldundira", alkatearen esanetan. Horren lizitaziora Eulen eta Aita Meni enpresak aurkeztu ziren. Aita Menniri eman zitzaion esleipena, baina, Eulenek jarritako helegite batengatik, bertan behera gelditu da eta berriz aterako dute lizitaziora. "Honek ez du ezertan eragiten zerbitzu bietako erabiltzaileengan", argitu zuen Mikel Biain alkateak otsaileko osoko bilkura bukatu eta gero. Alderdi jeltzaleak aipatu zuen pasa den ekainean hasitako prozesu bat dela hau eta "Udal Gobernuaren planifikazio falta" ikusten duela.

## Leintz Garraioak egingo ditu herriko autobus bidaiak

Arrasateko Leintz Garraioak enpresak kudeatuko du datozen zortzi urteetan herriko garraio publikoa. Herribusak herri barruan egiten dituen bidaiak zein Oñati eta Arantzazu lotzen dituen zerbitzuak eskaintzen dituenak eskainiko ditu. Otsailean egindako osoko bilkuran hartu zuen erabakia udalbatzak, aho batez. Zerbitzu hori arautzeko ordenantza urtarrileko osoko bilkuran onartu zuten. 5 eta 18 urte bitarteko bidaiariek autobus txartela ordaindu egin beharko dute gero. Neurri horren helburua da Lurraldebuseko beste zerbitzu urbanoekin parekatzea, hurrengo fase batean Oñatiko zerbitzua Mugi txartelaren sisteman sartzea. Aukera hori emateko, Herribus zerbitzurako jarriko dituzten bi autobusetan txartelak kobratzeko ekipamendua egokitu egingo dute.



Topaguneko Jurdana Martinez eta Iker Martinez de Lagos eguazteneko aurkezpenean. KONTZEJUPETIK

# Oñatik ere bat egin du Euskaraldiarekin

'Euskaraldia, 11 egun euskaraz' egitasmoaren helburuak lortzeko Oñatin zer egin daitekeen pentsatzeko, hausnartzeko eta adosteko saio irekiak egingo dira martxoaren 13an eta 20an Euskaldun Berria gelan, 18:30etik 20:30era

**Oihana Elortza** OÑATI

Eguazten iluntzean egin zuten *Euskaraldia, 11 egun euskaraz* egitasmoaren aurkezpena osoko bilkuren aretoan. Zer ekimen den, nondik datorren eta zer lortu gura duen azaldu zuten, besteak beste, eta ekimena Oñatin nola gauzatu pentsatzeko hitzorduak jarri zituzten.

**Lan-ildoak**

Udaleko Euskara Saileko ordezkariez gain, Topaguneko Iker Martinez de Lagos eta Jurdana Martinez izan ziren aurkezpen saioan. Hogei bat lagun joan ziren ekitaldira.

Herritarren inertziak astinduz hizkuntza erabilera aldatzea du helburu egitasmo horrek, eta Oñatin ere horixe lortu gura da, erabileran arreta jartzea eta euskara erabiltzea. "Egia da hemengo euskararen erabilera datuak oso onak direla. Gazteen datuek diote, esaterako, %92k euskara erabiltzen dutela, eta umeenak ere oso onak dira. Arnasgune baten bizi gara baina helduen datuak, adibidez, jaitsi egin dira, eta hor badago non eragin", dio Euskara zinegotziak, Nerea Zubiak. Eta gaineratu du: "Oñatin bertan euskara erabiltzeko ohitura badugu, bai, baina beste herri batera goazenean ere bai? Hori ere hausnartu beharko genuke".

Eta erabilera hori nola sustatu eta nola aldatu pentsatzeko saioak egingo dira martxoaren erdi inguruan: martxoaren 13an eta 20an, Euskaldun Berria gelan, 18:30etik 20:30era. "Saio horiek Topaguneko kideek dinamizatuko dituzte, eta izango dira gaiari buruz berba egin, herriaren definizio bat egin eta lan-ildoak adosteko. Saio horiek ez dute konpromiso gehiagorik eskatzen, baina bai ekarpenak egitea edo egitasmoa martxan nola jarri erabakitzen laguntzea. Herritar guztiak animatu gura ditut saio hauetan parte hartzera. Saio horien ostean sortuko den batzordea izango da gero abendura bitartean egitasmoa zabalduko duena", gehitu du Zubiak.

**MARTXOKO SAIOAK IREKIAK DIRA ETA NORBANAKOAK ZEIN ERAGILEAK JOAN DAITEZKE**

**Abenduan**

Azaroaren amaiera eta abenduaren hasiera bitartean egingo da *Euskaraldia, 11 egun euskaraz* egitasmoa Euskal Herri osoan, eta, bitartean, herri bakoitzean bere egoerara egokitutako ekitaldiak egingo dira. Egun horietan euskaraz egiteko konpromisoa hartzeaz gain, herri euskaldunetan euskarazko produktuak kontsumitzeko mezua bidaltzea ere bada beste ideietako bat. Abendua heldu bitartean ere izango du presentzia Euskaraldiak Oñatin.



NIRE USTEZ

MIEL GURIDI

## Martxoak 8: dagoeneko ez da

Lerro hauei jarritako izenburua ez da egia, ez; oraingoz ez, behintzat. Egia baino gehiago, ametsa da, egunen batean irakurri nahiko nukeen titularra. Egia esan, zaila ikusten dut amets horretara iristea, egunerokotasunak erakusten digunari erreparatu besterik ez dago. Batzuk aipatzearren, hona adibideak.

Zer gertatzen da gazteen artean? Estatuan gertatzen diren genero indarkeria kasuen laurdenak, gutxi gorabehera, 25 urtetik beherako gazteak ditu protagonista.

Eta lan-munduan? Sindikatuek egindako azterlan baten arabera, estatu mailan, emakume batek gizon baten zeregin bera izanik, batez beste urtean 84 egun gehiago egin beharko lituzke lan gizonak adina irabazteko.

Eta kirol-munduan? Duela gutxi surf lehiaketa batean gertatutakoa, esaterako; emakume txapeldunak gizonezkoen txapeldunaren erdia jaso du sari gisa.

Eta publizitatean?… Eta…? Zerrenda luzeegia litzateke.

Beraz, nago martxoaren 8ak denbora luzez aldarrikapen-eguna izaten jarraitu beharko duela.

GORA ETA BEHERA



O.E.

## Litxarreria-plastikoz 'apaindutako' lurra

Foruen plazako arkupeko lurzorua, sarri, litxarreria-plastikoz *apainduta* egoten dela salatu gura izan du herritar batek. "Ez bota lurrera, mesedez. Zakarrontziak ondoan daude", dio.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

## Zuhaitz azoka egingo dute bihar, eta landatzea domekan

Ingurumen Jardunaldien barruan antolatuta, urteroko zuhaitz azoka egingo dute bihar, zapatua, goizean, Foruen plazan. "Ohiko saltzaileez gain, aurten, herriko bat ere egongo da", aurreratu du Natur Eskolako Maite Murgiondok. Domekan, berriz, 10:00etan elkartuko dira Foruen plazan herriguneko txoko batean zuhaitzak landatzeko.

## Ikusmina piztu du zapatuan Pamiesek emango duen saioak

Okitaño elkarteak gonbidatuta, sendabelarrei buruz berba egitera joango da bihar, zapatua, Santa Anara, eta ikusmin handia sortu du hitzaldiak. Bi saio egingo ditu, 11:30ean eta 19:00etan, eta aurretik erosi behar da sarrera *Bibe.me* atarian. Dagoeneko 100 lagunek eman dute izena; arratsaldekoan toki libre gehiago dago.



Areto futbol saileko kadete eta gazte mailetako jokalariak, entrenatzaileekin. MIREIA BIKUÑA

# Areto futbol sailak taldea izan gura du seniorretan

Duela bost urte ekin zieten areto futboleko taldea berreskuratzeko ahaleginei. Eta horrek eman du fruiturik. Izan ere, gaur-gaurkoz, bi talde ditu sailak: kadete eta gazte mailetan dihardute horiek. Senior mailan jardun gura dute laster

**Iker Oñate** OÑATI

Gora bidean da Oñatiko areto futbola. Duela bost urte heldu zitzaion saila berreskuratzeko egitasmoari, infantil mailako taldea sortuz. Eta gaur egun bada horren zantzurik: gazte mailan dihardu behinola areto futbolaz gozatzen hasi zen lagun taldeak. Horiez aparte, kadete mailan ere badu ordezkaririk Aloña Mendik.

"Ondo pasatzeko bide bezala genuen areto futbola. Eta berdinean dihardugu. Hori bai, urteekin, sendotuz doa taldea, gero eta gehiago dira gurekin bat egitea erabaki duten lagunak", azaldu du Bittor Perosterenak, gazte mailako kapitainak. Eta bide beretik segitzeko asmoarekin dihardute.

Gaur-gaurkoz, oñatiarrak hamahirugarren postuan dira sailkapenean –hamalau talde daude–, bederatzi puntu eskuratuta. Eta partidu garrantzitsua dute asteburuan, Lasarteko taldearen kontra. Hain zuzen, hamabigarren postuan daude lasartearrak; beraz, euren kontrako partidua irabaziz gero, txapelketan gora egingo lukete oñatiarrek. Bihar dute hitzordua, 09:30ean hasita, Zubikoa kiroldegian.

### Kadeteek, lau urte

Baina, esan moduan, gazte kategorian dihardauena ez da herriko areto futbol sailak duen talde bakarra. Horrez aparte, kadete mailan ere badu ordezkaririk. Horiek duela lau urte ekin zioten ibilbideari. Eta orduko asmo berarekin segitzen dute. "Emaitzei baino gehiago, ondo pasatzeari ematen diogu lehentasuna; partidu onak eginez, betiere. Finean, egindakoaz gozatzea da garrantzitsuena", argitu du Egoitz Hervasek, kadete mailako kapitainak.

Zehatz esanda, bederatzigarren postuan dira kadeteak –hamahiru talde daude–, hamasei puntu erdietsita. Eta atseden hartzea dagokie asteburuan. Alegia, ez dute norgehiagokarik. Beraz, txapelketako beste taldeen emaitzei begira egotea besterik ez zaie geratzen.

**BI TALDE DITU ALOÑA MENDIKO ARETO FUTBOL SAILAK: GAZTEENA ETA KADETEENA**

### Aurrera begira

Bien bitartean, aurrera begira dira areto futbol saileko arduradunak: taldea izan gura lukete senior mailan. "Gazteen kategorian dihardutenek bi urte barru izango dute senior mailan jarduteko adina. Hala ere, datorren urtean, gazte kategorian bi talde sortzeko behar beste jokalari egonez gero, baliteke senior mailako estreinakoa urtebete aurreratzea. Alegia, goiko kategoriara bidaliko genuke gazte mailako talde bat", diote saileko arduradunek.

## Agertokira itzuliko da Drakes musika talde oñatiarra

Herriko gaztetxean eskainiko du itzulerako lehen kontzertua, bihar, 22:00etan hasita

**I.O.** OÑATI

Egitarau berezia antolatu dute herriko gaztetxekoek astebururako; *Gazteburua* bataiatu dute egitasmoa. Eta, besteak beste, itzulerako lehen kontzertua eskainiko du Drakes musika talde oñatiarrak –WC arrasatearren laguntza izango dute horretarako–. Hain zuzen ere, biharko finkatu dute hitzordua, 22:00etan hasita, herriko gaztetxean.

Baina hori ez da asteburuko ekintza bakarra izango. Gaur hasiko dute egitaraua, *Muntai polizialak* mahai inguruarekin; Oreretako eta Altsasuko kasuak izango dituzte jorragai, 18:00etan hasita. Eta, ostean, bi bakarlarik jardungo dute agertokian–20:00etan–: Aitor Regueirok eta Haritz Olaetak.

Bestetik, esan beharrekoa da Drakes eta WC taldeen kontzertuak ez direla biharko hitzordu bakarrak izango. Egunari hasiera emanez, bertso saio musikatua egingo dute Onako plazatxoan, 12:00etan hasita. Eta, triki-poteoa, bazkaria eta presoen aldeko argazki erraldoia izango dira horren ostean.



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

## Herriko piano joleak, Andoainen

Jose de Azpiazu Musika Eskolak hamar ordezkari izan zituen asteburuan Andoaingo piano jaialdian. Eta izan zen eurentzat aitortzarik: urrezko hiru dominarekin eta zilarrezko zazpirekin itzuli ziren herrira. Anabel Henaoren eta Ainhoa Galdosen ikasleak "pozik" dira esperientziarekin: "Polita izan da bertan parte hartu ahal izatea; aberasgarria, era berean".

### Gaur bukatzen da eski zeharkaldirako izen-emate epea

Gaur amaitzen da Aloña Mendiko mendi sailak antolaturiko eski zeharkaldian izena ematеko epea. Interesa duenak *alonamendi.mendi@gmail.com* posta elektroniko helbidera idatzi beharra du. Hain zuzen ere, martxoaren 17tik eta 18ra bitartean egingo da zeharkaldia, La Sarratik hasita. 75 euro ordaindu behar dute parte hartzaileek.

### Zumbatoia eta areto bizikleta maratoia: izen ematea zabalik

Zabaldu dute IV. Zumbatoian eta VIII. areto bizikleta maratoian esku hartu gura duenarentzat izen ematea. Martxoaren 10ean egingo dituzte saioak: lehena, 10:00etatik 12:00etara bitartean; eta bigarrena, 16:00 eta 19:00 artean. Zehatz esanda, martxoaren 7a baino lehen eman behar da izena, *www.kirolprobak.com* webgunean.

# Bergaran ere, bikain kantari

Antzuola, Elgeta eta Bergarako 258 neska-mutiko, 58 taldetan banatuta, izan ziren asteburuan Seminarixoa aretoko agertokian. Euskal kantuak abestuz eta dantzatuz, sekulako ikuskizuna eskaini zuten parte hartzaileek, beste behin.


Antzuolako mutil taldea. AITOR AGIRIANO

**Aitor Agiriano** BERGARA

Herriz herri dabil Kantari seigarren aldiz eta pasa den asteburuan Bergarara heldu zen Debagoieneko karaoke ikuskizun ezagunena. Irribarrea ahoan zutela, profesionalen tankeran moldatu ziren agertokian, euskal kantuak abestuz eta dantzatuz. Gainera, pauso ikusgarri piloa ikusi zuten Seminarixoa aretora gerturatu ziren familiarteko eta lagunek, eta baita sorpresaren bat edo beste ere. Azken horiek gaztetxoei bidali zizkieten animo eta txaloekin, sekulako festa eta giroa sortu zen.

Oraingoan ere izan da gonbidatu berezia. Bergarako musika eskolan oboea, pianoa eta kantua ikasten ari den Alazne Jauregik neska-mutikoekin bat egin, eta Ken Zazpi taldearen *Ilargia* kantua eskainiz gozarazi zituen ikusleak.

Ikuskizun egun handia zuzenean bizi izan eta gero, Oñatiko saioen ondoren izango dira ikusgai Bergaran ekoiztutako hamar saioak Goiena telebistan.

**Hurrengoa, Arrasaten**

Martxoan iritsiko zaie arrasatearrei eta aramaioarrei Kantarin kantuan egiteko txanda. Hain zuzen ere, martxoaren 17an, zapatua, eta martxoaren 18an, domeka, izango dituzte entseguak, Kulturaten.

Ondoren, martxoaren 24an eta 25ean ikuskizun egun handia Amaia Udal Antzokian izango da. Bertan, ezustekoak eta gonbidatu bereziak ere izango dira, Kantariren seigarren aldiari amaiera borobila emateko.


Elgetarrak, *Eskutitza* abesteko gertu. A. A.


Pinpirin kuadrilla. A. A.


Begian izarra margotutako neskak. A. A.


Neska-mutikoak pozik. A. A.


Alazne Jauregi, gonbidatu berezia. IMANOL SORIANO



# Altitoyra: gozatzera eta euren mailan "lehiatzera"

**MENDIKO ESKIA** Asteburuan egingo dute Frantziako Pirinioetan –Luz Saint Sauverren– horrenbeste euskaldun erakartzen dituen mendiko eski lasterketa. Lukene Igartua eta Marije Zubizarreta laugarren urtez izango dira irteera puntuan

**Xabier Urzelai** OÑATI

Altitoy Ternua lasterketa egingo dute asteburuan, eta proba hori Grande Course nazioarteko zirkuituaren barruan dago. Bi kategoria izango dira: A ibilbidean esperientzia handiko eskiatzaileek hartuko dute esku, elite mailakoek, nolabait esatearren, eta hor Debagoienak hainbat ordezkari izango ditu, besteak beste, aurrealdean ibiltzeko hautagai diren Aritz Egea eta Iban Letamendi –Kilian Jornet da faborito nagusia–. Kontua da, baina, B ibilbidean parte hartuko duten 300 lagun pasatxotik, ia %7 debagoiendarrak izango direla, Oñatikoen parte-hartze nabarmenarekin.

Eta, Oñatiko kuadrilla horretatik Marije Zubizarretak eta Lukene Igartuak osatuko dute emakumezko bikotea: "Gure laugarren edizioa izango da lasterketan", dio Igartuak. Urteak daramatzagu Luz-era eskiatzera joaten, eta beti izan dugu Altitoyn parte hartzeko harra. Familia izan eta lehenengo urteetan baztertuta izan genuen ideia hori, baina etxekoak nagusitu direnean animatu egin gara".



Lukene Igartua eta Marije Zubizarreta, Altitoyko irteera puntuan, hasteko gertu. L.I.

### "Datorren urtean errepikatzera"

Zubizarretak eta Igartuak irrikaz jantziko dute bihar dortsala, nahiz eta euren borroka ez den aurrean ibiltzea izango: "Gozatzera goaz, helburu nagusia da datorren urtean errepikatzeko gogoz geratzea, hori da seinale ona. Baina bai, parte-hartzaileen artean baditugu gure ondoan ibiltzen diren beste eskiatzaile batzuk, eta horien aurretik geratzen saiatuko gara!", dio, barrez.

**"HELBURU NAGUSIA DA DATORREN URTEAN ERE PARTE HARTZEKO GOGOA IZATEA"**

Izan ere, lasterketa horretan izena emate hutsak kirola egitera animatzen ditu: "Ez baduzu inon izena ematen ez duzu kirola egiteko denborarik hartzen, baina horrela bai, ahal den lekutik ateratzen da denbora. Gu ez gara itsutzen, baina lasterketara etxeko lanak eginda iritsi gura izaten dugu, korrika eginez, mendira joanez... Gainera, lasterketatik harago, oso giro polita izaten dugu asteburu horretan".

## "Gogortasunean dago aldea"

Igartuak A eta B ibilbideen artean dagoen aldea nabarmendu du: "Alde handiena gogortasunean dago. Zirkuitu luzeagoa egiten dute A-n, eta desnibel handiagoa dute. Teknikoki, baina, B-n ere korridoreak izaten ditugu, kranpoiak jantzi eta oinez egin beharreko aldapa gogorrak, jaitsiera teknikoak... Lasterketa ederra da".



Oñatiko kuadrilla iazko Altitoy-Ternua lasterketan. L.U



K.G.

## Europakoa borobildu ezinik

**MUSHINGA** Millegroben (Italia) egin dute Europako Txapelketa, eta Itoitz Armendarizek ezin izan du proba amaitu (MD6 kategorian). Lehenengo etapan bi txakurrek min hartu zuten, bigarrenean laugarren sailkatu zen, baina hurrengoan txakurrek ez zuten aurrera egin gura izan.



AGUSTIN OYANGUREN

## Bost garaipen, Ribabellosan

**HOCKEYA** Joan den zapatuan Burdinola Irristaketa Klubeko ordezkariek zazpi partidu jokatu zituzten, kategoria ezberdinetan, Ribabellosako Dragonsen kontra. Emaitza oso onak izan zituzten, bost partidu irabazita itzuli ziren eta. Kadete mailan, esaterako, Euskal Ligan bigarren daude.

## Arnaizek ondo hasi du 2018a

**DUATLOIA** Joan den domekan egin zuten Galizanoko 24. duatloia, Kantabrian; bada, Beñat Arnaizek denboraldi hasieratik gura izan ditu helmugan besoak jaso. Hala, aretxabaletarrak bi minutuko tartearekin irabazi zuen lasterketa (1.19.22), Ander Okamikaren (1.21.17) eta Julen Diezen (1.21.26) aurretik. Aurten ere distantzia luzeak ditu begiz jota.



B.A.

# Europako txapelketan egon gura du Axpek

Maialen Axpe arrasatearrak Europako aire libreko salto txapelketan jarduteko marka lortu duela zabaldu da asteon. Baina Espainiako Federazioak jakinarazi du bost zentimetro falta izan zaizkiola horretarako. Amore eman barik, hori lortu guran dabil

**Iker Oñate** DEBAGOIENA

Marka pertsonala hobetu du Maialen Axpe pertika-jauzilari arrasatearrak: 4,40 metroko mugaren gainetik egin du salto Espainiako Selekzioak antolatutako kontrol saioan. Eta bost zentimetro besterik ez zaio falta izan Europako txapelketan jardun ahal izateko. Dena den, Axpe "pozik" da lortutakoarekin: "Sekulako lorpena da. Ez nuen espero denboraldiko fase honetan halako jauzia egiteko gaitasuna izaterik. Azken urteetako hobekuntza ikusirik, bagenekien marka ona lortzeko aukerak nituela; baina, esan moduan, ez nuen espero marka hori egitea. Duda barik, horrela segitzea da bidea". Izan ere, marka pertsonala 4,30 metroan zuen ezarria, aire zabalean.

Nahasmen egoera izan zen hasierakoa. Europako aire zabaleko txapelketan jarduteko marka erdietsi zuela zabaldu zen. Hori uste zuen hark ere: "Oraindik saiakera bat falta zitzaidan, eta ez egitea erabaki nuen, gutxieneko marka gainditua nuela pentsatuta. Finean, lesioa ekarri dezake saiakerak. Beraz, tarteka, hobe izaten da saioa bere horretan uztea".

Zehatz esanda, Europako txapelketan jardun gura duenak 4,45 metrotik gora egin behar du salto; eta gutxieneko muga hori 4,40 metroan zegoela uste zuten Axpek eta haren entrenatzaileak. Azaldu duenez, Espainiako Federazioak eskura dituen zenbait dokumentu izan ziren konfusiorako bide: "4,40 metroko gutxieneko muga ageri da horietan. Beraz, barkamena eskatu digute asteon".

**Aurrera begira**

Hala, aurrera begira jarria da Axpe. Eta helburu berarekin dihardu: Europako aire zabaleko txapelketan jarduteko txartela erdiestea. Orain, burubelarri ari da prestakuntza lanetan. Hain zuzen ere, Iruñean entrenatzen da; eta, Larrabiden, Francis Hernandez entrenatzailearen laguntza du horretarako. "Berdinean segituz gero, hor egongo da Europako txapelketarako sailkatzeko aukera. Dena den, helburua lortzen ez badugu, ez da ezer pasatuko; lanean segituko dugu, orain arte bezala", dio Axpek. Abuztura arte du marka gainditzen saiatzeko.



Maialen Axpe, Iruñeko kontrol saioan, zapatuan. MAIALEN AXPE

## Proba gehiago ibarreko atletentzat

Asteburuan hitzordua dute ibarreko zenbait atletak. Batetik, Ourensen izango dira Ibai Fernandez eta Andoni Calbano lasterkariak, junior kategorian –pista estaliko Espainiako txapelketa–. Eta, bestetik, Antequeran dute hitzordua gazte mailako Alex Agirianok eta Mikel Agirrek; luzera-jauzian dihardute horiek biek.

**Bolada onean**

Bolada onari segida eman guran joango dira atletak proba horietara. Izan ere, aitortzaz beteriko asteburua izan zuten aurrekoa. Fernandezek urrea eroan zuen junior kategorian eta Calbanok, ostera, zilarra –60 metroko lasterketa–. Horrez aparte, bestelako aitortzarik ere izan zen Calbanorentzat: urrezko domina eskuratu zuen 200 metroko lasterketan. Eta, bestetik, bide beretik jardun zuten gazte mailakoek: urrezko domina eskuratu zuen Agirianok luzera-jauzian eta brontzezkoa Agirrek.

Gainera, aipatutako horiek ez ziren aurreko asteburuko lorpen bakarrak izan. Besteak beste, pista estaliko Euskadiko atletismo txapelketan lehiatu zen Sara Ugarteburu elgetarra; eta brontzezko domina eskuratu zuen altuera-jauzian. Zehatz esanda, gazteen mailan dihardu Ugarteburuk.

## ASTE BUKAERAKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

EUSKAL LIGA, EMAKUM.

**Leintz Arizmen.-Pauld.**
Domeka. 16:30. Mojategi.

OHOREZKO ERREGIONA.

**Pasaia-Aretxabaleta**
Zapatua. 16:30. Errenter.

**Real Union-Bergara**
Zapatua. 15:30. Irun.

**Oiartzun-Mondra**
Zapatua. 15:30. Oiartzun.

ERREGIONAL PREFERE.

**Antzuola-Lagun Onak**
Zapatua. 16:00. Estala.

**Zestoa-Aretxabaleta**
Zapatua. 16:00. Zestoa.

**Beasain-Mondra**
Domeka. 12:00. Beasain.

**Zumaiako-Bergara**
Zapatua 17:00. Zumaia.

**Ikasberri-Aloña Mendi**
Zapatua. 15:30. Azpeitia.

EMAKUMEZK. KOPA

**Urola-Aloña Mendi**
Domeka. 15:30. Zumar.

EMAKU. IGOERA FASEA

**Bergara-Eibar**
Domeka. 12:00. Ipintza.

**ARETO FUTBOLA**

NAZIONAL MAILA

**Otxartabe-Aretxab. UDA**
Zapatua. 18:15. Bilbo.

EUSKADIKO TXAPELK.

**Mondrate-Sestao**
Zapatua. 17:30. Musakol.

**Eskoriatza-Labastida**
Zapatua. 18:30. Man. M.

**SASKIBALOIA**

EBA

**Easo-MU**
Zapatua. 20:00. Donostia.

GIPUZKOAKO LEHEN M.

**Aloña Mendi-Alkideba**
Domeka. 12:00. Zubikoa.

GIP. BIGARREN MAILA

**AIB-Berg. Soraluce**
Zapatua. 20:00. Irun.

EMAKUMEZKOAK

**Easo-Eskoriatza**
Domeka. 12:00. Donostia.

**ESKUBALOIA**

EUSKADIKO TXAPELKE.

**Ford Mugarri-Donibane**
Domeka. 12:15. Iturripe.

**Aloña M.-Askartza**
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

EUSKADI. TXAP. EMAK.

**Bera Bera-Aloña Mendi**
Zapatua. 16:00. Donostia.

GIPUZKOAKO TXAP.

**Sesiñena-Eibar**
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Urnieta-Soraluce BKE**
Zapatua. 18:30. Urnieta.

**PILOTA**

PILOTA FEDERATUA

**Oñati:**
Gaur. 19:00. Hiru partidu.

**Aretxabaleta:**
Gaur. 19:00. Hiru partidu.

**Bergara:**
Gaur.19:30. Bi partidu. Martitzenean, berriz, Soraluce Lau t'erdiko partiduak.

# Maila ez galtzeko lehian da Arrasate-Arlutz xake taldea

Bi jardunaldi besterik ez zaie geratzen denboraldia bukatzeko. Zapatuan dute hurrengo hitzordua

**I.O** DEBAGOIENA

Ohorezko Mailan segitzeko lehian da Arrasate-Arlutz xake taldea, eta bi jardunaldi dituzte jokatzeke. Bihar dute lehen hitzordua, Aretxabaletako lokalean –Irala plazan–, Tuterako Santa Ana taldearen kontra, 16:00etan. Eta ohi moduan jardungo dute: Josu Tornayk lehen xake-taulan; Asier Etxagibelek bigarrenean; Aitor Alcaidek hirugarrenean; eta Txema Hernandok, berriz, laugarrenean.

Gaur-gaurkoz, azken postuan dira Arrasate-Arlutzekoak, Abadiñoko xake taldekoekin berdinduta –hamar talde daude, eta bi jaitsiko dira–. Dena den, ez dute amorerik eman, eta azken bi partiduetan goraka egiteko esperantzarekin dihardute: "Ez jaisteko lehian dauden zenbait taldek hitzordu gogorrak dituzte; ahalegin handiak egin beharko dituzte punturen bat eskuratu gura badute. Geuk, ordea, konfiantzarekin dihardugu. Hala, gutxienez, berdinketa bat lortu nahi genuke Santa Anaren kontrako lehian", azaldu du Josu Tornayk, Arrasate-Arlutz xake taldeko kideak. Berdintzekotan, bi puntu lortuko lituzkete –lau puntu daude jokoan–, eta, ondo bidean, zazpigarren sailkatuaren parean hasiko lukete azken jardunaldia; gaur-gaurkoz, Santurtzikoak daude zazpigarren postuan, bederatzi punturekin.

**Azken jardunaldia, Burgosen**

Martxoaren 10ean emango diote bukaera denboraldiari, Miranda de Ebron (Burgos); Irungo Batalla xake taldea izango dute aurkari. Hain zuzen ere, azken jardunaldia izanda, martxoaren 10ean txapelketako talde guztiek jardungo dute bertan.

# Donostia Antzerki Saria 'Mami Lebrun' lanak

Kepa Errasti aretxabaletarraren Xake Produkzioak konpainiaren antzezlanak jasoko du Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Donostia Kulturak antolatzen duten saria. Heriotzari buruz umorez eta samurtasunez helduei kontatutako istorioa da

**A. Aranburuzabala** ARETXABALETA
Martitzenean jakinarazi zuten Kepa Errastik idatzi eta Xabier Ormazabalekin batera 2016an sortu zuen Xake Produkzioak konpainiak ekoiztutako *Mami Lebrun* lanak jasoko duela aurtengo Donostia Antzerki Saria: 12.000 euro eta Chari Goienetxe artistaren *Ilargia* artelana, hain zuzen. Antzerkiaren Nazioarteko Egunean, martxoaren 27an, egingo dute sari banaketa ekitaldia Victoria Eugenia antzokian, 19:30ean. Saria jasota, antzezlana eskainiko dute gero.


*Mami Lebrun* antzezlanean, Ane Pikaza eta Kepa Errasti aktoreak. IMANOL SORIANO

**Epaimahaikideen esanak**
Erreferentziazko saria izan da Errastirentzako beti Donostiakoa. "Azken urteetako irabazleak, eta, orokorrean, parte hartzaileak asko gustatu zaizkit; konpainia horiek bide bat zabaldu dute, eta bide horren parte sentiarazten gara orain gu ere".

Helduendako hemeretzi antzezlan eta 33 emanaldi eskaini dira Donostian 2017an; horietatik hamabost lan lehiatu dira. Amama hil berri zitzaiola idatzi zuen Errastik, eta askotariko osagaiak ditu: dantza, musika, umorea, gertutasuna... Epaimahaiaren esanetan, "sorkuntza handiko lana izateaz gainera, energia handikoa da eta ikuslea hunkitzen du". Heriotza naturaltasun osoz eta era egokian jorratzea eta euskararen erabilera egokia ere goraipatu zuten: "Lan biribila, besteak beste, euskalkien bidez bereizten direlako pertsonaiak". Gustura hartu zituen Xake-ko lantaldeak lore horiek. "Sarritan, ez zara transmititzen dituzun gauza guztiez jabetzen, kanpotik esaten dizuten arte, eta eskertzekoa da. Euskalkiak hasieratik erabili gura izan genituen; gaiaren tratamenduari buruz, umorea sartzen asmatu dugula esango nuke".

**"SARRITAN, EZ ZARA JABETZEN TRANSMITITZEN DUZUN GUZTIAZ"**
KEPA ERRASTI, AKTOREA

**Maiatzaren 4an 'Lur' lana**
Publiko guztiarentzako lana estreinatuko dute Tolosan. "Ane, haur transexuala da protagonista, eta horren inguruan sortzen diren konfliktoei buruzko istorioa da. Aneren aita naiz ni".


IMANOL SORIANO

## Haizea Aranak, finalerako txartela

Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketaren bigarren saioa jokatu zuten Oñatin. "Saio dotorea" eginda, eskoriatzarrak eskuratu zuen Lasturren apirilaren 20an jokatuko duten finalerako txartela. Oñatiko Aitor Tatiegi saio berean lehiatu zen. Oihana Arana eskoriatzarra Ereñotzun lehiatuko da martxoaren 9an eta Oñatiko Xabier Agirre Anoetan, martxoaren 16an.

## Beratu musika jaialdiko kontzertuetako sarrerak salgai

Maria Arnal i Marcel Bages-en eta Delorean eta Lumi taldeen emanaldietarako sarrerak, 'Bibe.me' atarian

**Aitziber Aranburuzabala** OÑATI
Martxoaren 18tik 25era bitartean egingo du Oñatiko Udalak askotariko herriko eragileekin eta Ahotsenearekin elkarlanean musikagintza gertutik ezagutaraztea helburua duen Beratu jaialdia. Azken ukituak ematen ari dira, eta martxoaren 6an, martitzena, 18:00etan batuko dira berriz ere antolaketako taldeko kideak Eltzia gunean. Deialdia irekia da; hortaz, jaialdian lagundu gura duen edonor joan daiteke. Informazio gehiago: *info@beratu.eus* atarian.

Eskaintza zabala dakar Beratu-k, askotariko kontzertuak, adibidez. Emanaldi batzuk doakoak dira, baina ordaindutako sarrera izango dute aurkezpen egunekoak eta martxoaren 24an gaztelekuan izango denak. *Bibe.me* atarian eros daitezke, zortzi eta hamar eurotan.

Martxoaren 25ean DJ Makalak 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzako APP Musika tailer bi egingo ditu gaztelekuan. Smartphonea edo tableta eta aurikularrak eraman behar dira. Izena emateko: *info@beratu.eus*.

ERREPORTAJE BEREZIA
GOIENA TELEBISTA, 'BIKI BIZI'
MARTXOAREN 8AN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
BIKIAK, GENETIKOKI BERDIN-BERDINAK, ETA IZAERAZ?
goiena
Zu hemen zaude.


# Arregiren monolitoak, izan zirenak gogoratzeko

Gasteizko Udala sortzen ari den memoria-guneetarako ari da Iñigo Arregi Arrasateko eskultorea egunotan lanean; 1936 eta 1945 urte bitartean frankismo garaian izan ziren biktima guztien omenez, plakadun lau monolito eta eskultura bat sortu ditu

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Azkenaldian lanpetuta dabil Gasteizko Udalak egin dion enkarguekin. Memoria-guneetarako lau monolito eta udaletxe ondoan jartzeko eskultura handi bat bukatzen ari da Iñigo Arregi eskultorea. Horrelako lanak egitea oso gustuko duela dio, egiteko lan emotiboak direlako eta, era berean, beharrezkoak ikusten dituelako horrelako aitorpenak. Hainbat lan ditu aurrez Arregik Gasteizen. "Lotura handia dut betidanik Gasteizekin, eta hiri handia izanik oso gustuko dut kaleetan nire lanak erakustea. Arazoren bat edo beste izan den arren, iaz, esaterako, Martxoaren 3ko gertakariak gogora ekartzeko egin nuen lana margotu egin zuten ezezagun batzuek, baina, orokorrean, errespetatzen dira", azaldu du Arrasateko artistak.



Arregi monolitoekin. JAIME OSINAGA

**Lau memoria-gune**

Gasteizen frankismoaren ikur edo gune izan ziren tokiak memoria-gune bihurtu gura ditu Gasteizko Udalak, eta dagoeneko hasi da horretan. "Otsailaren 22an kanposantu parean jarri zuten lehenengo monolitoa, 33 lagun fusilatu zituzten tokian. Atzo, eguena, jarri zuten bigarrena Jesusen Bihotzaren ikastetxean, emakume atxilotuak eramaten zituzten eraikinean. Martxoaren 7an Arabako Kartzela Zaharrean jarriko dute; eta martxoaren 15ean laugarrena, Aita Karmeldarren plazako Atxiloketa Zentroan, hain justu.

Aipatutako monolito horiei buruz zera azaldu du Arregik: "Lauretan diseinu bakarra da; hau da, 85 zentimetroko altuera duten euskarriak dira eta gainean plaka bat dute, kokatuta dagoen tokiaren araberako testuarekin. Testu horietan zer jarri Udaleko ordezkariek erabaki zuten. Euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez idatzitako testuak dira; eta, berrikuntza moduan, QR kode bat ere badute plakek, informazio zabalagoarekin. Erabili dudan materiala herdoildutako kortezko altzairua da oraingoan ere".

**Gonzalez alkateari, eskultura**

Monolitoez gainera, Gasteizko alkatea izan zen eta 1937ko martxoaren 31n frankistek fusilatu zuten Teodoro Gonzalez Zarateren omenez eskultura jarriko dute martxoaren 31n udaletxearen ondoan. "Teodoro eta, orokorrean, frankismoaren biktimak omentzeko ekitaldia egingo dute egun horretan. "Bi metro eta erdi ditu eta hiru xaflarekin egindakoa da. Nire estiloan oinarritutakoa da".

**Lagunarteko erakusketa dendan**

Proiektu pertsonal gehiago dituela kontatu du, baita beste artista batzuekin sortutakoak ere; adibidez, martxoaren 8ra arte dendan duen erakusketa kolektiboa. "Hamazortzi artistaren lanak batu ditugu. Ibilbide luzea dute guztiek; Debagoienekoak dira gehienak, baina badira kanpokoak ere. Hiru lan izan ezik, margolanak dira gehienak. Harrera ona izan dute".

## Anita Parker eta Nogen musika taldeak Oñatiko gaztelekuan

Pop eta swing estiloetako doinuak nagusituko dira gaur, egubakoitza, 22:30ean hasiko den kontzertu bikoitzean

**A. A.** OÑATI

Arrasateko Gose taldearen errautsetatik sortu zuten Anita Parker. Jon Zubiaga *Osoron*-ek eta Iñaki Bengoak, hasiera baten, Gose taldearentzako ziren kantu berriak egin zituzten, baina taldea bertan behera geratu zen, eta abestiei irtenbidea emateko proiektu berria abiarazi zuten Ane Martinezekin (Zango) eta Olatz Anduezarekin (Skalariak).

Durangoko Azokan aurkeztu zuten taldearen izen bereko lana; Zubiagaren esanetan, elektronika, gitarra, baxua, teklatua, eta bestelakoen nahasketa da. "Swing estiloa gailentzen dela esango nuke, baina dantzagarria den guztia sar daiteke gure nortasun eta filosofia horretan".

2016an Donostian sortu eta zale asko dituen Nogen folk pop boskotea izango dute agertokian lagun. Euskaraz eta ingelesez abesten dute, ukelelea osagai nagusi duten doinuetan.

Kontzerturako sarrerak zortzi eurotan izango dira leihatilan.


Goiena Klubaren txokoa

**Izarren liga Goiena Klubean!**

SD EIBAR- REAL MADRID

Partidurako 2 sarrera bikoitz ditugu.

Martxoaren 10ean, 13:00etan.

**PARTE HARTZEKO: MARTXOAREN 5ERA ARTE**

**Posta elektronikoz:** kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "Eibar" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

**Irabazi 'Tribial feminista' jokoa**



**'Tribial feminista' jokoa dugu zozketagai**

Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailari esker

**PARTE HARTZEKO: MARTXOAREN 7RA ARTE**

**Posta elektronikoz:** kluba@goiena.eus **Whatsappez:** KLUBA "Tribial" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

**Irabazi bi lagunendako sarrerak**

**Bergarako Udalari esker**

*"HQ quartet eta Susana Cordon"* kontzerturako sarrerak ditugu.

Bergara | Seminarixoa | Martxoaren 10ean | 19:00etan

**Arrasateko Udalari esker**

*"La casa de Bernarda Alba"* antzerkirako sarrerak ditugu

Arrasate | Amaia Antzokia | Martxoaren 10ean | 19:30ean

**PARTE HARTZEKO: MARTXOAREN 7RA ARTE**

**Posta elektronikoz:** kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "Kontzertua / Antzerkia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

**Irabazi bi lagunendako otordua**

MAUXKA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otordua* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 *kluba@goiena.eus*

*KLUBA Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.




*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...




Bazkidetu orain. Urteko kuota 56€.
Deitu: 943 25 05 05. *kluba@goiena.eus*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ESKER ONA



## Ines Mendizabal Aguirre

Miguel Garateren alarguna

2018ko otsailaren 16an hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Ondra meza zapatuan izango da, martxoaren 3an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2018ko martxoaren 2an.

ESKER ONA



## Ana Maria Guridi Sagastizabal

Sebastian Echeverria Txintxurretaren alarguna

2018ko otsailaren 20an hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Ondra meza martxoaren 3an izango da, zapatua, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2018ko martxoaren 2an.

ESKER ONA



## Patxi Arriola Arregi



2018ko otsailaren 24an hil zen, 86 urte zituela.

Sendikoen izenean, eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

—

*Agurrik ez, gero arte.*

Aretxabaletan, 2018ko martxoaren 2an.

2. URTEURRENA



## Rosalia Gamboa Murgoitio

Timoteo Idigorasen alarguna

2016ko martxoaren 8an hil zen, 90 urte zituela.

Bigarren urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 4an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

—

*Beti izango zaitugu gure bihotzean.*
*Maite zaitugu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, senidekoen izenean.
Eskoriatzan, 2018ko martxoaren 2an.

URTEURRENA



## Josefa Askasibar Lazkano

Alejandro Bolinagaren alarguna

2017ko martxoaren 2an hil zen, 98 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 4an, 12:00etan, Elgetako Jasokundeko Amaren parrokian.

—

*Gure ondotik joan zinen*
*baina beti izango zaitugu gure bihotzean.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Elgetan, 2018ko martxoaren 2an.




## HILDAKOAK

**Ana Maria Guridi Sagastizabal.** Oñatin, otsailaren 20an. 81 urte.

**Feliciana Garcia Fraile.** Arrasaten, otsailaren 22an. 96 urte.

**Carmelo Bengoa Ortega.** Aretxabaletan, otsailaren 23an. 88 urte.

**Mariano Perales Muñoz.** Arrasaten, otsailaren 23an. 89 urte.

**Eliodoro Blanco Moreno.** Bergaran, otsailaren 23an. 70 urte.

**Patxi Arriola Arregi.** Aretxabaletan, otsailaren 24an. 86 urte.

**M. Dolores Murillo Fuentes.** Bergaran, otsailaren 26an. 58 urte.

**German Sanchez Garzon.** Arrasaten, otsailaren 27an. 56 urte.

**Iñaki Oianguren Aranburuzabala.** Eskoriatzan, 28an. 62 urte.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| **ARRASATE** *EGUNEZ* | |
|---|---|
| **Egubakoitza, 2** | ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 |
| **Zapatua, 3** | ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15 |
| **Domeka, 4** | M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99 |
| **Astelehena, 5** | FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26 |
| **Martitzena, 6** | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39 |
| **Eguaztena, 7** | SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74 |
| **Eguena, 8** | ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |

| **BERGARA** *EGUNEZ* | |
|---|---|
| **Egubakoitza, 2** | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |
| **Zapatua, 3** | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| **Domeka, 4** | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| **Astelehena, 5** | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| **Martitzena, 6** | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| **Eguaztena, 7** | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| **Eguena, 8** | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |

| **OÑATI** *EGUNEZ BAKARRIK* | |
|---|---|
| **Egubakoitza, 2** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| **Zapatua, 3** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| **Domeka, 4** | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 5** | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 6** | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| **Eguaztena, 7** | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| **Eguena, 8** | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |

**ARRASATE** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
**2018ko abenduaren 31ra arte:**
IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

**BERGARA** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
**2018 osoan:**
MOZOS: Iparragirre 2
943 76 12 15

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.



## TXUTXU-MUTXUAK


1


2


3


4


5


6

# Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *berriak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**
Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

**1. Ohorezko sakea, Eibarren**
Malen Ruiz de Azua atletak egin zuen sakea Eibarrek, eguaztenean, Ipuruan jokatu zuen norgehiagokan. Pello Osoro eta Odei Jainaga ere egon ziren ekitaldian.

**2. Apotzaga auzoa ezagutzen**
Iaz 40 lagun egon ziren Apotzaga eta Apotzagaetxebarri auzoak ezagutzen, Aitor Antxia Leturiarekin. Hango altxorrak eta lekurik esanguratsuenak bisitatu zituzten.

**3. Sagardotegira irteera**
Bergarako kirol elkarteko futbol saileko jokalariek eta arduradunek futbol zelaitik sagardotegira egin zuten salto, orain artekoak ospatzera eta talde-lana egitera.

**4. Otzaurte eta Araia aldera**
Hamabost kilometroko ibilaldia egin zuten Aloña Mendiko mendi taldekoek. Zirauntza ibaiaren iturburu ikusgarritik pasa ziren, Otzaurtetik Araiara arteko paseoan.

**5. Jolasean, Musakolako ludotekan**
Azken-aurreko saioa egin zuten aurreko zapatuan. 20 neska-mutiko egon ziren eta San Blas opilak egin zituzten. Kartoiarekin txabolak egin zituzten.

**6. Pol-Polekoak, Arrate inguruan**
Bergarako Pol-Pol mendi taldekoek Elgoibar-Arrate-Ermua ibilaldia egin zuten otsailaren 25ean. Ederto ibili zirela esan dute. Hurrengoa hilaren 11n izango da.

# ZORION AGURRAK



ARRASATE
**Uxue Kortabarria Maskariano**
Martxoaren 8an, 8 urte. Zorionak, Uxue! Zortzi urte bete ditu gure etxeko poxpolintxuak! Muxu potolo bana: Naroa, amatxo eta aitatxo.



OÑATI
**Unai Sanchez Gomez**
Martxoaren 7an, 4 urte. Zorionak, Unaitxo! Ze handia zaren! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Muxu handi bat, familiaren partetik!



ARRASATE
**Nagore Barandiaran Garai**
Martxoaren 7an. Zorionak, laztana! Aurten 10 urte beteko dituzu. Adin berezia eta merezi duzun bezain ondo ospatzea eta gozatzea espero dugu. Zoragarria zara eta halaxe jarrai dezazula beti. Muxu eta besarkada handi bat, familia osoaren partetik. Izugarri maite zaitugu!



ARETXABALETA
**Garikoitz Arrese Serrato**
Martxoaren 6an, 4 urte. Zorionak, Garitxo, etxeko hiruron partetik!



ANTZUOLA
**Intza Lizarralde Jimenez**
Martxoaren 6an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko denon partetik. Ondo pasatu eguna!



ARRASATE
**Luken Martin Ayani**
Martxoaren 6an, 7 urte. Zorionak, Luken, txapeldun! Zazpi urte hauek topera ospatu familiarekin eta lagunekin. Muxu erraldoi bat, familiaren partetik!



OÑATI
**M. Francisca Arrue eta M. Iratxe Maiztegi**
Zorionak, bikote! Astelehenian, martxoak, 5, betetzen dituzte urteak bixak. Amandriak 95 eta bilobak 10. Ondo pasatu, denon partetik, eta urte askotarako!



ARETXABALETA
**Unax Barandiaran Otxoa**
Martxoaren 4an, 3 urte. Zorionak, bihurri! Laztan potolo bat, danon partetik.



OÑATI
**Natale Kortabarria Txintxurreta**
Martxoaren 4an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat, etxekoen partetik!



OÑATI
**Elene Axpe Zubizarreta**
Martxoaren 3an, 7 urte. Zorionak, *txikita*, etxeko danon partetik. Ondo pasatu eguna.



ARETXABALETA
**Oier Urkia Lezeta**
Martxoaren 2an, 8 urte. Zorionak, Oier! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna, Koruetako familiaren eta Beltzen partetik. Muxu handi bat!



ARRASATE
**Xuban Apraiz**
Martxoaren 2an, 7 urte. Zorionak, potxolo! Oso ondo pasatu eguna. Aitatxo, amatxo eta Uhaitz.



ARRASATE
**Naiara Oroiz Muñez**
Martxoaren 2an, 11 urte. Zorionak, Naiara! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta musu asko, zure familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Lexuri Altube Arkonada**
Martxoaren 2an. Urte askotako, printzesa! Jada zazpi urte! Jarraitu zaren bezain maitekor eta formal. Muxu asko, aitatxoren, aitatxoren eta Laiatzen partetik.



ARETXABALETA
**Andoitz Gomez Iturbe**
Martxoaren 1ean, 10 urte. Zorionak, Andoitz! Hamarkada berria esperientzia berri eta gozagarriz betea etor dadila. Muxu erraldoiak, familiaren partetik.



BERGARA
**Carlota Rodriguez Blanco**
Martxoaren 1ean, 5 urte. Zorionak, Carlota! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat, etxeko guztion partetik.



ARRASATE
**Izadi Ramos Trenado**
Martxoaren 1ean. Zorionak *bollito*! Urtetxo bat! Oso ondo pasau zure egunien! Muxu potoloa Hodeiren eta familixa osoaren partetik. Ilargiraino maite zaitugu!



OÑATI
**Julen Odriozola Larrañaga**
Martxoaren 1ean, 4 urte. Zorionak, Julen! Ondo pasatu zure egunian, maittia! Patxo pila bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Garazi Moreno Rozas**
Otsailaren 28an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zeure eguna. Patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
**Unai Bolibar Amor**
Otsailaren 28an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Dagoeneko sei urte bete dituzu. Zorionak etxeko guztion partetik, muxu handi-handi bat eta egun zoragarria pasatu.



OÑATI
**Ane Garcia Calzada**
Otsailaren 28an, 8 urte. Allau zatzu azkenian eguna! Mila kilo zorion, maittia! Maite zaitugu! Enararen, Hegoiren, aitatxoren, amatxoren eta familia guztiaren partetik!



OÑATI
**Anje Gezalaga Rodriguez**
Otsailaren 27an, 4 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Muxu handi bat, etxeko guztion partetik!



BERGARA
**Intza eta June Guerrero Beistegi**
Otsailaren 26an, urtebete. Zorionak, pitxinak! Ondo ospatu zuen lehenengo urtebetetze eguna. Muxu handi bat, familiaren eta, bereziki, Haizearen eta Unaxen partetik.



ARAMAIO
**Jule Lizarralde Errasti**
Otsailaren 26an, 4 urte. Zorionak, Jule! Lau urtetxo, neska handi! Patxo bat danon partetik. Batez be Maddik eta Ilarek!



ANTZUOLA
**Haritz Rodriguez Martin**
Otsailaren 25ean, 8 urte. Zorionak etxeko mutil handiari! Etxeko guztion partetik, muxu handi bat. Batez ere Manexek.



BERGARA
**Aitor Perez Elkorobarrutia**
Otsailaren 24an, urtebete. Zorionak, maitxia! Patxo eta besarkada handi bat, familia osoaren partetik! Bereziki, Hodei eta Maddi.



ANTZUOLA
**Paule Acosta Segurola**
Otsailak 16an, urtebete. Zorionak, Paule! Urtetxo bat jadanik. Muxu potoloak! Maddi, amatxo, aitatxo, izeba-osaba eta aiton-amonak.

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.**

**Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 2

**ARETXABALETA Ixadebalde azoka**
Aretxarte elkarteko merkatarien likidazio azoka. 100 euroko bonuak zozketatuko dituzte.
*Komentuan, 10:00etan.*

**ELGETA Umeendako ipuin kontalari tailerra**
Eneko Haritzaren tailerra, 8 urtetik gorako neska-mutikoendako.
*Liburutegian, 17:00etan.*

**OÑATI 'Oñatiko Gazteburua'**
18:00etan *Muntai polizialak* delako mahai ingurua, eta 20:00etan Josu Zubia, Aitor Regueiro eta Haritz Olaeta bakarlarien emanaldia.
*Gaztetxean, 18:00etan.*

**ARETXABALETA 'Emakumea' erakusketa**
Ainhoa Caberoren bilduma. Gaur zabalduko dute eta ikusgai egongo da hilaren 30era arte.
*Gaztetxean, 18:00etan.*

**OÑATI 'Doluak eta galerak bola kudeatu' hitzaldia**
Patxi Izagirrerekin, 6-11 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako.
*Bidebarrietan, 18:15ean.*

**OÑATI 'Humanos y carroñeros: beneficios de una relación ancestral' berbaldia**
Antoni Margalida biologoak egingo du berba, Ingurumen Jardunaldien baitan.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Bertso afaria Lujanbio eta Mendiluzerekin**
Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze bertsotan.
*Hibai Gain elkartean, 21:00etan.*

**BERGARA Willis Drummond eta Rukula taldeak**
Kontzertua egingo dute. Sarrerak, bost euro.
*Gaztetxean, 22:30ean.*

**BERGARA Atomic Megalooon taldea**
Zuzenekoa. Debalde.
*Aldoka tabernan, 22:30ean.*

**BERGARA Hara! musika taldea**
*Adikzioak, minak eta desirak* diskoa aurkeztuko du.
*Bule tabernan, 23:00etan.*

## ZAPATUA 3

**OÑATI Zuhaitz Eguna**
Mintegi ezberdinetako fruta arbolak, hostozabalak, landareak... Oñatiko Ingurumen Jardunaldietako ekintza.
*Foruen plazan, 09:00etan.*

**ARETXABALETA Ixadebalde azoka**
Aretxarte elkarteko merkatarien likidazio azoka. 100 euroko bonuak zozketatuko dituzte.
*Komentuan, 10:00etan.*

**ARRASATE Argazkigintza ikastaroaren hasiera**
Hastapen mailakoa izango da eta Sergio Gonzalezek emango du. Oraindik badago lekua.
*Kulturaten, 10:00etan.*

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**
Musakolako azken saioa egingo dute. Martxoaren 10etik aurrera San Andresen egongo dira.
*Ludotekan, 10:30ean.*

**BERGARA 'Lurraren ezagutza eta ongarri ekologikoa' berbaldia**
Biolur-eko Leire Ibarretxek egingo du berba, azalpenak emateko.
*San Juan auzoko ermitan, 10:30ean.*

**DEBAGOIENA 'Emakumeok planto' martxa Elorregira**
Antzuolakoak eta Bergarakoak 10:00etan Oxirondo azokan, Aretxabaletakoak 10:30ean Biteri plazan, Arrasatekoak 10:30ean Biteri plazan eta Oñatikoak 10:45ean Eltzian.
*Herri bakoitzaren araberako orduak.*

**OÑATI Josep Pamies**
*Dolca Revolucio* mugimenduaren sortzailearen, sendabelarretan adituaren eta elikadura burujabetzaren bultzatzailearen berbaldia.
*Santa Anan, 11:30ean eta 19:00etan.*

**OÑATI Oñatiko Gazte Eguna**
12:00etan, bertso saio musikatua, Ona aurreko plazan; 13:30ean, triki-poteoa; 14:30ean, bazkaria; 17:00etan, presoen aldeko argazki erraldoia; eta 22:00etan, Drakes eta Los WC taldeen kontzertua.
*Gaztetxean.*

**ARRASATE 'Izar' antzezlana**
Umeendako. Pianoa jotzen duen 9 urteko neskato baten bizipenak kontatzen dituen lana. Sarrerak, bost euro.
*Gaztetxean, 18:00etan.*

**BERGARA 'Rockanrolla mailu bat da' aurkezpena**
La Banda del Abuelok eta Josu Arteagak auzolanean sortu duten CD-liburuaren aurkezpena.
*Gaztetxean, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Alanbrearekin eskulanak**
Oinarrizko teknikak ikasi eta alanbrearekin eskulanak. Gaztetxoendako ekintza.
*Ludotekan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA 'Fun Dantz!' dantza urbanoen lehiaketa**
Bi mailatan: gaztetxoen koreografiak eta lehiaketa nagusia.
*Kiroldegian, 18:30ean.*

**ESKORIATZA Urrestilla tabernaren urteurrena**
19:00etan luntxa, eta 23:00etatik aurrera prezio bereziak edarietan.
*Urrestilla tabernan.*

**ARRASATE 'Desaparezca aquí' bakarrizketa**
Martxoaren 8aren harira, Patricia Sornosaren saioa. Debalde.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**BERGARA 'Mozkorra parregarri'**
Opera komikoaren azken antzezpena egingo dute.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

## DOMEKA 4

**OÑATI Zuhaitz Eguna**
Herrigunean landatuko dituzte zuhaitz landareak. Oñatiko Ingurumen Jardunaldien baitan.
*Foruen plazan, 10:00etan.*



JULEN IDIGORAS

**OÑATI Nogen eta Anita Parker, gaztelekuan**
Bogan dauden bi talde elkarrekin. Donostiako boskoteak *Lys* izeneko disko laburra aurkeztuko du. Era berean, Iñaki Bengoaren eta Jon Zubiagaren talde berria azken diskoaren dator besapean. Sarrerak, zortzi euro.
*Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.*

**ELGETA Intxortako borrokaldiei buruzko bisita gidatua**
Aurrez izena eman behar da: 943-71 89 11 edo 943-79 64 63 telefonoetan.
*Espaloian, 10:00etan.*

**BERGARA Txistulari Bandaren kalejira**
San Antonio auzotik Lasara joango dira, kaleak alaitzen.
*San Antonio auzoan, 11:30ean.*

**ANTZUOLA Besoko moreak egingo dituzte**
Tailerra eta ostean, film emanaldia.
*Torresoroan,17:00etan.*

**ARRASATE 'Familian jolasean'**
0-8 urte arteko umeendako eta euren gurasoendako jolasak.
*Okendoko ludotekan, 17:00etan.*

**OÑATI 'Hegazti sarraskijaleak: garbiketa brigada isila' erakusketa**
Ingurumen Jardunaldietako bilduma, martxoaren 11ra arte. Tamaina errealeko erreplikak ikusteko aukera.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

## ASTELEHENA 5

**OÑATI Udaleku irekiak: izen-ematea zabaldu**
Gaurtik aurrera eman dezakete izena udaleku irekietarako eta arte udalekuetarako begirale izateko interesa dutenek.
*Udal bulegoetan, 09:00etan.*

**OÑATI Pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea**
Protesta ekitaldia egingo dute. Pentsiodunak eta erretiratuak gonbidatu dituzte.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ESKORIATZA Pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea**
Protesta ekitaldia egingo dute.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE 'Margotutako hormak' erakusketa**
Josune Murgoitioren bilduma ikusgai, hilaren 24ra arte.
*Kulturaten, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Jaiak antolatzeko batzarra**
San Pedro jaiei begira egin daitezkeen ekintzak eta proposamenak egiteko batzar irekia egingo dute. Herritar eta eragile guztiak gonbidatuta dituzte.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**OÑATI 'La casa de Bernardo Alba', literatur topaketa**
*La casa de Bernardo Alba.* Martxoaren 8 egunaren bueltan egingo duten saioa. Lehenengo, antzezlana ikusi, eta ostean, solasaldia.
*Zinema aretoan, 18:30ean.*

**ELGETA Julia Mongeren hitzaldia**
*Emakumeen esperientzia kolektiboa eta historikoa berreskuratzen.* delako berbaldia egingo du.
*Udaletxean, 19:00etan.*

## MARTITZENA 6

**ARRASATE Hondarribiara irteera: izen-ematea zabalik**
Pazko Astean, apirilaren 4tik 6ra, joango dira. Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren mailen arteko neska-mutikoendako. Izenak, ludotekan edo Gazte Bulegoan, hilaren 16a baino lehen.
*Ludotekan eta Gazte Bulegoan.*

**OÑATI Ingurumen Jardunaldia: bisita gidatua erakusketan**
Natur Eskolako kideek emango dituzte azalpenak sarraskijaleei buruzko erakusketan.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**OÑATI 'Zinegoak hedapena' emanaldia**
Gay-Lesbo-Trans jaialdiko pelikulak: *The migrant mixtape*, *Tailor*, *Marguerite*, *Little potato*, *Tarde para el recreo* eta *Ornitorrinco*. Debalde.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ARRASATE '120 pulsaciones por minuto' pelikula**
Robin Campillo zuzendariaren pelikula, 16 urtetik gorakoendako.
*Zabalotegin, 20:30ean.*

## EGUAZTENA 7

**BERGARA 'Euskal Herriko bitxi geologikoak' berbaldia**
Estibaliz Apellanizen eskutik, euskaraz.
*Seminarixoan, 10:00etan.*

**BERGARA 'Euskara lapikoa: oinarrizko euskara eta sukaldaritza' berbaldia**
Izen emateko: Jardun (943-76 36 61) edo Bizikasi (943-76 93 94).
*Jardunen, 11:00etan.*

**BERGARA Eguazteneko azoka**
Garaiko produktuak eta bertako baserritarrenak erosteko aukera
*Oxirondon, 18:00etan.*

**OÑATI Literatura solasaldia**
Ana Malagon idazlearen Gelditu zaitez gurekin liburuaren gaineko saioa egingo du euskarazko taldeak, Yurre Ugarte dinamizatzailearekin.
*Liburutegian, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Sueñan los humanos con androides cariñosos' liburua**
Juan Ignacio Montianoren azken lana aurkeztuko dute. Egilea ere bertan egongo da ikus-entzuleekin solasaldia egiteko. Irekia.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**OÑATI Arnaldo Otegiren berbaldia**
Miren Arregik egingo dio elkarrizketa EH Bilduren bozeramaile orokorrari.
*Santa Anan, 19:00etan.*

**BERGARA 'Zinegoak hedapena' emanaldia**
Gay-Lesbo-Trans jaialdiko pelikulak: *The migrant mixtape*, *Tailor*, *Marguerite*, *Little potato*, *Tarde para el recreo* eta *Ornitorrinco*. Debalde.
*Zabalotegin, 20:00etan.*

**BERGARA Rixe eta Vietcong 68 taldeak**
Punk-oi! musikaz gozatzeko aukera egongo da. Biek ala biek, euren azken diskoetako kantuak joko dituzte. Sarrerak, bost euro.
*Gaztetxean, 20:30ean.*

## EGUENA 8

**DEBAGOIENA Emakumearen Nazioarteko Eguna: elkarretaratzeak**
Herririk herri egingo dituzte aldarrikapenerako kontzentrazioak. Informazioa gehiagi, herrietako orrietan.
*Herri bakoitzean, ordu ezberdinean.*

**BERGARA Martxanteren gaineko erakusketa**
Talde feministari buruzko bilduma ikusgai gaurtik. Askotariko informazioa egongo da, hilaren 25era arte.
*Aroztegin, 18:00etan.*

**ESKORIATZA 'Frida' antzezlana**
Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, gazteleraz eta debalde. Musika, alkohola, maitasuna, utopiak, oroitzapenak... dituen festa bat da Frida Kahlo delakoa.
*Zaldibarren, 19:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**La forma del agua**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Salvando al reino de Oz**
Domeka: 17:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**El castillo de cristal**
Zapatua eta domeka: 19:30.

**Operacion cacahuete 2**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Tres anuncios en las afueras**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Boonie Bears y el gran secreto**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**El instante mas oscuro**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Paddington 2**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**Errementari (gazteleraz)**
Zapatua: 17:00.

**Errementari (euskaraz)**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.

**Handia**
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Black panther**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**La isla de los monstruos**
Zapatua: 17:00.

**ANTZOKIA**

**La isla de los monstruos**
Domeka: 17:00.

**Errementari (gazteleraz)**
Domeka: 20:00

**Errementari (euskaraz)**
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

**BOULEVARD**

**Gorrion rojo**
Egubakoitza eta zapatua: 00:15.
Egunero, martitzena izan ezik: 15:45, 18:35, 21:25.
Martitzena: 15:45, 18:35.

**Errementari**
Egunero, martitzena izan ezik: 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.
Martitzena: 16:10, 18:15, 22:25, 00:30.

**Sin rodeos**
Egubakoitza eta zapatua: 23:55.
Egunero: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

**50 sombras liberadas**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egunero: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

**Black panther**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egunero: 15:45, 18:30, 21:15.
Egunero, eguena izan ezik: 19:45.

**Todo el dinero del mundo**
Egunero, martitzena izan ezik: 19:50, 22:25.
Martitzena: 19:50.

**Lady Bird**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Martitzena: 16:30, 18:30, 20:30.

**Yo, Tonya**
Egubakoitza eta zapatua: 22:15.
Astelehenetik eguenera: 19:45, 22:15.

**La forma del agua**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egunero: 16:30, 19:00, 21:30.

**El corredor del laberinto**
Egubakoitza eta zapatua: 19:30.
Domeka: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Jumanji**
Egunero: 19:15.

**Tres anuncios en las afueras**
Egunero: 21:40.

**Una familia feliz**
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 17:50.
Domeka: 18:30.

**Cavernicola**
Egunero: 15:50, 17:40.

**Perfectos desconocidos**
Egunero: 22:45.

**Ferdinand**
Egunero: 17:00.

**La abeja Maya**
Egubakoitzetik domekara: 16:15.

**El cuaderno de Sara**
Egubakoitzetik domekara: 18:05, 20:20, 22:35.
Astelehenetik eguenera: 15:45, 18:05, 20:20, 22:35.

**Coco**
Egubakoitzetik domekara: 16:20.

**GORBEIA**

**15:17, tren a Paris**
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:30.
Zapatua: 16:15, 20:25.
Domeka: 16:15.

**La enfermedad del domingo**
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Heroes en el infierno**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:40, 22:25.
Domeka: 17:00, 19:40.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Gorrion rojo**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:40, 22:25.
Domeka: 17:00, 19:40.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.

**The black panther**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Sin rodeos**
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 20:30, 22:30.
Domeka: 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Jumanji**
Egunero, eguaztena izan ezik: 17:30.

**Call me by your name**
Egunero, eguaztena izan ezik: 19:50.

**Errementari**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 16:00, 18:10, 20:15, 22:30.
Domeka: 16:00, 18:10, 20:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**La forma del agua**
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00.

**El cuaderno de Sara**
Egunero: 17:30.

**El hilo invisible**
Egunero: 20:00.

**El hijo de Bigfoot**
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:00.

**Handia**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Los archivos del Pentagono**
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Florida project**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**La abeja Maya**
Domeka: 12:00.

**Coco**
Domeka: 12:00.

## KRITIKA

**La forma del agua** ★★★☆☆
**Zuz.:** Guillermo del Toro. **Aktoreak:** Sally Hawkins, Michael Shannon, Richard Jenkins.

# Baztertuen matxinada

**ANTONIO ZABALA**

Duela pare ba aste, tarte honetan, *The florida proyect* filmari buruz egin nuen berba. Film hartan, gizartetik baztertutako pertsonaien bizitzak azaltzen ziren, tonu errealista erabiliaz. Oraingoan, Guillermo del Torok, gizartetik aldenduak bizi diren pertsonaien istorio bat kontatzen digu, ipuin fantastiko baten bitartez. Istorioa 1960eko hamarkadako Gerra Hotzean kokatzen da. Sobietar Batasunak eta Ameriketako Estatu Batuek mundua kontrolatzeko zuten norgehiagoka nabarmena zen. Hori bai, ezkutuan. Ez zen guda ofiziala, baina euren espioi-zerbitzuek buru-belarri ziharduten lanean euren herrialdeen alde. Giro horretan, Del Tororen istorioak baztertuen matxinada kontatuko digu. Neska mutu bat, bere auzokide homosexuala, bere lagun beltza… Elkarrekin lan egingo dute Amazonasko basotik ekarritako izaki fantastiko baten bizitza salbatzeko. Hori lortzeko, munduko bi potentzia handien azpijokoak gainditu beharko dituzte.

*La forma del agua* pelikulak gizartean dauden talde baztertuen aldarrikapena egiten du. Guztiak batuz, posible da talde zapaltzaileei aurre egitea. Dena den, Guillermo del Toro ez da panfletoan erortzen. Kontatzen duen pelikulan, maitasuna, laguntasun harremanak, abentura eta fantasia nahasten ditu, besteak beste, ipuin polita osatzeko. Ipuin horretan pertsonaia onak eta txarrak daude, ez dago anbiguetaterako tokirik. Dena oso argia da.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

Zu hemen zaude.
goiena

AZKEN BERBA



MIKEL IRIZAR

## 20 urte barru

Ez dakit ondo zergatik, baina ez gara epe luzeko plangintzaren oso zaleak. Lauzpabost urteko planak bai, egiten ditugu ugari; neurri motzean trebeak gara. Seguruenik, erakunde publikoen lau urteko zikloak erakutsiko zigun legealdien arabera funtzionatzen. Baina hortik gora...

Euskararen prozesuarekin gertatu izan zait aldiro. Niri, oso logikoa egiten zait irudikatzea non egon nahi dugun eta non egon gintezkeen 20-25 urte barru, eta horren arabera planifikatzea nondik joan daitekeen, zein baliabide ditugun ibilbide hori egiteko, nola antolatu eragile ezberdinen artean, tarteko geltokiak eta neurketa sistema bat, jakiteko ondo ala txarto ari garen... Baina halako kontuekin hastean, beti aurkitu izan dut erresistentzia, ekintzari balio handiagoa ematea plangintzari baino.

Oraingoan, hala ere, badago dinamika bat epe luzeko ikuspegia lantzen ari dena. Eusko Ikaskuntzak 100 urte beteko ditu aurten –Oñatin bete ere– eta gure herriaren etorkizunaz argi luzea piztuta dabil, 700 inguru aditu eta ariturekin. Joan den astean Gasteizen izan ginen euskararen 2040ko egoera irudikatzen, ariketa interesgarrian. Emaitzak, udagoienean.

BUKATZEKO

# Martxoaren 3a: 42 urteren ondoren, arrastoa bizirik

1976ko martxoaren 3ko Gasteizko gertakariek aztarna utzi dute Euskal Herriko historian. Sarraskia gertatu zela 42 urte pasatu dira, eta Zaramagako Asisko San Frantzisko elizan egon ziren hiru debagoiendarren bizipenak jaso ditu Goienak



Polizia, grebalarien kontra. MARTXOAK 3

**Miren Arregi** ARRASATE

Bihar, zapatua, da martxoaren 3a, Euskal Herriko historian gorriz markatutako eguna. Espainiako Polizia Armatuak bost pertsona hil eta 150etik gora zauritu zituen egun hartan Gasteizen. Langileen greba orokorra zen eta milaka langile Zaramagako Asisko San Frantzisko elizaren barruan batu ziren biltzarra egitera. Poliziak langileei gas negar-eragileak jaurti zizkien, eta, grebalariak elizaren ate bakarretik irteten ziren bitartean, bi mila tirotik gora egin zizkien. 42 urte geroago, inor ez da sarraski haiengatik epaitua izan, ez da justiziarik egin.



Kontxi Agirre, Agustin Letona eta Xabier Infante. MIREN ARREGI

### Debagoiendarrak han

Greba hartara Gasteizko herritarrak soilik ez, Euskal Herriko txoko askotako langile eta ikasle asko eta asko batu ziren. Oñatiko Kontxi Agirre, Arrasateko Agustin Letona *Ataxi* eta Gasteizen sortu baina Oñatin bizi den Xabier Infanteren kasua da hori. Irakasle ikasketak egiten ari ziren Gasteizen, eta Zaramagako eliza barruan zeuden, polizia negarra eragiteko gas poteak botatzen hasi zenean. "Eguna gogor hasi zen, tentsio handia zegoen, ez ziguten batzen uzten, kalean ezin ginen taldean ibili, baina, bestetik, ilusio handia zegoen, gauzak aldatuko ziren esperantza genuen", dio Kontxi Agirrek. "Goizetik ari ziren, bai. Gu bizi ginen etxeko bebarruan jende mordoa sartu zen ihesi eta etxeko atea zabaldu genien. Atzetik sartu ziren *grisak*, eta, inor ez zegoela ikusita, sekulako triskantza egin zuten, dena apurtu zuten. Hori aurrekaria izan zen, tentsioa bazegoen. Arratsaldean, Xabier Infante eta biok batera joan ginen eliza barrura", gaineratu du Agustin Letonak. "Ondo gogoan dut", jarraitu du Infantek, "nola sartu zen *gris* bat elizara, esanez, bost minutu genituela kanpora irteteko. Gure erantzuna ezezkoa izan zen, baimena genuelako han egoteko. Ez nuen uste ezer gertatuko zenik, baina, bat-batean, negar egiteko gaspote bat bota zuten gure ondora". Minutu gutxian gerra agertoki bihurtu ziren eliza barrua eta kanpoa. Letonak eta Infantek leiho bat apurtu eta handik ihes egitea lortu zuten. Kontxi Agirrek ere lortu zuen handik onik ateratzea, okerrena saihestea.

### Oraindik ere, gogoan

Egun hartan eta ondorengoetan bizi izandakoek arrastoa utzi dute hirurengan. Kontxi Agirreren "egutegian gorriz dago Martxoaren 3a", eta egun horretan askotan Gasteizera joan izan da, eta, bestela, etxetik jarraitzen ditu ordukoa gogoratzeko antolatutakoak. Letonaren bizitzan ere gertakari gogorra izan zen, "baina baita aurrera egiteko bultzada ere. Bizi genuen egoera gogorra zen eta garai hartako borroka guztietan parte hartu nuen", dio. Infantek ere berdin bizi izan du: "Oso gertakari gogorra izan zen; data hurbiltzen denean pentsatzen dut duela 42 urte han nengoela, oraindik bizi naizela eta nire idearioa indartuta atera zela egun hartatik".

Debagoieneko **GREMIOAK**

**AROZTEGIAK**
**AZKARATE AROZTEGIA**
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket fletatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*blogak.goiena.net/azkarate*

**HONDEAKETAK**
**EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL**
ARRASATE
Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
*e.arrasate@gmail.com*

**ITURGINTZA**
**EGIA ITURGINTZA**
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85
**OYANGUREN ITURGINTZA**
ESKORIATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*l.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

**LEIHOAK**
**ARGI-PLASTIK**
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

**LOREZAINTZA**
**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkoneriak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.